

puntua

+

Debagoieneko basa animalien eta landareen zaintza

Elkarriketa Borja Aginagalde Irargiko zuzendariari



Arrasateko euskalgintzaren irudi berria

Geike izena hartu, eta Euskararen Egunaren atarian aurkeztu du / 9



GEHIGARRIA ERDIKO ORRIETAN

Geike osatzen duten taldeen, elkarten eta erakundeen ordezkariak.

XABI URZELAI

Antzuolan izan ezik, gainerako herrietako eskola publikoetan greba egin dute irakasleek / 2

Bertakotasuna zabaldu gura du Oñatiko Turismo Bulegoak 15 urte bete dituen honetan / 35

Goi mailako txirrindulariak ariko dira domekan, lokatz artean, Arrasateko ziklo-krolean / 38

Durangoko Azokara uzta oparoa daroate aurtien ere Debagoieneko kultura eragileek / 40

SINADURAK

	AINARA ZUBILLAGA / 19
	AMAGIOIA LASAGABASTER / 6
	JOSU ZUGASTI / 8
	SABIN ARANBURU / 14
	ANDRES OSA 'SAKONA' / 31
	ALAZNE GURIDI / 36
	ANDER ETXEBERRIA / 48

nuntua

IKUSBERA

Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:

'PUNTUA' + 'Ikusbera' aldizkari berezia:
Abenduaren 5ean.

GOIENA
Abenduaren 15ean.

VARILUX Transitions

TRANSITIONS TRATAMENDUA DUTEN LENTE PROGRESIBOEN, 2. LENTE PAREA

DOAN

www.multiópticasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontsulta izazdu zure optikan karpinariaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan

Abenduaren 9an Parisera joateko dei egin dute

Dozenaka gizarte eragilek eta norbanakok egin dute bat Bakegileek deituta abenduaren 9an Parisen egingo den manifestazioarekin. Debagoienean, Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Oñatin egin dute bat aldarrikapenarekin

Miren Arregi ARRASATE

Frantziako Gobernuari espetxe politika aldatzeko eskatzeko dinamika orokor baten barruan kokatzen da abenduaren 9an Parisen egingo den manifestazioa, Bakegileek antolatuta. *Orain presoak* izango da "milaka herritar" bildu gura dituen manifestazioaren leloa. "Helburua da euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespenezko neurri onartezinak kentzea".

Dozenaka gizarte eragilek eta norbanakok eman diote babesa euskal presoek egoera konpontzeko aldarrikatuz egingo den mobilizazioari, eta tartean dira LAB eta ELA euskal sindikatuak ere. Honela mintzatu da ELAko Amagoia Lasagabaster: "Giza eskubideen gai bat da, helburua da Parisko Gobernuaren agendan sartzea gaia". Eta dispertsio politikaz ere egin du berba: "Bengantzaz egindako politika bat da eta hori amaitu beharra dago, normalizazio baten alde". LABeko Jon Kirru Iparragirre ere Parisen egotearen garrantziaz aritu da: "Parisko Gobernuaren eragiten badugu, baliteke Madrildgo Gobernuaren bultzatzea pausoak ematera, eta, horrela, nazioartean, giza eskubideak ez errespetatze hori nabarmen geldituko da".



Gure Artera elkarteko kideak Bergarako Irizar jauregian. ANDONI BODES

Debagoienetik Parisera

Debagoieneko LABek eta ELAk ez ezik, hainbat herritan ere egin dituzte Parisko manifestazioa joateko deiak. Aretxabaletan, esaterako, hilabeteko azken ostirala aprobetxatu zuten gonbidapena egiteko. "Presoen hurbilketa, gaixo diren presoek askatzea, baldintzapeko edo behin-behineko askatasun neurriak ukan ditzaketen pertsonen libratzea, berdin kondena bukatzearen dute presoak. Berehalako neurri horiek presoek gonbidapena konponketa integralaren

lehen urratsa izango da", adierazi zuten antolatzaileek.

Oñatin eta Bergaran ere egin dute bat Bakegileek egindako deialdiarekin. Bergarako Gure Artera elkarteko kide Aitor Arantzabalek egin du berba manifestazioa Parisen egitearen arrazoiak gainean. "Frantziaren hedatuta dago gatazkaren konponbidearen ildoak. Baldintzak oso egokiak dira, ezkerretik eta eskumara, Le Pen-ek izan ezik, alderdi politiko guztiek bat egin dute eta aldarrikapen honekin.

Hezkuntza publikoko irakasleek bat egin dute grebarekin

Antzuolakoak izan ezik, beste herri guztietako irakasleak batu dira grebara. Hitzordu gehiago daude

M.A ARRASATE

ELA, LAB eta Steilas sindikatuek deituta, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpo-ko hezkuntza publikoko irakasleek greba egin zuten atzo. Debagoienari dagokionez, Antzuolan izan ezik, beste herri guztietako eskola publikoetako irakasleek egin zuten bat deialdiarekin. Hezkuntza publikoan, badaramate denboraldi bat mobilizazioak eta aldarrikapenak egiten. Aurreko asteetan, sukaldariak, garbitzaileak eta hezitzaileak egin zuten greba eta atzo irakasleek txanda zen.

Eskaera nagusiak

Ordezkapenak lehenengo egunetik egitea eta irakasleek behin-behinekotasuna gutxitzea dira aldarrikapenetako batzuk. "Izan ere, klaustroak aldaketa asko jasanez gero, zaila da proiektu

handiak jarraikortasunez aurrera eramatea". Ratioak gutxitzea ere eskatzen dute.

Ez hori bakarrik, ikasle guztien duintasuna bermatu ahal izatea ere garrantzitsua dela baitiote; haien esanetan, askotan baliabide barik gelditzen dira premia bereziren bat duten ikasleei behar besteko arreta eskaintzeko. Gainera, prekarietatea ere salatu dute, eta hainbat sukaldari eta garbitzaile azpi-kontratatu daudela adierazi. Haur-eskolak publikoak izatea ere bada eskakizunetako bat. Irakasleek dioite "hezkuntza publikoak bermatu beharreko" zerbait dela hori. Azken finean, hezkuntza publikoan egindako inbertsioa handitzea da aldarrikapen nagusia. Abenduaren 12an, hezkuntza publikoko sektore desberdinetako langileak greba egitera deituta daude.

Diru sarrerak bermatzeko errenta aztergai

Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteko Debagoieneko zenbait ordezkari batzorde bat eratu dute, diru sarrerak bermatzeko errenta aztertzeko, gaiari buruz hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko. Ondorio nagusietako bat da diru sarrerak bermatzeko errentaren oinarritzko laguntza txikiagia dela. Uste dute urtez

urte kontsumo prezioen indizearekin batera igo beharko litzatekeela, eroste-ahalmena bermatzeko. Horrez gain, prestazio hori jasotzeko gutxieneko adina 18 urtera jaistea egokiagoa litzatekeela uste dute. Bestalde, batzordea konturatu da bada-goela herritar kopuru bat laguntza hori jasotzeko eskubidea daukana, baina ez duena eskatzen. Taldea berriak konpromisoa hartu du hemendik aurrerako hausnarketak eta ondorioak sozializatzen.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

Lanerako
gertu!



GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK

www.mondragon.edu/gmh



Heriotzaz hausnartzeko ikuskizun berezia

'S(u/a)minetik bakera' bataiatu dute Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe arrasatearrak protagonista dituen egitasmoa. Abenduaren 14an izango du estreinako emanaldia, Amaia antzokian. Oraingoz, ez dute beste emanaldirik aurreikusten ibarrean

Iker Oñate ARRASATE

S(u/a)minetik bakera izeneko ikus-entzunezko lan proposamena egongo da ikusgai Amaia antzokian, abenduaren 14an, 19:00etan hasita. Zehatz esanda, bi arrasatear dira ikuskizuneko protagonista: Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe. ETak hil zuen lehenaren aita; Batallon Vasco Españolek bigarrenarena. Modu horretan, heriotza eta doluaren inguruko hausnarketa bultzatu gura du egitasmoak. Ordubete inguru iraungo du emanaldiak.

"Motibazio politikoei eragindako erailketetatik abiatuta, heriotzaren gaia jarri gura dugu mahai gainean. Askok diote ezin

daitezkeela konpara, desberdinak direla; guk konparatu ditugu, ordea. Finean, bi horiek dolua dute komunean, eta hortik abiatuta eraiki dugu egitasmoa", azaldu du Iñaki Peñak *-Patxi Lurra* ezizena duena-, ikuski-zunaren zuzendariak.

Argazkiak, bideoak, musika...

Aipatu beharrekoa da *S(u/a)minetik bakera* ez dela ohiko ikuskizuna, hainbat euskarri lantzen dituela: bideo proiektzioak, pasarte literarioak eta argazkiak ditu baliabide nagusi. Zehazki, Sandra Carrascoren eta Olatz Etxaberen bizipenak jasotzen dituzte ikus-entzunez-

koek zein argazkiek. Pasarte literarioek, bestetik, lotura zuzena dute gaiarekin; besteak beste, Arantxa Urretabizkaiaren *Bidean ikasia* liburuko pasarteak erabili dituzte. "Gatazka baten inguruan dihardu; eta, nola ez, biktimak presente daude kontakizunean. Horrenbestez, badu antzekotasunik gure kontakizunarekin", argitu du Peñak.

Elementu horiek guztiak lotzeko, bestalde, bi narratzaile egongo dira agertokian; Aitor Mudoh musikariaren laguntza izango dute. Hain zuzen, uneari dagokion musika eskainiko du Mudoh-ek. "Musika elektronikoa izango da, iluna", dio Peñak.

Jostailuak batuko ditu Gurutze Gorriak premia dutenentzako

Jostailu hezitzailea bataiatutako kanpaina jarri du martxan Gurutze Gorriak. Debagoieneko boluntarioek azaldu dutenez, "arazo sozioekonomikoak dituzten familietako haurren jolaserako eskubidea bermatzea bilatzen du egitasmoak". Aurreko urteko datuekin alderatuta, %32 egin du gora jostailu eskariak. Zehatz esanda, aurten, 256 hau-

rrek eskatu dituzte jostailu berriak.

Hain zuzen ere, hainbat bide jarri dituzte kolaboratu gura dutenendako: batetik, Arrasateko Hiper Eroskin egongo da jostailu berriak emateko aukera, abenduaren 5ean, 7an, 9an, 14an, 15ean eta 16an. Horrez gain, ekarpen ekonomikoa ere egin daiteke, 5, 10 edo 20 euroko jostailu-txeke emanaz. Honako kontu korrante zenbaki honetan dago horretarako aukera: ES22 3035 0001 51 0010018156.

Elikagaien Bankuak 'Bilketa handia' egingo du, gaur hasita

Elikagai bilketarako deialdia egin dute astebururako. Zehatz esanda, boluntarioek gaur eta bihar artean jardungo dute ibarreko hainbat supermerkatutako atarietan, kolaboratu gura duenak emandako jakiak jasotzen. Izan ere, urtean pilatutako elikagaien %80 jasotzen dute sasoi honetan; hortik datorkio *Bilketa handia* izena.

Gura duenak bi eratara egin dezake ekarpena. "Supermerkatuetan erositako oinarritzko elikagai iragankorrak poltsa berezietan emanaz -kontserbak, lekaleak, arroza, pasta, olioak, esnea, umeentzako pixoihalak...-; edota diru-txartelen bidez, ordain-tokietan jakinaraziz", argitu du Jose Antonio Agirre-beñak, Bergarako Elikagaien Bankuko arduradunak. Eroski, Dia, Lidl, BM eta Super Amara dira ekimenarekin bat egin duten supermerkatuak.



AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioitariek ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasagarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

bidegi.eus

BIDEGI

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

HARAKIN MAISUAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —
GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

OÑATI:

JESÚS ODRIÓZOLA HARATEGIA - Arantzazuko Ama, 2 Behea
ANTXON HARATEGIA - San Lorentzo, 5

BERGARA:

LETURIA HARATEGIA - Pedro Deuna, 24

ANTZUOLA:

GABILONDO ARREGI HARATEGIA - Kalebarren, 5

Fagor Arrasate eta euskara

ERIKA MENDIBIL KORTAZAR
FAGOR ARRASATEKO EUSKARA
KOORDINATZAILEA
ARRASATE

Fagor Arrasatek euskara eta lana uztartzeko egin duen ibilbide luzean –1976koak dira jasota dauden lehen ekintzak–, bereziki hiru ardatz bultzatu nahi izan ditu: ezagutza, erabilera eta motibazioa.

Ezagutza eta erabilera areagotzeko etengabeko lana egin da, euskara eskoletatik hasi eta gaur egungo kontratazioetako euskara eskakizunetara iritsi arte. Esan dezakegu lan hori pixkanaka fruituak ematen ari dela; izan ere, momentu honetan, langileen %73k euskaraz badaki eta %84k ulertzen du.

Erabilerari dagokionez, martxan jarri izan ditugun ekimenei esker –langileen konpromisoak, Eusleen dinamikak, euskara ulertzeko saioak, mintza saioak, bazkaltegiak...– esan daiteke ahozko erabilera ere gora ari dela egiten. Azken sei urteetan, %36tik %49ra.

Azken urte hauetan, Euskararen Eguna antolatu izan dugu lantegi guztietan, motibazioa eta euskararen aldeko kontzientziazioa areagotzeko. Badakigu horrelako ekintzek duten eragina neurgarria ez dela, baina, egia esan, egun horren bueltan giro polita sortzea lortzen da eta horrek eragin ona duela uste dugu.

Gainera, euskararen instituzionalizazioa indartzeko asmoz, Fagor Arrasatek 2014an Bikain Zilarra lortu zuenetik, euskararen aldeko errekonozimendu sariak emateko aprobetxatzen da egun hori eta Euskararen Egunean erabilera neurketak egiten dira, langileei egun horretan oraindik gehiago erabiltzeko konpromisoa eskatuz.

Hona hemen abenduaren 4rako prestatu ditugun ekintzak:

-Aurreko astean egutegietarako euskarazko lelo lehiaketa martxan egoten da.

-Euskararen Egunarekin batera, hornitzaileei gutun bat bidaliko zaie esanez beraiek erabiltzen duten aplikazioko dokumentu guztiak euskaraz lehenetsita izango dituztela egun horretatik aurrera.

-Goizean *Euskara mingainean* pegatinak banatu eta egunean zehar neurketak egingo dira; erronka: iaz baino erabilera datu handiagoa lortzea.

-Kafea eta madalenak.
-Eguerdiko hamabietan sari banaketa –errekonozimendu sariak–: 1) euskararen ibilbidean ikasi eta erabiltzeko saltoa eman duenari; 2) urteko neurketan erabilera datu altuena eman duen departamentuari; 3) azken lau urteetan erabileran nabarmen gora egin duen departamentuari; eta 4) egutegietako lelo lehiaketako irabazleari.

Aurten ere pasa dezagun, bada, egun hori ahalik eta gehien euskara erabiliz eta giro ederrean!

Ez dugu nahi gasolindegirik etxe ondoan eta eskola aurrean

NATI ALTUBE IÑURRITEGI, AMAIA ITURBE BIKUÑA, IÑIGO KORTABARRIA
ELORTZA ETA TERE PALACIOS
SALAZAR
HAINBAT HERRITARREN IZENEAN
OÑATI

Haserre eta kezkatuta jarri gaitu Oñatiko Eroskik bere parkingean gasolindegia egin nahi duela jakin dugunean.

Jende asko bizi gara ondoan eta beneditarren ume eskola ere hortxe dago; hala ere, gasolindegia egiteko baimena eman omen dio auzitegiak.

Legea bere alde izango dute, baina jakin bezate Eroskiko arduradunek ez dugula nahi gure etxe aurrean gasolindegirik, eta aurre egingo diogula arrisku horri.

Berriz ere legea ez dago gure alde, nahiz eta jakin

badakiten gasolindegiek airea kutsatzen dutela eta kaltegarria dela ondoan bizi den jendearen osasunarentzat.

Hor dauzka Eroskik parkingean *Emisión zero* jartzen duten pantailak, baina ez dago munduan gasolindegirik helburu hori betetzen duenik.

Gasolindegien inguruetakoa airea erregaien lurrinak uzten dituen emisioez kaltetuta egoten da –erre gabeko konbustioa, karga eta deskargako operazioak, depositu betetzeak eta ihes egindako likidoak–.

Gasolindegietan, konposatu organikoen emisioak egoten dira, bentzenoa (kantzerigenoa) eta n. hexanoa, eta horri guztiorri gehitzen badiogu autoen ihes-hodietatik ateratzen diren gasak, esango diguzue zein bizi kalitate izango dugun inguruan bizi garen guztiok.

Kontsumoko kooperatiba baten helburuek izan beharko lukete, eta Eroskirenak ere hala izango direla uste dugu: lanpostuak sortu, soldata duinak ordaindu, pertsonen artean errespetuzko harremanak izan, ingurugiroa zaindu, naturari ahalik eta kalte gutxien egin, janaren eta edarien kalitatea kontuan hartu, begirunea izan erosleentzat eta, azkenik, hori guztia egin ahal izateko errentagarria izan.

Baina gasolindegia jartzea diru etekin handiagoa ateratzeko, inguruko biztanleak eta eskolako umeak kutsatuko dituela jakinda, ez dugu uste bidezkoa denik.

Lehen esan dugun moduan, Eroskiren alde egingo zuen epailearen sententziak, eta, beraz, legearen babesa izango dute, baina zer irabaziko du Eroskik, inguruko bizilagunek eta beneditarren eskolako umeen gurasoek gasolindegirik ez badute onartzen euren inguruan?

Pertsonen osasuna kaltetzea zilegi da diruaren truke?

Atera ditzala kontuak.

Euskararen Legeak 35 urte

ANDER FERNANDEZ GIL
ARRASATEKO EHE
ARRASATE

Euskararen Legeak 35 urte bete zituen pasa den ostiralean; eta, horren harira, zenbait salaketa egin ditugu sare sozialen bitartez.

35. urteurren honetan, EHEtik egiten dugun balorazioa ez da inondik inora positiboa. Ikustea besterik ez dago euskaldunok egunerokotasunean jasaten dugun hizkuntza eskubideen zapalkuntza, edota euskararen erabileran ematen ari den atzerakada arnasgunetzat genituen hainbat eremutan. Datozen urteak erabakigarriak izango dira euskararen biziraupenerako; eta, aldaketa aurreikuspen hauen aurrean, jauzia emateko ordua da.

Euskal Herrian euskaraz bizitzeko, ezinbestekoa izango da bertoko biztanleria euskalduna izatea. Are gehiago, administrazio publikoko langile oro euskaldun eleanitza izan beharko da legez, euskaraz bizi nahi dugun gainontzeko euskaldunon hizkuntza eskubideak urratuak izatea ez badugu nahi, behintzat. Dagoeneko ez digu balio administrazioko langile batzuek soilik jakitea euskaraz. Denek gazteleraz badakite, zergatik ez euskaraz?

Ez dugu onartuko euskara bigarren mailako hizkuntza gisa tratatzea, eta are gutxiago euskaldunak bigarren mailako biztanletzat jotzea. Errealitate linguistikoaren arabera jartzen ei dira euskaldun kuotak administrazioko bulegoetan lanean, euskaldunoi zerbitzua bermatzeko. Errealitatea aldatzeko ordua dela deritzogu, ala beharrezkoa al da gogoraraztea zeinen eskutik eratorritako

debekuak eraman gintuen errealitate honetara?

Etorbizunean ez dadin gertatu gaur egun gertatzen dena, estrategikotzat jotzen dugu euskaraz dakiten ikasleak sortuko dituen hezkuntza sistema euskaldun bat sortzea. Horretarako, eredu politiketatik harago euskaraz bizitzeko eredu bakar eta integrala adostu behar dugu, arestian aipatutako jauzia sakona izatea nahi badugu, behintzat.

Orobat, euskararen ofizialtasuna exijitzen dugu Euskal Herri osoan eta gure hizkuntzaren derrigortasuna edozein hizkuntza ofizial eta ez-gutxituk behar duen moduan. Honez gain, erabilera planak indartu eta beharrezko baliabideak jartzea ezinbestekoa izango da estrategikoak ulertzen diren eremuak kontuan izanda.

Jauzia emateko garaia da, administrazioan euskaraz bizitzeko lehen urratsa euskaraz jakitea denez; euskaltegiak betetzera goaz!

'Realada 4.0'

MIKEL ARANTZABAL
EIBAR

8.819 pertsona, realzale, egon ziren eguaztenean Anoetan.

Hotza, euria, autobusean kilometro asko... Erridikulua ikusi zuten, bertatik bertara.

Errudunak topatzea izaten da lehen erreakzioa, eta entrenatzaileak jasotzen du egur handien. Baina... entrenatzaileak jokutzen du? Ez. Jokalariak baizik. Diru mordoa irabazten dutenek. Bigarren B Mailako talde batek hiru gol sartu zizkien Realeko jokalariei; ez Eusebiori. Hamaikako ona atera zuen, baina, adibidez, Velaren jarrera lotsagarria da, ez dezala berriro jokatu; taldeak ez du faltarik egiten, ezta zelai erdian ere; atzealde*a txaranga* hutsa da; eta Pardo hamaikakoan ikusi gura dutenak joan daitezela antzarak ferratzera!

Beste *Realada* bat gertatu da, eta modan dagoen termino bat gehituta, *Realada 4.0* izan da oraingoa.



ZABALIK

AMAGOIA LASAGABASTER

Sinistu nahi dugu!

Zaila da matxismoaz ezer berririk esatea. Bergarako plazan, azken emakumea hil zuteneko kale bilkuran, kandela batzuk eman zizkiguten antolatzaileek.

Bukatzean, txintxo-txintxo berriz gordetzeko antolatzaileari eman, eta zera esan nion: "Hurrengorako gorde!". Momentuan jabetu nintzen esandakoaz: "Gorde hau, hurrengoan ere hilko dute emakume bat eta orduan ere protesta egin beharko dugu eta". Zoritzarra iragarritako kronika baten kontakizuna...

Erailketa da matxismoaren aurpegiarik krudelena, baita agerikoena ere.

Ni, baina, gehien arduratzten nautenak ezkutuko mikromatxismo jarrera oharkabeak dira.

Ettxekoandreen gaineko txiste inuzenteak, piropo zaharkituak, inoiz ardura posturik emango ez dioten langile titidunaren desesperazioa, ikastolako guraso bileretako gizon apurren parte-hartzeak...

Pozten nau Bergaran, adibidez, gazteen artean dagoen mugimendu feminista oparoak. Harro begiratzten diet, beraiek baitira hurrengo belaunaldia, guztia aldatuko duten belaunaldia.

Baina borroka honetan gizonezko ausartak ere

GIZONEK BARNERATU BEHAR DUTE BERAIEEN ESKU ERE BADAGOELA GIZARTE JUSTUAGOA ERAIKITZEA

beharrak ditugu. Ba al daude? Sinistu nahi dut baietz.

Gero eta konbentzituago nago genero aukera berdintasuna lortzeko gizonezkoek eman beharrezkoak.

Minigona batek ez dio inori ipurdia ukitzeko eskubiderik ematen, titi gabe ere umeak zaindu daitezke, ez da ingeniaria izan behar labadora bat jartzeko, zaplazteko batek ez zaitu inoren jabe egiten, kolore arrosa oso polita da edonorentzako, gizon ahotsa izateak ez dizu automatikoki arrazoirik ematen, eta abar.

Emakumeok boteretze prozesuari ekin behar diogu, ados. Baina gizonezkoek barneratu behar dute beraieen esku ere badagoela gizarte justuagoa eraikitzea.

Sinistu behar dugu guztiok egin behar dugula esfortzua, ez bakarrik emakumeok.

Prest al daude gizonezkoak, jaiotzatik eta emakumeen kontura aitortzen zaien pribilegioei uko egiteko?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Bakarrik ez egoteko

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

HTTPS://LABUR.EUS/N4SNE
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Eremu oso erdaldunetan euskaraz bizi nahi izaten dugunok badakigu zer den haizearen kontra borrokan ibiltzea. Okindegi batera joan, eta "bi ogi otoi" ahalik eta argien ahoskatu zein ogiak berak hatzez seinalatu arren, "comment?" bat jaso eta pazientzia osoz berriro "deux baguettes s'il vous plait" erantzutea, irribarrez. [...]

Beste batzuetan euskaraz entzun eta gaztelerez erantzungo dizute, bereziki Hego Euskal Herrian nagusiago den *r*-a egiten

baduzu, haren gaztelera frantses tonu handikoa baldin bada ere. Eta gaizki sentituko zara, eta frantses garbian erantzungo diozu berriro. Hurrengoan, agian zuzenean, ez zara saiaturiko. Zaila baita haizearen kontra joatea, eta bakardade handia sentitzen baita egun batean bai eta hurrengoan ere bai horrelako egoerak bizita.

Horri aurre egiteko dinamika polita abiatu dute aste honetan Baionan, Angelun eta Miarritzen, hizkuntz egoerari zaplazteko bat emateko asmoz: BAM! Euskal Herriko beste herri batzuetan egin duten gisan, *ahobizi* eta *belarriprestek* euskararen erabilera

sustatzea izango dute helburu, jarrerak aldatuta.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 9.000 euskal hiztun leudeke hiru herriek osatzen duten metropolian, eta euskaraz ulertzen duten 15.000. Baionan bizi nintzenean sentitzen nuen euskal bakardadea kontuan hartuta, erraldoiak iruditu zaizkit zifrak. [...]

Ikusiko dugu fruituak ematen dituen, baina paisaia erdaldunari aurre egiteko kolektibotasun bat emango du behintzat aste osoko jardunak. Edota, gutxienez, Berri Txarrak-en hitzak mailegatu eta eraldatuta, *bakarrik (ez) egoteko modu berri bat*.

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

www.goiena.eus

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administratzaile zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailatako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitate

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BERBAGAI

"Alderdiari amaiera emateko bokazioarekin sortu ginen"

REBEKA UBERA ARALAR ALDERDIKO IDAZKARI NAGUSIA

Larraitz Zeberio ELGETA

Aralarrek VII. Kongresua egingo du bihar Iruñean, eta afiliatuek alderdiaren desegitea bozkatuko dute.

Zergatik orain?

Iruditzen zitzaigun orain zela unea. Aralar alderdiari amaiera emateak ez du esan nahi Aralar sentsibiltateak jarraituko ez duenik. Ezker abertzalearen baitan hainbat sentsibiltate daude.

Sorrerako ponentzian jaso genuen alderdiari amaiera emateko bokazioarekin sortzen ginela eta lau helburu jartzen genizkion gure buruari. Ikusi dugu helburu horien alde alderdi moduan egiteko zegoena egin dugula.

Nola gogoratzin dituzu hasierako urteak?

Oso garai gogorak izan ziren. Kontrakotasun handia zegoen eta eztabaida bizia. Ez zen erraza gizartearen aurrean aralarkide bezala aurkeztea. Gai izan gara gure printzipioak jarraituz koherentziaz lan egiteko, eta,



Rebeka Ubera. AMAIA TXINTXURRETA

azkenean, horrek emaitzak eman ditu.

Zeintzuk izan dira Aralarren ekarpen nagusiak?

Sortu ginen ezker abertzalearen baitan eztabaida sortzeko

helburuarekin: ezker abertzale zibil eta zabala sortzeko eztabaida sortzeko, ETaren borroka armatuari amaiera emateko eztabaida sortzeko, barne demokrazian sakontzeko eztabaida


sortzeko, erabakitze eskubidearen eta lurraldetasunaren inguruan eztabaida sortzeko... Poliki-poliki ideia horiek jasotzen joan dira eta gaur egun onartuak dira. Pozik gaude lortutakoarekin. Ez dugu esango dena Aralarrengatik izan dela, baina gure ekarpena egin dugu eta orain garaia da testigua EH Bilduri emateko. Ulertzen dugu EH Bildu izan behar dela garai berrien erreferentzia, eta garai berriei erantzun egokiak emateko bitartekoa.

Zeintzuk dira, zure ustez, EH Bilduk dituen erronka nagusiak?

Oso garai delikatu gaude eta EH Bilduk dituen erronkak ez dira batere makalak. Lehenik eta behin, asmatu beharko luke ezkerreko mugimendu abertzalea artikulatzen tresna eraginkor bilakatzeko. Politika balioan jarri beharko luke, eta ezkerrearen eta abertzaletasunaren balioak beritu. Azkenik, zalantzarik gabe, indarra egin beharko luke prozesu demokratikoa aktibatze demokraziaren oinarriko printzipioen defentsan eta erabakitze eskubidea gauzatzeko. Uste dut horrela bakarrik berma daitezkeela herritar guztien eskubide guztiak.

HAU BE BADOGU!

Euskara sarean gehiago erabiltzeko deia



Euskararen Nazioarteko Eguna domekan izango da, eta #euskara traola *trending topic* izan da astean zehar. Sare sozial ezberdinetan euskara gehiago erabiltzeko dei egin dute hainbat erabiltzailek.

@vivesok: "Euskara Twitterren bizien dagoen hizkuntza txiki edo gutxitua eta komunitate trinko eta aktiboena daukana".

Epaiketan pozoia hartuta hil da Praljak



Slobodan Praljak Bosniako kroaziarren komandante ohia Hagako ospitale batean hil zen eguaztenean, epaiketan pozoia edan ostean. Praljaki ezarritako 20 urteko kartzela zigorra berretsi zion auzitegiak, eta zuzenean emititzen ari zen epaiketan pote bat atera eta edan egin zuen pozoia komandante ohiak, denak txundituta utzita. Gaia *trending topic* izan da munduan.

Errege Kopan, euskal taldeei ezustekoak

Realak 2-3 galdu zuen Anoetan Lleiden aurka, eta Athleticek San Mamesen 0-1 Formenteraren kontra. Europa Liga jokatzeko ari diren euskal taldeek Bigarren B Mailako talde xumeagoen aurka galdu, eta agur esan diote Kopari. Kanporatze horiek haserre piztu dute zaleen artean, eta sare sozialetan #lotsa eta halako hainbat traola erabili zituzten erabiltzaileek.

ITURRI ONETIK

Realaren gaineko bideoklipa grabatzen Oñatin

Realak bideoklip ofiziala grabatzen dihardu Gabonetara begira; hain justu ere, abenduaren 23an aurkeztuko dute, Anoetan. Zale txuri-urdirak dira bideoklip horren parte inportante, eta, hori horrela, Oñatin izan dira oraingo astean irudiak zaleekin grabatzen –beste eskualde batzuetan ere ari dira–. Unibertsitate inguruan, Izarraitz tabernan eta Lleiden aurkako futbol partidurantz Anoetara autobusean abiatu aurretik grabatu dituzte irudiak, besteak beste.

GORA ETA BEHERA



Bandalismoak eragindako hainbat kalte

Antzuolako Udalak zabaldu du zapatu gauean hainbat kalte eragin zituztela kalean. 16-18 urteko mutilzkoek, afalostean, Bergarara joateko autobusa hartzera zihoazela, bidean aurkitu zituztenak puskatu zituzten: autobus-markesina, hiri hondakinak eskegitzeko posteak... "Alkoholak eta beste zerbaitek" eragindako bandalismo ekintzat hartu du Udalak.



ANTZUOLAKO UDALA

1.034.004 euro Enplegu Saileko aurrekontura

2018rako aurrekontu proposamenean, enplegurako partida %17 igotzea proposatzen du Udal Gobernuak. Gazteak, emakumeak eta formakuntza falta dutenak lan merkatuan sartzea da Enplegu Sailaren erronka nagusietako bat datorren urtera begira

Xabi Gorostidi ARRASATE

Laster jakingo dira azaroko langabezia datuak, baina, urriko datuen arabera, herriko langabezia-tasa %11,29 da, 1.178 langaberekin. Urte hasieratik urrira datuak hobera egin du %1,54, hain zuzen ere, baina kontuan izan behar da urriko datuak ez dituela barne hartzen Edesa Industrialean gertatu diren kalartzeak.

Datuek hoberako joera duten arren, Udal Gobernuak enpleguan eragiten jarraitzeko gogoia du eta 2018ko aurrekontu proiektuan %17ko igoera aurreikusten da enplegura bideratutako dirupartidan. 153.100 euro gehiago izango ditu zaku horrek, eta milioi bat euroko langa gaindituko du: 1.034.004 euro. Datua herriko langabeen zifrearekin alderatuz gero, herriko langabe bakoitzeko 878 euro bideratzen ditu udal aurrekontuak.

Bi erronka nagusi

Datorren urterako ekintzak iragartzeko prentsaurrekoa egin du aste honetan Enplegu Sailak, eta bi erronka nagusi definitu ditu bertan: laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzat –emakumeak, gazteak eta formakuntzarik ez dutenak– programak antolatzea eta langabeen

profilak enpresen beharretara egokitzea.

Kolektibo horien datuak aztertuz gero, 30 urtetik beherako enpresen egoerak hobera egin du 2017an. Baina adina alde batera utzita, datuak sexu ikuspegitik ikusita, emakumeen datuetan hobekuntza askoz txikiagoa da. Urte hasieran, emakumeen %14,71 zeuden lanik gabe eta urrian, aldiz, %14,07. Gizonezkoen kasuan, urte hasieran %11,20 zeuden lanik gabe eta urrian, %8,88.

Hiru programa berri

Aurten, bederatzi ekintza aplikatu ditu Enplegu Sailak, eta, ondo funtzionatu dutela iritzita, jarraipena izango dute datorren urtean ere. Horiez gain, beste hiru egitasmo berri aurreikusten dira 2018ako.

Lehena erabilpenik gabeko udal lurretan nekazaritza jarduerak jartzeko proiektua da. Hori garatzeko, Eusko Jaurlaritzako Hazi Fundazioarekin eta Neiker ikertegiarekin batera aritu dira lanean Enplegu Saileko ordezkariak.

Bigarrena Gaztelan programa da. Muntaiak elektromekanikoei, nekazaritza ekoizpenekin eta elikagaien eraldaketarekin lotutako formakuntzak egiteko

445.400 euro dituen plana da. Espainiako Gobernuak %90eraino finantza dezake, eta gainontzekoa Udalak jarriko luke.

Hirugarrena herriko titulatu berriei zuzenduta dago. Horren asmoa da bertako enpresetan euren ikasketen kalifikazio mailarekin eta espezializazioarekin lotutako lana topa dezatela.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Aliantza santua

1815ean, Napoleon egurtu ostean, Prusiak, Errusiak eta Austriak liberalismoa desagerrarazteko aliantza absolutista bat sinatu zuten. Erregimen Zaharraren pribilegioak mantendu eta absolutismoaren etorkizuna bermatzeko. Espainia, Frantzia, Eliz Estatuak eta Siziliako erresuma absolutistak pozarren batu zitzaizkion elkarte erreakzionario berriari. Hainbat urtez, Europako elite monarkikoei elkar babestu zuten, eta interbentzio ugariaren bitartez, iraultza liberalak zapaltzen ahalegindu ziren.

2017an, European aliantza berria daukagu: burgesa, neoliberal eta unionista: Europar Batasuna. Aurrekoak baino makillaje landuagoa du; parlamentarismoa, merkatu librea, konstituzionalismoa... Baina berdina da, funtsean. Funtsean, elite ekonomiko-politikoen *txiringito* bat baino ez da.

Kataluniaren bide demokratiko eta baketsuek Europar Batasunaren oniritzia jasoko zutela uste zuten askok, baina Rajoy burgesak, Felipe erregeak eta banketxe transfugek jaso dute. Hori bai dela klase-elkartasuna!

SUWOW



SUV KONPAKTU BERRIA
CITROËN C3 AIRCROSS
ESPAZIO ZABALAGOA, MODULARITATE HANDIAGOA



CITROËNek nahiago du TOTAL

KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 EMISIOA (g/km):
CITROËN C3 AIRCROSS: 4,0-5,6 / 104-126

f t y i c citroen.es

GSEF 2018: Bilbora joateko deia

2018an Bilbok hartuko du Mundu Mailako Gizarte Ekonomiaren Foroa, Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Urriaren 1 etik 3ra mundu osoko eragileek 'lehiakortasuna eta balioak, tokiko garapen jasangarri eta inklusiboa' gaiaren inguruan jardungo dute, eta Arrasateko enpresek zein eragileek bertan parte hartzeko aukera izango dute. Interesa dutenek abenduaren 21era arte dute zabalik izen ematea. Bi urtean behin antolatzen den foro honen azken edizioa Montrealean egin zen, eta bertan Bilbok hurrengo edizioa antolatzeke hautagaitza aurkeztu zuen, Arrasateko Udal ordezkariarekin batera. Bartzelona bezalako aurkari indartsuekin lehiatu arren, Bilbo izan zen garaile, eta kongresu hori hartuko duen Europako lehen hiriburua bilakatuko da.

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

EUSKARAREN
EGUNA 2017

Asteburuan hainbat ekimen, euskararen alde

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, aste osoan zehar hainbat ekimen egon dira martxan Arrasaten eta asteburuan ere ez da aspertzeko aukerarik egongo. Bestalde, orain arte Arrasateko Euskalgintza izan dena Geike bilgunea izango da aurrerantzean

Eneko Azurmendi ARRASATE

Domekan izango da Euskararen Nazioarteko Eguna eta Arrasateko Euskalgintza martxan da eguaztena ezkerro.

Izan ere, hainbat ekintza egin dituzte astean zehar, eta asteburura begira egitarau zabala dute prest.

Eguaztenean hasita, mural kolektibo bat ari dira margotzen, Txatxilipurdi Elkartearen garaje handian. 14:30etik 18:00etara-ko tartean, arratsaldero, eragile desberdinetako kideak elkar-tu dira, elkarrekin horma-irudi eder bat osatzeko, eta gaur –egubakoitza–bukatu dute murala, ordu berean.



Geike osatzen duten euskalgintzako ordezkariak irudi berriarekin. XABI URZELAI

Bestalde, gaur hainbat ikaste-txetan ekintza bereziak egingo dituzte; adibidez, Euskararen Egunerako kaxaz osatutako horma-irudiak. Euskaltegietan ere ari dira ospatzen. Izan ere, udal euskaltegian mintzodromoa eta txokolate-jana egin zuten atzo, eta AEK-ko euskaltegian *Eus-kara gehiago egiteko zer egin geike* esaldiak-konpromisoak landuko dira klaseetan, eta gero, txapak egingo dituzte, horiek aldarrikatzeko. Bestalde, ludoteketan altxorren bila ibiliko dira herriko kaleetan zehar eta txokolate beroa hartuaz amaituko dute eguna.

Asteburuari begira, esan bezala, hainbat ekintza egongo dira. Biharko, zapatua, gazte txokoetako nerabeek arratsalde osorako egitaraua prestatu dute –Urban Festa!–. Domekan, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekintza egongo dira goizean zehar, eta, bukatzeko, Euskararen plaza inauguratuko dute. Hain zuzen, Udaltzaingo, Txatxilipurdi eta Ereindajan parean dagoen parkea izango da Euskararen plaza aurrerantzean.

Geike

Hamabi elkarte osatzen dute Arrasateko Euskalgintza: Ekin, Emun, AED, Goiena, Euskal Herrian Euskaraz, Txatxilipurdi, Arrasate Institutua, AEK, Arizmendi Ikastola, MU, Herri Eskola eta Arrasateko Udalak.

2011n sortu zuten euskararen aldeko bilgune hori, herriko euskara taldeen, ikastetxeen eta Udalaren eskutik. Iaz, bosgarren urteurrena aprobetxatuz, ebaluazioa egin zuten, eta hainbat ondorio atera zituzten.

Hausnarketa berri honetan, Arrasate euskaldunagoa lortzeko, bilgune dinamikoa, irekia, eraikitzailea, freskoa, ausarta, herrikoa, aktiboa eta sortzailea izatea da helburua, eta, hori lortzeko helburuarekin, izen berria jarri diote Arrasateko Euskalgintzari: Geike bilgunea.

Euskaraldia ere badator, eta, 2018ra begira, Geike bilguneak buru-belarri helduko dio ekimen horri. Hori dela eta, herritarrei ekimenetan parte hartzeko gonbita egin diete, ekimenak proposatuz, antolaketan parte hartuz eta egunerokotasunean euskara gehiago erabiliz.

EUSKARAREN EGUNA ARRASATEN

Elkarrekin
egin geike
Arrasate
euskaldunago!

Azaroak 29-30 eta abenduak 1

MURAL MARGOTZE KOLEKTIBOA

14:30etik 18:00etara mural margotzea: egunero martxan

Abenduak 2, larunbata

URBAN FESTA!

17:00etan Aurkezpena

17:30ean Parkour erakustaldia

18:00etan Bokabeats beatbox komedia

19:00etan DJ Aimar

Abendua 3, igandea

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

11:00etan Eskuter txapelketa

12:30ean Konpartsaren eta gaiteroen kalejira Seber Altube plazatik irtenda

13:00etan Bertso-rap emanaldia: Aneguria eta Oihana Arana

13:30ean Euskararen plazaren inaugurazioa



ARRASATEKO UDALA

*Ekimen guztiak Udaltzaingo, Txatxilipurdi eta Ereindajan parean dagoen plazan izango dira.

**Euria eginez gero, murala Txatxilipurdi alboan dagoen garajearen inguruan dugu eta gainerako ekitaldiak Biteri plazan izango dira.



Anbulatorioko ate aurrean dagoen dorrea lurpean sartuko dute 2018an. XABI GOROSTIDI

Zaldibarko goi-tentsioko linea lurpean sartuko dute

Bost aldeko akordioa sinatu dute Udalak, Iberdrolak, Fundiciones Gelmak, Ospitaleak eta Fagor Arrasatek, eta lurperatzearen gastuak denen artean ordainduko dituzte. Lanak esleitzeko bidean daude, eta bost hilabete irautea aurreikusten dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Ospitaleko eta Anbulatorioko sarreraren parean dagoen argindar banaketa dorreak desagertzeko bidean daude. Bertako argindarra jasotzen duten enpresekin adostasuna lortu ostean, bost aldeko akordioa sinatu dute Udalak, Iberdrolak, Ospitaleak, Gelma Fundicionesek eta Fagor Arrasatek.

"Arrasaten aspalditik egon den eskaria da goi-tentsioko linea kentzearena. Ez da ohikoa jende asko igarotzen den espalo baten gainean horrelako linea bat ikustea. Estetikoki ez da batere atsegina, eta, lurperatuz gero, are seguruagoa izango litzateke. Eraiki zenean, industrialde bat zen, gaur egun ospitalea dagoen tokian Union Cerrajerako biltegia zegoelako, baina gaur egun egoera bestelakoa da, eta beharrezkoa da hori kentzeko neurriak hartzea", azaldu du Ibon Arrupek, Hiri-gintza, Mugikortasun eta Ingu-rumen zinegotziak.

Gastuak partekatuz

Lurperatzeak 275.320 euroko kostua izango du, BEZik gabe, eta, bost aldean arteko akordioan jasotzen denez, gastuak denen artean banatuko dituzte. Udalak eta Iberdrolak 62.660 euro jarriko dituzte –bakoitzak– eta Ospitaleak, Gelma Fundicionesek eta Fagor Arrasatek, 50.000 euro, BEZik gabe –bakoitzak–.

Bost hilabeteen eginda

Lanak egiteko esleipen fasea irekitzeko prest dago; beraz, urte hasieran lanak hasteko moduan izango dira.

"Bost hilabeteko tartean lanek eginda egon beharko lukete. Lehenik eta behin, lurpeko hornidura egingo dute, eta, behin hori martxan dagoela, dorreak kenduko lirake".


Gabonak, 'Merkatari' erabiltzen hasteko sasoi aproposa

Urteko sasoi honetan aplikazioak izan ditzakeen abantailak azaldu ditu Raul Uriarte kudeatzaileak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gabonak ate-joka daude eta Raul Uriartek, *Merkatari* aplikazioaren kudeatzaileak, erreminta berri horrek garai honetan izan dezakeen garrantzia nabarmendu du: "Komertzioaren eta bezeroen arteko harremana indartzeko erreminta da *Merkatari*. Izan ere, Gabonetan, guztiz lagungarria izan daiteke, ondorengo kasuetarako, adibidez: Arrasateko dendetako eskaintzak begiratzeko, zein produktu dauden ikusteko edo opari bati buruzko gomendioak eskatzeko".

Baina komertzioentzako ere abantailak eskaintzen ditu: "Promozioak bidali ditzakete, xanpainena eta pastelena, adibidez, edo Santamas eguneko bazkari-rako menu berezi batena; elektronika denda batek, esaterako, ordenagailu bat...".



Merkatari aplikazioa mugikor baten. X.G.

Deia komertzio eta herritarrei

Adibideak asko izan daitezkeela dio Uriartek, eta, haren ustez, Gabonak garai ona izan daitezke *Merkatari* erabiltzen hasteko. "Komertzioak eta herritarrek iniziatiba berri honetara batzera animatzen ditut".

'Ehunka pausoz' ekitaldia zapatuan, Sortuk antolatuta

Hamazortzi urtez preso egon den Aratz Gomezi eta erbestean 43 urte pasa dituzten Kristina Larrañagari eta Anjel Iturberi omenaldia egingo die Arrasateko Sortuk.

Hain zuzen, zapatu honetan izango da, Seber Altube plazan. 13:00etarako jendea gerturatze-ko dei egin dute, nahiz eta ekitaldia 13:30 aldera hasiko den.

OHARRAK

Gabonetako argiak

Pizte ekitaldia Ointxe! taldekoek egingo dute, abenduaren 6an, 18:30ean, plazan, taldea sortu zela 50 urte pasa direla aitortzeko.

Mus txapelketa

Zigorrolako Txinato tabernan mus txapelketa egingo dute abenduaren 15ean, 22:30ean. 40 euro jarri beharko dituzte bikote parte-hartzaileek.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

beinke

arrasate

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Hileta zibilendako lekua egiteko 1.769 sinadura

Arrasateko EH Bilduk astelehenean aurkeztu zituen sinadurak, BAZen; hileta zibilak egiteko leku estali bat egokitzea eskatzen dute. "Pentsaera ezberdinetako jendeak" parte hartu duela azpimarratu du EH Bilduko bozeramaile Eneko Barberenak

Josu Bilbao ARRASATE

Hileta zibilak egiteko toki estali bat egokitze sinadura bilketa abiarazi zuen Arrasateko EH Bilduk urriaren 25ean, eta astelehenean, hilabete bat geroago, 1.769 aurkeztu zituen, BAZen. Hain zuzen ere, hileta zibilak egiteko leku estali bat egokitze asmoa zuen EH Bilduk 2015ean, baina, hauteskundeak galdu ostean, 2016ko eta 2017ko udal aurrekontuetan planteatu dute gaia, emendakin moduan.

"Udal Gobernutik jaso dugun erantzuna izan da herrian ez dagoela horretarako eskaririk, eta hori kuantifikatzeko asmoz



EH Bilduko kideak sinadurak aurkezten, BAZen. XABI GOROSTIDI

abiarazi genuen sinadura bilketa", azpimarratu du Eneko Barberenak.

Bilketa urriaren 25ean hasi zuten, eta azaroaren 25era arte aritu dira sinadurak batzen. Eneko Barberena EH Bilduko bozeramaileak herritarren parte-hartzea eskertu nahi izan zuen sinadurak aurkezteko unea: "Askotariko pentsamoldeak eta sinismenak dituzten herritarrak hurbildu zaizkigu: sinestunak, sinesgabeak, kristauak, musulmanak... Guretzako, erronka bat zen jendarteko eskari hau kuantifikatzea, baina, erantzuna ikusita, eskerrak ematen dizkiogu ekimenarekin bat egin duten herritar guztiei".

Behin sinadurak BAZen aurkeztuta Arrasateko Udal Gobernuaren txanda dela uste dute EH Bilduko kideek: "Guk behar hori kuantifikatu dugu, eta orain, Udal Gobernuari dagokio egoea aztertzea. Guk ez dugu leku konkreturik proposatzen, zabalik gaude edozein aukeratar. Orain, akordioetara heltzeko unea da, eta espero dugu Udal Gobernuak eskari hau kontuan hartzea".

Komertzioa bultzatzeko kanpaina

Arrasateko EH Bilduk herriko komertzioa bultzatzeko kanpaina abiatuko du abenduan, urtarrilera arte. "Horren garrantzitsua den sektore ekonomiko eta sozial bati nahikoa garrantzia ez zaiola ematen iruditzen zaigu", azaldu dute EH Bilduko kideek.

Horrela, kalean kartelak jarriko dituzte eta sarean kontsumo lokala bultzatzeko deia zabalduko dute. Gainera, udal aurrekontuetan emendakinak sartu dituzte, "egina dagoen komertzio planeko ekintza plana martxan jar dadin". Horrez gain, beste herri batzuetako esperientziak ezagutuko dituzte, ideiak hartzeko helburuarekin.

LASER DEPILAZIOA

Gozatu zure azalaren leuntasunaz

LIRAIN

ESTETIKA ZENTROA

RPS:48/14

Ez da osasun zentroa

943 79 52 17

Bizkaia Ferret, I

20500 ARRASATE

TEKNOLOGIARIK AURRERATUENA ZURE ESKU

LASER PLATAFORMA

Lightseer diodoa

Alejandrita

Argi pultsatua (IPL)

4 saioko bonuarekin (saiok 3 hilean behin), prezioa saio bakoitzeko

Emakumezkoak		Gizonezkoak	
Hanka osoak	80 €	Bizkarra	120 €
Hanka erdiak	50 €	Bularra	70 €
Izterrondoak	35 €	Sabela	50 €
Besapeak	35 €		

FINANTZIAZIOA

%0ko

INTERESA

12 HILABETETAN

"Saltsa polita izaten dugu Margo Taldean"

Arrasateko Margo Taldeak erakusketa jarri du Kulturaten, eta urtean zehar egindako lanak dituzte bertan —abenduarien 21era arte—. Egun, 21 lagun daude taldean, eta leku faltagatik ezin dituzte gehiago onartu; oraingo, behintzat

Xabier Urzelai ARRASATE

Urtean zehar egindako lanak ikusgai jarri dituzte Arrasateko Margo Taldekoek Kulturaten, atzo hasita —eguna—. Eta, hain zuzen ere, Arrasate Irratiko mikrofonoen aurrean izan da, aste barruan, taldeko kide Bea Arregi: "Erakusketa gustura antolatzen dugun zerbait da, batetik, Kulturate leku ederra delako lanok erakusteko, eta, bestetik, urte osoan egindakoak jendaurrean erakustea polita delako".

Arregiren kasuan, azkenaldian Errioxa aldeko mahastiek harrrapatu dute, eta udazken koloreak eraman ditu Kulturatera.

Edozelan ere, erakusketan denetik egongo da: "Margo figuratiboak, inpresionistak, abstraktuak... denetarik egongo da, eta, horrekin batera, olio-pinturan egindakoak, akuarelak, ur-margoak, akrilikoak... Arkatzez egindako margolanak ere egongo dira".

70 lan inguru

Arregiren esanetan, 70 lan inguru jarri dituzte Kulturaten: "Gutxi gorabeherako datua da. Nik bost lan inguru eraman ditut, baina nireak nahiko txikiak dira. Badira bi lan baino eraman ez dituztenak, baina oso margo handiak direlako".

Salgai daude

Broma giroan bada ere, Arregik azpimarratu du artistek erakusten dituzten lan horiek, normalean, salgai egoten direla: "Denetik egoten da. Akaso, norbaitek oparitzeko izango ditu, edo norberak gordetzeko, baina, normalean, salgai daude. Hori bai, oso zaila da lanok saltzea, ez dakigu momentu aproposa ez delako edo zergatik, baina, tarteka bakarren bat saltzen bada ere, oso zaila da. Egia esan, niri pena ematen dit margolan bat saltzeak, baina konturatzen zara ganbaran pilatuko zaizkizula denak, eta saltzeko erabakia hartzen duzu".

Ointxe! eta Araski taldeek indarrak batu dituzte

Emakumezkoen errendimendu handiko saskibaloiairen aldeko apustua egin dute, elkarlanean

X.U. ARRASATE

Ointxe! saskibaloia klubak eta Araski klub arabarrak emakumezkoen taldeak batu dituzte, harrobiarekin hobeto lan egiteko. "Emakumezkoen errendimendu handiko saskibaloia elkarlanean sustatzeko proiektua da hau, Euskal Ligako kadete eta junior taldeei merezi duten prestaketa bermatzeko. Hala, Ointxe! eta Araski taldeen birtarteko guztiak elkarbanatu eta erabiliko ditugu: kantxak, entrenatzaileak, garraioa, materiala...", adierazi du Arrasateko klubak.



Irene Murua. ALBERTO PEREZ

Nazioarteko txapelketara

Bada, Ointxe-Araski taldeko ordezkariak hasi dira protagonismoa hartzen. Izan ere, abenduko zubian, Espainiako 16 urtez azpiko selekzioak Zamoran jokatu du nazioarteko torneo

—Italiako eta Turkiako selekzioak izango dira bertan— eta Irene Murua arrasatearra deialdian sartu du hautatzaileak. Ez da bakarra izango, Ointxe-Araski taldeko Teresa Mbomio urretuarra ere aukeratuen artean dago eta.

Kontxi Tamayo, doktorea. Dermatologoa

Zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

DERMATOSKOPIA DIGITALA

- Esplorazio-teknika bat da, ez du minik ematen, eta azal-minbiziak detektatzen ditu; adibidez, melanoma, hasierako fasean: lunarren irudiak hartzen dira kamera digital batekin eta haien jarraipena egiten da.
- "Dermatoskopia, gaur egun, teknika zehatzena da lunarren jarraipena egiteko eta melanomaren diagnostiko goiztiarra izateko".
- Melanoma azal-minbizi agresiboenetako bat da, eta, garaiz detektatzen bada, pronostikoa asko hobetzen da, %100 inguru.
- Lunar asko dituzten pazeientei —eta eguzki-esposizio handiko aurrekariak izanda— lunarren jarraipena egingo diete dermatoskopia digital bidez.
- Azterketaren prezioa: 150 euro (urteko kontrol guztiak barne, behar izango balira)

TRATAMENDU DERMOSTETIKOAK

- Eguzkiak eta adinak eragindako azalaren orbanak ezabatzea (saio bat edo hiru)
 - Aurpegiko eta beste atal batzuetako zaintxo gorriak ezabatzea (saio bat edo hiru)
 - Hanketako barikulak ezabatzea
 - Depilazioa
 - Keinu eta zimur bikiak zuzentzea, azido hialuronikoa eta toxina botulinikoa aplikatuta
 - Peelingak
 - Kontsulta itzazu gure prezioak
- (Partikularrak: Lagun Aro, Sanitas, Prevalia, Generali)

Partikularrak • Aseguruak: Lagun Aro, Sanitas, Prevalia, Generali.



FOTOGAZTETZEA

ZUATZU KLINIKA

Nafarroa etorbidea z/g, behea
ARRASATE
943 79 20 18
620 12 48 43

Inoiz ikusi ez duzun bezalako Gorbeia

GORBEIAKO gune turistikoak, GORBEIAK pilatzen dituen ondare natural, historiko eta gastronomiko aberatsaz gozatzeko, zortzi bisita gidatu eskaintzen ditu Arabako lurraldean. Ullibarri-Gamboako urtegiaren historia, ibilbide etnografikoa, mitologia... GORBEIAK badu zer eskaini! Bisita gidatuez gain, aukerako bisitak ere badira, interesatuen behar eta gogoei egokituak. Guztiak euskaraz edo gaztelaniaz eskaintzen dira. Etorri GORBEIAZ gozatzera!



1- URTEGIA: DUELA 50 URTE...

Ullibarri-Gamboako – Presa – Langara-Gamboako

Bisitakdia URIBARRI GANBOA hasten da. Bertan, herriko leku garrantzitsuenak ikusi eta azalduko dira. Ondoren, URTEGIAREN presara hurbilduko gara eta urtegiaren eraikitzearen historia azalduko da; honekin batera, bitxikeriarik eta gertaerarik interesgarrienak kontatuko dira. Amaitzeko, LANGARA GANBOA herria ezagutuko da.

2- GAZTELUAK ETA JAUREGIAK

Gopegi – Manurga – Letona

Bisita honetan honako leku magiko hauek deskubrituko ditugu: GOPEGIn antzinako elizaren ondoan Goikoleako dorre-jauregi hurbilduko gara. Ondoren, MANURGAraino joango gara, non desagertutako hainbat dorretxeren berri izango dugun –Elexalde, Iturrizar– eta Hurtado de Mendozatarren dorretxea eta eskualdean ezagunenetakoa den Berastegitarren jauregia ikusi ahal izango ditugu. Azkenik, LETONARA barneratuko gara, han Lopez de Letona (Artxaga) jauregi-etxeak harriturik utziko gaitu eta antzinako Nafarroako Erreina defendatzen zuen gaztelu bateraino paseoa egingo dugu: Zaitzegiko gazteluraino.

3- ZUIAKO ETA URKABUSTAIZEKO ERROMANIKOA

Oroko Santutegia – Beluntza – Goiuri – Baias Garagardotegia

Bisitakdia honetan lehenengo geltokia OROKO SANTUTEGIAN izango da. Bisitariak magia lekuan bertan dagoela frogatu ahal izango du. Ondoren, eliza erromaniko ederra duen BELUNTZA herrian ezagutuko dugu, eta Erdi Aroan zeharreko ibilbidea amaitzeko GOIURLira gerturatuko gara. Bertan hiru txoko interesgarri harrituko gaituzte: Santiagoren omenezko eliza erromanikoak, errota eta ur-jauziak. BAIAS GARAGARDOTEGIraino ere gerturatuko gara.

4- IBILBIDE ETNOGRAFIKOA

Sarria – Ezti Museoa (Murgia)

Ibilbide honek Zuiako biztanleak eta baserrietako bizitza nolakoak ziren ezagutzen lagunduko digu. Horretarako, SARRIARA gerturatuko gara. Han, errota zahar bat eta bere funtzionalamendua ezagutuko ditugu. Karobi zahar bat ere ezagutuko dugu. Bukatzeko, MURGIako eztiaren museoa ezagutuko dugu.

5- MITOLOGIA ZUIAN

Murgia

Ibilbide honetan, MURGIAN kokatu eta gordeleku ezberdinak ezagutuko ditugu. Bere kale eta txokoan artean ibiliko gara, eta ilusioaren tallerrean inguru hauek betidanik edertu dituzten fabula eta kondairak sortuko ditugu.

6- GUNE HISTORIKOAK

Legutio – Ibarra (Aramaio)

Lehenengo eta behin, LEGUTIOko hirigune historikora hurbilduko gara. Ondoren, arabar Suitza izenez ezagutzen den hirigune historikoa ezagutzera joango gara –Alfontso XIIIak inguru hauetan egin zuen bidaiaren batean horrela esan zuen–: ARAMAIOra, hain zuzen ere. Mari Anbotoko dama edo Barajuengo jauna protagonistatzat dituzten kondaira ezberdinen bizilekua.

7- ZIGOITIKO ERROMANIKOA

San Pedro de Gorostiza – Olano – Zestafe

Zigoitiko udalerrian aurkituko dugun erromaniko hau biztanle gutxiko herrietan garatutako landa eremuko adierazpena da. OLANOko herrian, esaterako, bertako eliza erromanikoa eta barruan gordetzen duen erretaula ospetsua ezagutuko ditugu. Gainera, birgaitutako errota ezagutzeko parada ere izango dugu. Ondoren, ZESTAFERA abiatuko gara. Ibilbidea bukatzeko, GOROSTIZAKO SAN PEDRO eliza prerromanikora gerturatuko gara.

8- MUGAN

Otxandio – Oleta (Aramaio) – Atxeta Gaztandegia

Ibilbide honetan, mugan bizi izan den herri bat ezagutuko dugu. Lehenengo eta behin, OTXANDIO. Otxandion bi geldialdi egingo dira: udaletxe parean Erdi Aroak bere arkitekturan izan zuen eragina ezagutzeko. Ondoren, Andikona plazara gerturatuko gara, non Otxandioaren XX. mendeko bonbardaketa ezagutuko dugun. Otxandiotik Aramaioko OLETA auzora bidaiatu egingo da, Anbotoren magalean kokatzen den Arabako inguru ederrenetako batera. Amaitzeko, Oletako Atxeta gaztandegira hurreratuko gara.



Bisita gidatuen erreserba egiteko:

945 24 38 28 edo 645 84 40 97

www.gorbeiaeuska.com

- Gutxienez, lau lagun behar dira.

- 2 eta 5 euro bitarteko prezioa daukate.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Gorbeialdeko
Kuadrilla
Cuadrilla de
Gorbeialdea

EUSKARAREN
EGUNA 2017

2015eko Herri Lasterketa. IMANOL SORIANO

Euskararen aldeko Herri Lasterketa domekan

Lau kategoria desberdinetan banatuko da lasterketa eta sailkapenik ez da egongo, "garrantzitsuen parte hartzea" izango delako; izena ematearekin batera, 'Aramaixon euskeraz bizi gure dot' leloa daramaten kamisetak eskuratu ahal izango dira

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Euskararen Eguna da domekan –abenduak 3–, eta Aramaion ere ospatuko dute.

Aurreko bi urteetan egindako moduan, euskararen aldeko Herri Lasterketa izango da, eguerdiko hamabietan hasita.

Lau kategoria ezberdin egongo dira: 6 urtetik beherakoek 270 metroko lasterketa egingo dute; 6 eta 12 urte bitartekoek, 725 metrokoa; 12 eta 16 urte bitartekoek, bi kilometrokoa; eta 16 urtetik gorakoek lau kilometroko lasterketa egin beharko dute. "Lau kategoria daude, eta hiru ibilbide desberdin. 16 urtetik gorakoek hirugarren ibilbidea bi aldiz egin beharko dute. Lehenengo bi ibilbideak Ibarran bertan dira eta hirugarren ibilbidea apur bat alderantz egiten da, Eguzkierripa alderantz igotzen da, eta buelta plazara. Izan ere, ibilbide guztiak hasi eta bukatzen dira plazan", azaldu du Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak.

Aurten ere *Aramaixon euskeraz bizi gure dot* leloa daramaten kamisetak atera ditu Udalak, eta parte-hartzaileak kamiseta horiek jantzita korrika egitera gonbidatu ditu. "Izena ematearekin batera egongo da kamiseta hauek eskuratzeko aukera, bost eurotan. Kirola egiteko kamisetak dira. Neurri ezberdinak egongo dira, umeendako eta nagusiendako, eta helburua da kamiseta jantzita parte hartzea", adierazi du Mondragonek.

Txikien lasterketa izango da lehenengo, eta ondoren, beste hiru kategoriak. Esan bezala, 12:00etan abiatuko da lasterketa eta izen-ematea ordubete lehenago hasiko da, 11:00etan, plazan bertan. Ibilbidean zehar bolun-

tarioak beharko dira: zirkulazioa geratzeko eta jarraitu beharreko bidea seinaleztatzeko. Beraz, laguntza oro ongietorria izango dela jakinarazi du Udalak. Lasterketa guztiak amaitutakoan, berriz, luntxa egongo da udaltxeko arkupeetan.

Sailkapenik ez

Euskararen aldeko lasterketa izanik, denbora ez da kontuan hartuko, eta, ondorioz, ez da sailkapenik egongo. "Hasi eta bukatu, euskararen alde. Euskararekin egiten dugun moduan, parte hartzea da garrantzitsua, bakoitzak daukan mailarekin eta ahal duen neurrian", azpimarratu du Euskara teknikariak.

Hirugarrenez

Aurten hirugarren aldiz antolatu dute ekimen hori, eta Mondragonek dio oso erantzun ona duela herrian. "Pozik gaude orain arte izandako erantzunarekin, eta aurtengoak ere erantzun ona izatea espero dugu", dio.

Txomin Goikoleak Oletako auzo-alkate izaten jarraituko du

Pasa den domekan Oletako batzar administratiboko hauteskundeak egin zituzten eta orain arte auzo-alkate izan den Txomin Goikoleak eskuratu zituen boto gehien. Beraz, kargu horretan jarraituko du beste lau urtez. Idazkari lanak Oskar Bustok egingo ditu legealdi honetan eta bokala, berriz, Ion Iñaki Itzazelaia izango da.

Udalak bi langile kontratatu gura ditu, hiru hilabetetarako

Lanaldi erdian jardungo dute eta zeregin hauek izango dituzte: espazio publikoen eta espazio berdeen mantenu eta egokitzapena egiteko lanak, eraikuntza, lorezaintza eta antzeko lanak. Hainbat baldintza bete behar dituzte aukeratuak izateko: Udalen webgunean ikusgai. Lanbiden eman beharko da izena, abenduaren 11 baino lehen.

Orixol Mendi Elkartea hasi da 2018ko lizentziak tramitatzen

Ohar bat bidali dute, zera diona: "Aldaketaren bat egin nahi izanez gero, abisatu abenduaren 12a baino lehen. Abisurik ezean, berdin mantenduko da zuen egoera. Zuen kontu korrontetik pasatuko zaizue bazkide kuota eta federatuta zaudetenoi, honen kuota. Aldaketaren bat egin nahi izanez gero, 627 37 95 58 telefonora deitu (Iker)".

Sukaldaritza tailerrak Isabel Moreno sukaldariaren eskutik

Alaiak elkarteak antolatuta, sukaldaritza osasungarria lantzeko tailerrak egongo dira abenduaren 9an eta 12an eta urtarriaren 9an. Plaza mugatuak dira (15). Beraz, aurrez eman behar da izena, abenduaren 5a baino lehen, ordainketa elkarteak kontu korrontean eginda. Bazkideek 25 euro ordainduko dute eta bazkide ez direnek, 30 euro.

NIRE USTEZ



SABIN ARANBURU

Askatasuna, berdintasuna

Badirudi izenburuko kontzeptuak ideia ahistorikoak direla, betidanik eta betirako bizitzeko naturalki sortu diren ideiak. Egungo gizarte burgesa kontzeptu hauen errealizazio totala dela dirudi. Askeak gara, baita berdinak ere –hobetzeko asko daukagun arren–. Langileen eta jabeen klaseen arteko borrokan, dominatzaileen ideologia atera da garaile.

Nola sortu eta hedatu dira ideia hauek?

Denok gara libre, juridikoki, merkantziak saldu eta erosteko. Langile klasearen kasuan, libre gara gure lan-indarra saltzeko –ez dugulako baliabide produktiborik eskura–, burgesiaren aurrean parez pare jarri gaitezke –berdin–. Hemendik eratortzen dira askatasunaren eta berdintasunaren ideiak.

Baina salerosketa prozesua itxurakeria hutsa da. Badaude aurretik determinaturiko erlazio sozial konkretu batzuk. Merkatuan aske eta berdin izateko, produkzioan –lanpostuan– ezberdin gara. Jabearen esplotazioa jasaten dugu.

Hau da txanponaren bi aldeak: merkatuan aske eta berdin izateko, produkzioan preso eta ezberdin izan behar dugu.

GAH ikastarorako izen-ematea zabalik, abenduaren 13a arte

GAH (Gluteoak, Abdominalak eta Hankak) ikastaroa eskainiko du Udalak urtariletik aurrera, giharren indarra eta erresistentzia lantzeko, batez ere. Bi aukera egongo dira: astelehenetan bakarrik, 18:30ean (40 euro); eta astelehenetan eta martitzenetan, 18:30ean (80 euro). Izena udaletxean eman beharko da, abenduaren 13a baino lehen.

Deskontu Sarea, abian!

bl



Orain,
BERRIAlagunek
deskontuak tokiko
saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:
berria.eus/berrialaguna/deskontusarea

Deskontu kupoi bat baliatu nahi duzu?

1. Sortu kontua
BERRIAlagunaren
webgunean
2. Inprimatu kupoa
Deskontu Sarea ataletik
edo deskargatu
telefonoan
3. Aurkeztu dendan
BERRIAlagun
txartelarekin batera

Zure ekarpena deskontuen
bidez berreskuratuko duzu:

- > Dendak
- > Jatetxeak
- > Museoak
- > Landetxeak
- > Ikuskizunak
- > Aisialdi guneak



Babestu BERRIA eta gozatu abantailez!

berria
mundua-euskarari-emana

Euskararen bueltan lanean

Euskaingintzako kideak, Udala eta herritarrek batuko ditu domekan Euskararen Nazioarteko Egunak. Ospatzeko eguna izango da, eta lanerako indarrak eskuratzeko unea ere bai; izan ere, orduan emango dute 11 egun euskaraz dinamikaren berri

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko euskaingintzak, Udalak eta hainbat elkarte euskararen bueltan bat egingo dute etzi. Eta herritarrek ere horretara gonbidatu gura dituzte: "Euskararen erabilera indartzeko bidean egindakoa ospatu eta egiteko aukaguna aurkeztu nahi dugu", adierazi dute Loramendi elkarte kideek, eta deialdi zabala egin diete aretxabaletarrei: "Ondo pasatzeko tarte ere izango da; hortaz, domekan 12:30ean denok Herriko Plazara!".

'Flashmob'-a, salda eta musika

Euskara ardatz hartuta hainbat dinamika landu dituzte azken asteotan *-Hitz egin* eta *E! Guraso-*, eta horiei bukaera emango diete. Astean bertan beste ekitaldi batzuk ere izan dira; bertso liburuaren eta *Jira bueltan* bildumaren banaketak, esaterako. Ekimen horiek guztiak borobilduko dituzte etzi, 12:30ean, Herriko Plazan.

E! Guraso dinamikaren amaiera ekitaldiarekin hasiko dute ospakizuna; azken asteotan bi-

zitakoaren berri ematea da asmoa. Eta ondoren, *11 egun euskaraz* dinamika aurkeztuko dute, hain zuzen, 2018an Euskal Herrian garatuko den egitasmoa. *Ahoa bizi, belarriak prest! flashmob-a* dantzatzeko dute gero *E! Guraso* egitasmokoek eta herritarrek ere gonbidatuko dituzte, jai giroa sortze aldera. Basotxo erretiratuen elkarte kideek salda beroa eskainiko dute, eta ospakizuna bukatzeko, Leizarra musika eskolako kideen emalditxoak izango da.



Gurasoak elkartuta ekimenak eman duenaren gainean berbetan. M.A.

Gurasoen artean euskara helburu

Herriko hainbat gurasok abian jarritako *E! Guraso* ekimena domekan iritsiko da bukaerara. Ia 160 lagunek hartu zuten konpromisoa, astebetean, euskaraz bakarrik jarduteko, eta horretan ahalegindu dira guztiak. "Inkesta bidez balorazioak jaso ditugu eta gehienek adierazi digute aste hori oso ona eta oso polita izan dela", jakinarazi du Aitor Lizarazuk, ekimenaren sustatzaileak, eta gaineratu: "Euskaraz egin eta erdaraz erantzun dutenekin arraro sentitu direla esan dute %70ek".

Azaroko azken astean guztiek elkarrekin jardun dute euskaraz, *e!* txapa paparrean hartuta. Eta ondoren, neurketatxo bat egiteko asmoa ere badute. Astea bukatuko dute Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginda: "Ekitaldi xumea izango da; bi kidek asteko bizipenak kontatzeko dituzte eta gero, dantzan egingo dugu guztiok".

Kanturako eta jolaserako, 'Jira bueltan'

Aurreko belaunaldiei jasotako kantuak eta jolasak berreskuratu eta biziberritzeko helburuarekin, *Jira bueltan* bilduma egin dute Aretxabaleako, Eskoriatzako, Eibarko eta Elgoibarko udalek elkarlanean. Liburuxka-DVD hori astelehenean banatu zieten Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako neska-mutiko guztiei ikastetxeetan.

12 urte artekoendako

Bilduma horretan jaso dituzte hamalau jolas, 30 kanta-jolas eta zazpi abesti. 12 urte bitarteko neska-mutikoendako gertatu dute, batez ere, 4 eta 10 urte artekoendako. Umeekin jolastu gura duten guraso, irakasle eta hezitzaileendako ere oso aproposa dela iragarri dute horren sustatzaileek. Badihardugu euskara elkartearen *Ahotsak.eus* proiektuaren barruan garatu dute bilduma berria. Durangoko Azokan aurkeztuko dute eta han bertan izango da salgai.



Kurtzebarri eskolako ikasleak, liburua airean dutela. MIRARI ALTUBE



Arizmendi Ikastolako Almen guneko ikasleak, liburuarekin. M.A.



Liburua jaso duten gurasoak eta umeak elkarrekin. LEKAIXOKA

2016an jaiotakoei bertso liburua

Leikaxoka bertso eskolak hirugarrenez gertatu die bertso liburua jaioberriei. 2016an jaiotako 32 ume eta horien senideak elkartu ziren eguaztenean Arkupen, eta ekitaldi goxoan jaso zuten liburua. Aitor Ziardegi eta Oier Sarasua musikariek kopla musikatuak eskaini zizkieten, eta ondoren, jakiz betetako mahaiaren bueltan kontu-kontari egoteko aukera izan zuten.

Iñaki San Migelen marrazkiak

Umearen argazkia eta haren ezaugarrien bat eskatu zieten senideei, eta horrekin, bertsoa moldatu dute Leikaxokako bertsolariek, helduek zein gazteek. Ilustratzeko marrazkiak, oster, Iñaki San Migel aretxabaletarrek egin ditu. Eta oraingoan ere Udalen babesa izan du liburuak.

Opariz bete-betetako Gabonak iragarri dituzte

Moda desfilea, neguko azoka, gaztaina-saltzailea, herrian erosteko bonuak, Karmele Igartua sorkuntza bekarekin sortutako antzezlanak, liburu aurkezpena, Gabonetako kontzertua eta gehiago izango dira abenduan, Kultura Sailari eta Aretxarteri esker

Mirari Altube ARETXABALETA

Udaleko Kultura Sailak, Aretxarte merkatarien elkarteak, Kurtzebarri eskolak eta AZ Gaubelak bat egin dute, Gabonei begira, abendurako antolatu dituzten ekitaldi guztien berri emateko. Azoka, hitzaldiak, bertso emanaldia, kontzertuak, antzerkiak eta gehiago iragarri dituzte.

Herrian erosteko deia

Abenduan sartzearekin batera Aretxarte merkatarien elkarteak kideek zigiluen kanpainari ekin diote. Udalarekin batera sortutako bonuak ere gaur jarri dituzte salgai, Arkupen; 20 euro ordainduta 30 euroko txartela jasoko dute herritarrek. Gaztaina saltzailea aurten ere gonbidatu dute eta hiru egubakoitzetan etorriko da: 15ean, 22an eta 29an. "Aretxarteko kideok txartelak banatuko ditugu bezeroen artean, gaztainak debalde jateko", jakinarazi du Idoia Elexpuru. Egutegiak ere banatuko dituztela iragarri du, abenduaren 18tik aurrera. Eta azaroaren 16an eta 17an neguko azoka egingo dute, hirugarrenez, Herriko Plazan. "Horri hasiera emateko desfilea izango da hilaren 15ean, 18:30ean, karpa azpian". Eta erakusleho lehia-keta ere egingo dute, beste urte batez. Herritarrek herrian bertan erostera anima daitezen, *Atxabaltan be kriston aukeratzarrak daz!* leloarekin bideoklip dotorea egin dute AZ Gaubelakeko kideek Kepa Errasti aktorearekin batera eta Aitor Ziardegi musikariaren laguntzarekin.

Hitzaldiak eta emanaldiak

Kultura ekitaldien ez dute hutsik egingo Arkupen. Hilaren 9an, esaterako, Jianan Tian akordeoilari txinatarrek kontzertua eskainiko du; eta abenduaren 12an, Oier Araolaza antropologoa neguko festen gaineko



Zangitu, Uribarren, Iturbe, Miguel eta Elexpuru ekitaldien berri ematen. MIRARI ALTUBE

hitzaldia egingo du: *Halloween, Olentzero, Karnabak... noruntz doaz gure neguko festak?* Lora-mendirekin elkarlanean antolatu dute. "Hilaren 14an, aretxabaletar jatorria duen Elena de Pereak bere bizipenetan oinarritutako *Micaleidoscopio* liburuak aurkeztuko du", esan du Joxe Migel Uribarren zinegotziak. Horiez gain, dantza emanaldiek, bertso saioak, Aretxabaleta Abesbatzaren Gabonetako kontzertuak eta antzerkiak ere izango dute tokia abenduan. Gainera, hilaren 4tik 30era bitartean Idoia Elex-

pururen eta Enrique Iglesiasen margolanak izango dira ikusgai.

Karmele Igartua sorkuntza beka Antzerkiaren atalean lan berezia izango da Arkupeko oholtzan: "Karmele Igartua sorkuntza bekaren iazko irabazle Alaitz Olaizolak idatzitako *Sugegorriak* lana egingo dute ikasleek hilaren 18an, 19an eta 20an", jakinarazi du Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako zuzendari den Maria Eugenia Iturbek. Eta hilaren 30ean, aurtengo sorkuntza bekaren sari banaketa izango da.

90 urteko bazkideak omenduko dituzte Basotxon hilaren 13an

Lanean hasiko dute abendua Basotxo erretiratuaren elkarteak kideek. Besteak beste, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak egingo duen janari bilketa handian lagunduko dute gaur eta bihar, eta Euskararen Nazioarteko Egunean salda gertatuko diete herritarrei.

Lana bakarrik ez, ospakizunak ere izango dituzte. Abenduaren

13an, Santa Luzia eguna, 90 urteko bazkideak omenduko ditu, urtero lez (17:00). Ekitaldia hasiko dute herriko dantzariak eta txistulariak ongiatorria eginda, eta ondoren, Basotxoko kantu taldeak hainbat kantu abestuko ditu haien omenez. Oparia jasoko dute gero, eta, bukatzeko, txokolate beroa eskainiko diete elkartutako guztiei. Abenduaren 21ean, ostera, Santo Tomas eguna ospatuko dute, txistorra janda (17:00). Gabonetako 40 saski zozketatuko dituzte orduan.

Jai giroan agur udazkenari

Kurtzebarri eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek udazkena agurtu eta neguari ongiatorria egin zioten, eguaztenean, Iturigorri pilotalekuan. Txalaparta doinuek, lekaioek, kantuek eta dantzek jai giroan murgildu zituzten elkartutakoak; eta taloek, hango eta hemengo gutiziek, gaztinek eta buzkantzek gorputzei berotzen lagundu zieten.



MIRARI ALTUBE

OHARRAK

Jostailu erakusketa aste bukaeran

Abenduaren 1ean, 4an eta 5ean ikusgai izango dira 3 urtetik gorako umeendako jostailuak, komentuan (17:00-19:00). Probatzeko aukera ere izango da.

Odoloste dastatzea

Odolosteak eskainiko dizkie herritarrei UDAk, gaur, egubakoitza, Pagaldaixenean (18:30).

Akordeoi kontzertua

Jianan Tian akordeoilari txinatarrek, Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren iazko txapeldunak, kontzertua eskainiko du abenduaren 9an, 19:30ean, Arkupen.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 www.zenbaki.eus

1966-2016

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Amuskak agur esan dio 32 urteko ibilbideari

Eskoriatzako Amuska emakumeen elkarteak jarduna bertan behera uztea erabaki du, 32 urteren ostean, hainbat faktorek eraginda. Amaiera emateko, Gure Ametsa jatetxean bazkaria egin zuten domekan, jai-giroan bukatzeko asmoz

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Amuska emakumeen elkarteak agur esan dio bere ibilbideari, 32 urteren ostean. Eskoriatzako emakumeendako aisialdia sustatzeko helburuarekin sortutako elkarteak hainbat tailer, ikastaro, irteera... egin ditu urteetan zehar. Eskoriatzako danborradarako karroza prestatzen, Urdelardero eguneko txokolate-janak egiten... urte askoan aritu da, baina, hainbat faktorerengatik, elkarteak ez du aurrera jarraituko. Hala, amaiera emateko, elkarte 27 emakumek Gure Ametsa jatetxean bazkaria egin zuten pasa den domekan.

Elkartearen desagertzea

Amuska elkarte 32 kide Gurutze Idigorasek haxe adierazi du elkartearen desagertzearen gainean: "Faktore ezberdinengatik gertatu da. Urteetan ez dugu aldaketa handirik egin: tailerrak, ikastaroak eta egun-pasak bai, baina berrikuntza barik. Elkarte 65 emakume garen arren, kideek ez zuten erantzukizunik izan nahi, eta bete beharreko eskaera lanak ere baziren; Udalarekin edo Diputazioarekin izan ditzakegunak asko dira, eta horiek egiten ere jendea nekatu egin da. Bestalde, azkenaldian, berberak aritu izan gara batzarkide, ia guztiok erretiratuak gara, eta Olazar erretiratuak elkartera joaten dira batzuk; jende berria ere ez da sartzen elkartera. Beraz, penaz, baina ibilbideari agur esateko ordua dela erabaki dugu".

Amaiera, jai giroan

Domekan, elkarte 27 emakumek mini-busa hartu eta Gure Ametsa jatetxean bazkaria egin zuten; ondoren, dantzaldia izan zuten DJ Moto -Andoni Moto- eskoriatzarraren eskutik. "Ederki bazkaldu genuen, eta oso ondo pasatu genuen dantzaldian.



Zapatuan egindako bazkarian Amuskakoek ateratako talde argazkia. GURUTZE IDIGORAS

HAINBAT FAKTORERENGATIK DESAGERTU DA AMUSKA EMAKUME ELKARTEA

Motok, batez ere, 80ko hamarkadako kantuak jarri zizkigun, baita abesti modernoagoak ere, eta oso ondo egon zen. Horrela amaitu gura izan genuen Amuska emakumeen elkartearen jarduna, jai-giroan".



Amuskakoak 1993ko danborradan

Eskoriatzako San Pedro jaietan, nagusien danborrada izaten da bezperan, eta argazkian, 1993an egin zena ageri da. Amuska Emakume Elkarte 32 kideak garbitzaileen batailoiarekin irten ziren herriko kaleetan zehar.

Garraio publikoaren aldaketa salatu dute Irabazik eta Bilduk

Udal Gobernuak ezetza eman dio mozioari, horren atzean intentzio politikoa dagoela argudiatuta

I.B ESKORIATZA

Azaroko ohiko osoko bilkura egin zuen martitzenean, hilaren 28an, Eskoriatzako udalbatzak, eta, hainbat gai landu bazituzten ere, aipagarriena Irabazik eta Bilduk aurkeztutako garraioaren gaineko mozioa izan zen: *Herritarren defentsan: Kalitatezko garraio publikoa* izeneko mozioa, hain zuzen ere.

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza lotzen dituen linean -orain DG10- murrizketak izan direla salatu zuten, eta hainbat akordio hartzea planteatu zuten, zerbitzua hobetzeko. Udal Gobernuak, berriz, erantzun zien "intentzio politikoa" dagoela eta ez ziotela mozioari baiezkorik emango. Honela adierazi zuen Josu Ezkurdiak, EAJko zinegotziak: "Irabazik eta Bildu beti ari dira esaten murrizketak daudela. Ez bakarrik Udal mailan, ez bakarrik Diputazio mailan, Eusko Jaurlaritza mailan ere bai. Zuek esango duzue murrizketak daudela, zerbitzu publikoen kalterako... baina guk garbi daukagu intentzio politikoa dagoela, eta, beraz, horren kontra bozkatuko dugu".

Rafa Bernal Irabaziko bozeramaileak, berriz, adierazi zuen politikari beharrean herritar moduan hitz egingo zuela: "Zuek gaia politizatzen dugula esaten duzue, baina, erabiltzaile moduan, aldaketa honek niri eta herritarrei kalte handia egin digula uste dut". Aitor Zubizarreta EH Bilduko bozeramaileak, aldiz, haxe esan zuen: "Transbordo egitera derrigortuta daude hainbat herritar, lehen ez genuena. Lehen, hobetzeko gauzak zeuden, baina hitz egin dezagun. Zenbat aldiz leporatu diguzue inposizioa? Hau zer izan da? Nori galdetu diogu?".

Nork bere azalpenak eman ondoren, EAJk ezetza eman zion mozioari. Joserra Zubizarretak herritarren bost kexa izan direla adierazi zuen, eta Diputazioari bidaliak izan direla gehitu zuen.

Udal taldea, euskararekin bat

Bestalde, Euskararen Egunaren adierazpena irakurri, eta aho batez onartu zuten. Horrekin batera, *Aho eta belarri, guk euskara elkarri* txapekin joan ziren politikari guztiak osoko bilkura, ekimenarekin bat egiteko.



FILO MARTINEZ

Eskoriatzarrak Espainiakoan

Lorea Armendariz eta Nahia Arguiz Alacanten jokaturako gimnasia erritmikoko Espainiako txapelketan izan dira, eta emaitza bikainak lortu dituzte. Armendarizentzat, Espainiako lehenengo txapelketa izan da, eta hamabigarren postuan geratu da. Arguiz, berriz, hiru pilotako eta bi sokako ariketan lehiatu zen, bere bost kideekin batera, eta zortzigarren izan ziren.

Euskaraz betetako ekintzak astebururako

Euskararen Egunaren baitan, gaurtik domekara bitartean, hiru eguneko egitarau zabala prestatu dute Eskoriatzan. Bestalde, eguraldi iragarpen txarra dela-eta, zapatuko ekintzak, plazan beharrean, Joseba Iñurrategi pilotalekuan egingo dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herriko hainbat eragileren eta Udalaren artean prestatu dituzte aurten Euskararen Eguna ospatzeko ekintzak. Gainera, gaur hasi eta domekara bitartean egitarau zabala prestatu dute.

Gaur, haurrentzako ekintzek izango dute protagonismoa, eta eguneko hitzordu nagusia *Euskarazko hitzik politenak* izango da, 18:30ean, Fernando Eskoriatza plazan. Gaztelekuko nerabeek jarritako pankartan nahi duten euskarazko hitza idazteko aukera izango dute.

Zapatuko ekintzak pilotalekuan

Zapatuan, aldiz, eguraldiaren iragarpena txarra dela ikusita, plazan jartzekoa zen karpa muntatu ez eta eguneko ekintza guztiak Joseba Iñurrategi pilotalekuan egitea erabaki du Udalak. Gainera, berokuntza sistema ere jarriko dute bertan. *Zuk ekarri, zuk jan* kantu bazkaria egingo dute aurten, eta, horrekin



Jira bueltan banatzen. MIRARI ALTUBE

batera, hainbat gazte igoko dira bazkalostean oholtzara, egunerako prestatu dituzten 45 kantu inguru jo eta abestera. Beñat Arrieta gitarrarekin, Gari Barandiaran perkusioarekin, Ixak Sarasua baxuarekin eta Ane

Arrieta teklatuarekin izango dira bertan.

Domekan, berriz, *Eskoriatzako ezkutuko altxorak* bisita gidatua egingo dute, 12:00etan, museotik irtenda. 18:00etan, Mihiluze txapelketa egingo dute gaztelekuan. Eta 19:00etan, *Nomofobikoak* antzerkia izango da Zaldibar antzokian.

'Jira bueltan' bilduma

Euskararen Egunaz gain, aurreko belaunaldiei jasotako kantuak eta jolasak berreskuratu eta biziberritzeko helburuarekin *Jira bueltan* bilduma egin dute Aretxabaletako, Eskoriatzako, Eibarko eta Elgoibarko udalek elkarlanean. Bilduma hori astelehenean banatu zieten neska-mutikoei ikastetxeetan, eta hamalau jolas, 30 kanta-jolas eta zazpi abesti batzen ditu. 12 urte arteko neska-mutikoendako gertatu dute *Ahotsak.eus* proiektuaren barruan garatu duten bilduma.

Areto futbol jardunaldiak, izen handiko entrenatzaileen eskutik

Marc Carmona eta Jesus Candelas entrenatzaileek formakuntza saioa eskainiko dute Huhezín

I.B ESKORIATZA

Areto futbol jardunaldiak izango dira bihar, Huhezín, 09:45ean, mundu mailan ezagunak diren entrenatzaile ezagunekin. Marc Carmona –Bartzelonako entrenatzaile izandakoa– eta Eskoriatzan beste hainbatetan izan den Jesus Candelas –Irango hautatzailea– izango dira bertan. Formakuntza saioan, metodologiak eta kirol elkarte baten egituraz hitz egingo dute. Horren aurretik, 09:00etan, areto futbol talde guztien argazkiak aterako dituzte.

"Etorkizunera begira, orain jokalaria garenok entrenatzaile lanetan aritu behar badugu, komeni zaigu halakoak jakitea ere...", adierazi du Marta Garciak, Eskoriatzako areto futboleko seniorrak.

Seniorrek liderra hartuko dute

Eskoriatzako areto futbol saileko emakumezko seniorrak bigarren postuan daude, liderraren puntu kopuru berarekin, eta zapatuan 16:00etan jokatu dute partidua Manuel Muñoz kiroldegian.

Gabonetako argiak martitzenean piztuko dituzte

Abenduaren 5ean, martitzenean, piztuko dituzte dagoeneko herriko hainbat txokotan jarrita dauden Gabonetako argiak. 18:30ean izango da hori, baina, aurretik, Fernando Eskoriatza plazan hainbat ekintza egingo dituzte.

Ekitaldia hasteko, 16:45ean, haurrentzako tailerrak izango dira plazan. 17:45ean, Beheko Errota musika eskolakoen emanaldia izango da, eta ostean, txokolate-jana izango da. Horretarako, nork bere edalontzia eraman beharko du.

Hala, ekintza horiek guztiak amaitu ostean, Gabonetako argiak piztuko dituzte, herria argi kolorez betetzeko.

LEINTZ GATZAGA | 19



NIRE USTEZ

AINARA ZUBILLAGA HERRITARRA

Basurdeen triskantzak

Azken urteetan bezala, aurten ere izugarritzko kalteak egiten ari dira basurdeak Leintz Gatzagan. Baimen bereziak behar dira bertan ehizatzeke: alde batetik, ehiza-barrutia delako; eta bestetik, gordeleku eta erreserba daudelako.

Arazoa handitzen joan da, kexa udaletxera sartu eta ez delako inongo mugimendurik nabaritzen. Dirudienez, Udalak eta Diputazioak erabakiak hartzeko arazoak dituzte edo ez zaie axola basurdeek egiten dituzten kalteak izaten duen eragina baserritarrengan.

Nire ustez, azken urteetan ehiza denboraldi bukaeran ematen dira baimen gutxi batzuk, eta kalteak denboraldi hasieratik izaten ditugu.

Nahiz ehiza-barruti, gordeleku edo erreserba izan, kalteak daudenean berehala lortu beharko lirake baimenak, uxaldiak egiten dituztenek arazorik ez dezaten izan.

Kaltetuok noiz arte jasan behar dugu Udalaren eta Aldundiaren eraginkortasun falta?

Herriko kaleetara heltzen direnean hartu behar dituzte erabakiak?



Artabilla baserri azpiko zelaian basurdeek utzitako arrastoa. AINARA ZUBILLAGA

'Historias a bocados' saioan Leintz Gatzaga agertu da

Herriko txoko ezberdinak eta hainbat herritar ezagutzen aritu zen Ander Gonzalez ETB2ko aurkezlea

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Domekan emititu zen *Historias a bocados* ETB2ko saioa Leintz Gatzagaren gainekoa izan zen. Ander Gonzalez sukaldari eta aurkezleak herriko hainbat txoko bisitatu, eta herritarrekin elkarriketak izan zituen, herrian zer egiten den ezagutzeko asmoz.

Besteak beste, Eugenio Otsoarekin gatzaren produkzioaz eta herriaren historiak hitz egin zuen; Juanito Bengoarekin sagarrak batzen aritu zen; Jakio-neko Susana Aiastuirekin eta

Amaia Olaberekin, inguruko baserritarrekin elkarlanean egindako barazki-kontserben eta marmeladen inguruan aritu zen, eta sagar-marmelada egin zuten; Dorletako Santutegian, aldiz, txirrindulariek Dorletako Ama Birjinari egiten dizkioten lore eskaintzen gainean aritu zen Ibai Agirreurreta gatzagarrekin.

Saioa amaitzeko, berriz, Agirreurretak arroz-barratxo energetikoak prestatu zituen, txokolate beltzarekin, platanorekin eta mahaspasekin.

EUSKARAREN
EGUNA 2017

Iazko Euskararen Egunean gaztetoak ere protagonista eskolako patioan ospakizunean. GOIENA

Herriarrek batera euskararen alde lanean

Euskararen Eguna indartuta dator aurten ere Antzuolara; abenduaren 3an ez ezik, urte osora zabalduko dituzten bost mahai inguru antolatu dituzte; modu horretan, euskara esparru ezberdinetan lantzeko aukera izango dute antzuolarrek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Komunikazioan, enpresan, gizarlean, musikan eta antzerkian euskarak daukan eragina eta garrantzia aztertuko dituzte. Horretarako, baina, mahai inguruak egingo dituzte 3-4 hilean behin Antzuolan. "Zergatik euskaraz? Galderaren bueltan antolatu dugu mahai inguru sorta. Euskaraz lan egitea, euskarazko musikagintza, euskaraz bizi edo hitz egitea, euskaraz antzeztearen zergatia eta, azkenik, euskara kazetaritzan landu gurako genituzke. Urtaro bakoitzeko bat, hain zuzen ere. Saio guztiak Torresoroa aretoan egingo dira eta herriarrendako, noski, saio guztietarako ateak irekita egongo dira", argitu du Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk.

Enpresen esperientzia, lehen

Hala, lehen mahai ingurua abenduaren 12an, martitzena, egingo dute Torresoroan, 18:30ean hasita. "Lehen saioa euskararen arloan lanean diharduten en-

presa antzuolarrekin abiatuko dugu. Hala, Goizperko, Matz-Errekako eta Elayko esperientzia ekarriko dugu mahaiaren bueltara. Izan ere, aipatutako enpresek egindako euskara planen eraginaren gainean berba egingo dugu eta azalduko diegu herriarrei plan horrek nola eragin duen langileengan", argitu du Euskara zinegotziak.

Domekan, Euskararen Eguna

Iazko esperientzia oso arrakastatsua izan zela azaldu du eta adin ezberdinetako antzuolarrek bat egin zutela azpimarratu du. Aurten ere, herriarrek osatutako talde baten ideia garatu dute Euskararen Eguna ospatzeko: "Euskara batzordeko kide

**BOST MAHAI INGURU
EGINGO DITUZTE
EUSKARA ASKOTARIKO
ESPARRUETAN
LANTZEKO**

baten proposamenari helduz, herriar talde bat sortu dugu eta ideia hori garatzen lagundu digu taldeak. Lantaldeak Euskararen Egunaren baitan lan egingo du. Hala, domekan ekimenaren aurkezpena egingo dugu, 13:00etan, Zurrategin. Hamaiketako, bertso eskolako haurrak eta trikitilariak izango dira aurkezpenen".

Lanean jarraitu beharra

Orain artean egindako lanaren emaitza kalean ikustea ez dela horren erraza dio Ugarteburuk: "Epe motzegia da, baina urratsik garrantzitsuenetako bat da lantaldea sortu izanaren lorpena eta herriarrek bertako parte izatea. Izan ere, herriarren partaidetzarik ez baldin badago, Udalaren lana antzua izan daiteke. Etorkizunera begira esperantza ematen du-eta lantaldearen sorrerak. Antzuola arnagune da, baina erlaxatzeko arriskua dauka eta lanean jarraitu beharra dago".



ARANTZAZU EZKIBEL

Elkarbizitza sustatzeko proiektua

Elkarbizitza eta memoria jasoko duen proiektua aurkeztu zieten antzuolarrei zapatuan. "Elkarbizitzaren haustura ikertzeko elkarriketak egiten hasiko gara abenduan", azaldu zuten ekimenaren bultzatzaileek. Zerbait kontatzeko dutenek antzuolaondarea@gmail.com helbidera idatz dezakete. Txostena 2018ko abenduan aurkeztea da asmoa.



IMANOL SORIANO

Mahai-jolasak probatu dituzte

Mahai-jolasen erabilera sustatzeko asmoz, domekan ate irekien ekitaldia egin zuten, Jolasenea taldekoek gidatuta. Askotariko jolasak eta adin tarte zabalari zuzendutakoak probatzeko aukera izan zen. Jolas kooperatiboak eta konpetitiboak izan zituzten mahai gainean. "Partxis jolasetik harago badaude beste jolas batzuk", azaldu zuten.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJKA
HARATEGIA**



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

EUSKARALDIA

2-3 Zer da 'Euskaraldia'?

4 Elkarrizketa: Arrate Illaro,
'Euskaraldia'-ren koordinatzailea

5 Ekimenak herriz herri

6 Elkarrizketa: Pello Jauregi,
Hezkuntza Zientzietan doktorea

EUSKARAK
365
EGUN

emun

hitzartzen

HIZKUNTZA-PORTAERAK ALDATZEKO SAIOAK

hitzartzen.eus



Aurkezpenean: Topagunea, Jauriaritza, Nafarroako Gobernua, Tokikom, Kontseilua, Euskararen Erakunde Publikoa, Ikastolen Elkartea, Eudel, Ttakun Elkartea, Uema eta beste erakunde batzuk.

Euskaraldia ekimena sortu da, zenbait eragileren eskutik. Azaroaren 23an aurkeztu zuten, Bilboko Arriaga antzokian. Ekimena aurkezteko aukeratutako eguna ez zen zorizkoa izan. Izan ere, urtebete barru, azaroaren 23an bertan abiatuko da euskararen lurralde osoan batera egingo den aktibazio ekimen handia. Hala, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohituretan eragiteko helburuarekin *11 egun euskaraz* lelopean egingo da lehenengo *Euskaraldia*.

Euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren herritarrak izango dira ekimeneko protagonista, eta, hamaika egunetan zehar, beraien ohiko harreman sareetan euskaraz aritzeko gonbita egingo zaie, inertzia apurtu eta euskarazko hizkuntza praktikak bultzatzeko helburuarekin.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren: Bingen Zupiria, Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikako eta Kultura Sailburua; Elena Laka, Euskaltzaleen Topagunea-ko lehendakaria; Paul Bilbao, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusia; Naiara Mujika, Lasarteko Ttakun elkarteko kidea; Beñat Arrabit, Euskararen Erakunde Publikoko presidentea eta Euskal Elkargoko hizkuntza politikaren arduraduna; eta Arrate Illaro, *Euskaraldia*-ren koordinatzailea eta Euskaltzaleen Topagunea-ko kidea. Eurekin batera, orain arte egitasmoan laguntzeko go-go agertu duten hainbat era-

Erabilera, ohitura bilakatu nahian

'Euskaraz 365 egun' dinamikaren baitan, 'Euskaraldia' ekimena jaio da, euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duena; 2018ko azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3ra arte egingo da lehenengo edizioa, '11 egun euskaraz' lelopean

kunde sustatzaileraren babesa izan zuten aurkezpenean. Aurrerantzean ere, atea irekita egongo da entitate gehiago ekimenera batzeko.

Parte hartzeko ateak zabalik Herritar euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzea da ekimenaren helburua. Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkartek urteetan zehar landu duten *Euskaraz 365 egun* lan dinamikaren baitan kokatzen da ekimen hori, eta bi mugarri ditu: batetik, hiztunen hizkuntza ohituretan eragin eta berauen

2018AN HERRITARRAK AKTIBATU NAHI DIRA ETA 2019AN, BERRIZ, ENTITATEAK

harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea izango da lortu nahi dena; bestetik, hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatua denez, 2019an mota guztietako entitateek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea izango da helburua.

Aktibazioak martxan jartzea esan nahi du. Hizkuntzaren erabilerrari lotutako kontzeptua da, euskaraz hitz egiten dakitenek edota euskara ulertzeko gaitasuna daukatenek euskara erabili dezaten lortu nahi dutelako koordinatzaileak.

Hamaika egun horietan, 16 urtetik gorako herritarrak *ahobizi* eta *belarriprest* bihurtu nahi dituzte. Lehenaren ardura izango da euskaraz hitz egitea ulertzeko gai diren guztiei, haiek erdaraz erantzun arren. Biga-

rrenaren zeregina, aldiz, dakienari euskaraz hitz egiteko gonbita egitea izango da. Nolanahi ere, euskaraz hitz egiteko gai diren parte-hartzaileek eurek erabakiko dute bataren edo bestearen rola jokatu.

Ekimena Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta inguru soziolinguistiko zein tokian tokiko errealitatera moldatzeko modukoa izango da.

Antolaketan, beraz, hainbat auzo, herri eta eskualdetako euskaltzale taldeak arituko dira,

EKIMENEO PARTE-HARTZAILEEK ERABAKIKO DUTE 'AHOBIZI' EDO 'BELARRIPREST' IZAN

baita elkarte, enpresa zein erakunde ezberdinetakoak ere. Beren eragite eremua tokikoa zein Euskal Herri mailakoa izan daiteke. Era berean, Euskal Herrikan kanpoko euskal hiztunen komunitateetan ekimena gauzatu nahi izanez gero, parte hartzeko ateak zabalik daude.

Herri eta entitateek 2018ko lehen hiruhilekoan izango dute izena emateko aukera eta udaberrirako jakin ahal izango da zenbat herri eta gunetan parte hartu ahal izango duten hiztunek 2018ko *Euskaraldia*-n. Hala ere, une honetan 40 herritatik gora datorren urteko *Euskaraldia*-ren antolaketan murgilduta daudela aurreratu dute sustatzaileek –tartean, hiriburu nagusietan– eta datorren urtearen hasierarako eskualde gehiagotara heltea espero dutela azpimarratu dute.

Herritarrek, berriz, 2018ko udazkenean izango dute *Euskaraldia*-n izena emateko aukera. Izen-ematea 2018ko irailean zabalduko da eta *ahobizi* zein *belarriprest* modura parte hartu ahal izango dute nahi duten herritar guztiek. Ekimenak iraungo duen hamaika egunetan *ahobizi* edo *belarriprest* identifikazio ikurra erabiliko dute parte hartzaile guztiek.

Elkarlanaren garrantzia Elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuten aurkezpenean parte hartu zuten eragile guztiek. Azken hilabeteetan hizkuntzaren

'Ahobizi'

Euskaraz egingo die *belarriprest* haiek erdaraz erantzun behar gutxienez, euskaraz egin behar agertzen den moduko tx

'Belarriprest'

Belarriprest denak dakien euskaraz egingo dio, hark euskaraz erantzun behar du. Identifikaziorako, goiko ikurra eramango dute, *ahobizi* moduko

normalizazioaren bueltan diren erakundeek elkarlan beharra behin eta berriz zuten, eta *Euskaraldia* ekimen hori gauzatzeko aukera pentsatu bea dela. Euskal Herriko herritarrek gertatzen hasi den elkarlanaren dinamika hori herriz herriz gauzatzeko bada ekimen horren helburua. Ana Ollok, Nafarroako Foru Erkidegoaren nuko Herritarrekiko eta Euskararen Erakunde Publikoaren kideekiko Harremanetarako kontseilariak, tokian t



Aurkezpenean: Topagunea, Jauriaritza, Nafarroako Gobernua, Tokikom, Kontseilua, Euskararen Erakunde Publikoa, Ikastolen Elkartea, Eudel, Ttakun Elkartea, Uema eta beste erakunde batzuk.

Euskaraldia ekimena sortu da, zenbait eragileren eskutik. Azaroaren 23an aurkeztu zuten, Bilboko Arriaga antzokian. Ekimena aurkezteko aukeratutako eguna ez zen zorizkoa izan. Izan ere, urtebete barru, azaroaren 23an bertan abiatuko da euskararen lurralde osoan batera egingo den aktibazio ekimen handia. Hala, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohituretan eragiteko helburuarekin *11 egun euskaraz* lelopean egingo da lehenengo *Euskaraldia*.

Euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren herritarrak izango dira ekimeneko protagonista, eta, hamaika egunetan zehar, beraien ohiko harreman sareetan euskaraz aritzeko gonbita egingo zaie, inertzia apurtu eta euskarazko hizkuntza praktikak bultzatzeko helburuarekin.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren: Bingen Zupiria, Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikako eta Kultura Sailburua; Elena Laka, Euskaltzaleen Topagunea-ko lehendakaria; Paul Bilbao, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusia; Naiara Mujika, Lasarteko Ttakun elkarteko kidea; Beñat Arrabit, Euskararen Erakunde Publikoko presidentea eta Euskal Elkargoko hizkuntza politikaren arduraduna; eta Arrate Illaro, *Euskaraldia*-ren koordinatzailea eta Euskaltzaleen Topagunea-ko kidea. Eurekin batera, orain arte egitasmoan laguntzeko go-go agertu duten hainbat era-

Erabilera, ohitura bilakatu nahian

'Euskaraz 365 egun' dinamikaren baitan, 'Euskaraldia' ekimena jaio da, euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duena; 2018ko azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3ra arte egingo da lehenengo edizioa, '11 egun euskaraz' lelopean

kunde sustatzaileraren babesa izan zuten aurkezpenean. Aurrerantzean ere, atea irekita egongo da entitate gehiago ekimenera batzeko.

Parte hartzeko ateak zabalik
Herritar euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzea da ekimenaren helburua. Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkartek urteetan zehar landu duten *Euskaraz 365 egun* lan dinamikaren baitan kokatzen da ekimen hori, eta bi mugarri ditu: batetik, hiztunen hizkuntza ohituretan eragin eta berauen

2018AN HERRITARRAK AKTIBATU NAHI DIRA ETA 2019AN, BERRIZ, ENTITATEAK

harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea izango da lortu nahi dena; bestetik, hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatua denez, 2019an mota guztietako entitateek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea izango da helburua.

Aktibazioak martxan jartzea esan nahi du. Hizkuntzaren erabilerrari lotutako kontzeptua da, euskaraz hitz egiten dakitenek edota euskara ulertzeko gaitasuna daukatenek euskara erabili dezaten lortu nahi dutelako koordinatzaileak.

Hamaika egun horietan, 16 urtetik gorako herritarrak *ahobizi* eta *belarriprest* bihurtu nahi dituzte. Lehenaren ardura izango da euskaraz hitz egitea ulertzeko gai diren guztiei, haiek erdaraz erantzun arren. Biga-

rrenaren zeregina, aldiz, dakienari euskaraz hitz egiteko gonbita egitea izango da. Nolanahi ere, euskaraz hitz egiteko gai diren parte-hartzaileek eurek erabakiko dute bataren edo bestearen rola jokatu.

Ekimena Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta inguru soziolinguistiko zein tokian tokiko errealitatera moldatzeko modukoa izango da.

Antolaketan, beraz, hainbat auzo, herri eta eskualdetako euskaltzale taldeak arituko dira,

EKIMENeko PARTE-HARTZAILEEK ERABAKIKO DUTE 'AHOBIZI' EDO 'BELARRIPREST' IZAN

baita elkarte, enpresa zein erakunde ezberdinetakoak ere. Beren eragite eremua tokikoa zein Euskal Herri mailakoa izan daiteke. Era berean, Euskal Herri-kanpoko euskal hiztunen komunitateetan ekimena gauzatu nahi izanez gero, parte hartzeko ateak zabalik daude.

Herri eta entitateek 2018ko lehen hiruhilekoan izango dute izena emateko aukera eta udaberrirako jakin ahal izango da zenbat herri eta gunetan parte hartu ahal izango duten hiztunek 2018ko *Euskaraldia*-n. Hala ere, une honetan 40 herritatik gora datorren urteko *Euskaraldia*-ren antolaketan murgilduta daudelako aurreratu dute sustatzaileek –tartean, hiriburua nagusietan– eta datorren urtearen hasierarako eskualde gehiagotara hel-tzea espero dutela azpimarratu dute.

Herritarrek, berriz, 2018ko udazkenean izango dute *Euskaraldia*-n izena emateko aukera. Izen-ematea 2018ko irailean zabalduko da eta *ahobizi* zein *belarriprest* modura parte hartu ahal izango dute nahi duten herritar guztiek. Ekimenak iraungo duen hamaika egunetan *ahobizi* edo *belarriprest* identifikazio ikurra erabiliko dute parte hartzaile guztiek.

Elkarlanaren garrantzia
Elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuten aurkezpenean parte hartu zuten eragile guztiek. Azken hilabeteetan hizkuntzaren

'Ahobizi'

Euskaraz egingo die *belarriprest* haiek erdaraz erantzun behar duten gutxienez, euskaraz egin behar duten moduko tx

'Belarriprest'

Belarriprest denak dakien euskaraz egingo dio, hark euskaraz erantzun behar duen moduko tx

normalizazioaren bueltan diren erakundeek elkarlan beharra behin eta berriz zuten, eta *Euskaraldia* ekimen hori gauzatzeko aukera pentsatu bea dela. Euskal Herriko herritarrak gertatzen hasi den elkarlanaren hamaika hori herriz herriz gauzatzea bada ekimen horren helburua. Ana Ollok, Nafarroako Foru Erkidegoaren nuko Herritarrekiko eta Euskararen Erakunde Publikoaren kideekiko Harremanetarako kontseilariak, tokian t

Topaguneko kide eta *Euskaraldia*-ren koordinatzaile Arrate Illaro.

"Inertziak apurtu gura genituzke harremanetan modu berriak sortuta"

ARRATE ILLARO TOPAGUNEA-KO KIDEA ETA 'EUSKARALDIA'-REN KOORDINATZAILEA Euskararen erabilera bultzatzea da 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean hainbat herritan egingo den '11 egun euskaraz' dinamikaren helburua

Euskaraldia-ren koordinatzaile eta Euskaltzaleen Topagunea-ko kide da Arrate Illaro getxotarra. 11 egun euskaraz izena hartuko du 2018an *Euskaraldia*-k. Helburua euskararen erabilera bultzatzea da. Euskaltzaleen Topagunea da dinamikaren sustatzaileetako bat.

Euskaraldia. Zer da eta zein da abiapuntua?

Euskarak 365 egun dinamikaren barruan kokatzen den dinamika da *Euskaraldia*. Helburua da hizkuntza ohiturak aldatzea,

euskararen erabilera areagotzea, euskaltzaleak aktibatuta.

Nola lortuko da hori?

Oinarrian daude pertsonen urratsak, norbanakoenak. Egunerokoan euskara erabil dezaten, 11 egun euskaraz dinamika sortu

"HELBURUA DA OHITURAK ALDATZEA, ETA EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA"

da 2018ra begira. 2019an entitateen babes neurriak ikusarazi gura ditugu.

Zertarako?

Pertsonak egunerokoan euskaraz bizi ahal izateko baldintza ego-kiak izateko.

Euskaraldia, 11 egun euskaraz izaerarekin etorriko da datorren urtean.

Hamaika eguneko dinamika izango da. Hain zuzen ere, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean aktibatuko ditugu euskal herritarrak.

Euren egunerokoan euskara gehiago egiteko dinamika bat izango da.

Nola lortuko da hori?

Bi rol sortuko ditugu: batetik, egongo dira *ahobizi*-ak. Horiek izango dira euskaraz egingo dietenak euskaraz ulertzen duten guztiei, baita ezezagunei ere. Lehen berba beti izango da euskaraz. Besteak ulertzen badu, jarraituko dute euskaraz, noski. Eta beste rola da *belarriprest* deritzona. Identifikazio edo txapa baten bidez adieraziko diete gainontzekoei beraiekin euskaraz egin dezaketela. *Belarriprest*-ek, gutxienez, ulertzen dute euskara, hitz egin, zein ez.

Aktibazio ekimenak, baina, martxan daude dagoeneko...

Azken bi urteetan aktibazio ekimen asko egin dira Euskal Herrian, eta *Euskaraldia*, hain zuzen ere, hori da, aktibazio dinamika horiek hedatzea. Hau herrietan sortu den ekimena da, eta herriek egingo dute. Gu saiatuko gara baldintzak eskaintzen eta hedatzen ahalik eta gehien, baina herrietako lana ezinbestekoa izango da.

Zergatik eragin, orain, hizkuntza portaeretan?

Momentua delako inertziak apurtzeko, inflexio-puntu baten gaudelako. Izan ere, neurketek 2011n eta 2016an geldialdi bat erakutsi zuten euskararen erabilerrari dagokionez, eta hortik ondorioztatu zen baldintzak aldatu beharra zegoela erabilera bultzatzeko. Inertziak apurtu gura genituzke harremanetan modu berriak sortuta eta inertziak apurtu gura genituzke lan egiteko moduan, planteatu dugulako elkarlanean lan egitea, bai koordinazio orokorrean, bai eta herriz herriko dinamiketan.

Ez da erronka makala, baina baldintzak onak dira?

Oinarria ona da. Alde batetik, euskaraz bizi gura duen jende asko baitago, determinazio hori duena eta hizkuntza ulertzen duen jende asko dago. Beraz, baldintzak baditugu orain egiten duguna baino gehiago egiteko. Horretarako, ahaldundu egin behar dugu, eta formakuntza

"AHALIK ETA HERRI GEHIENETARA HELTZEA DA ASMOA, ETA, BATEZ ERE, AHALIK ETA ONDOEN"

eskainiko dugu, eta aholkuak zabaldu eta landuko ditugu. Helburua da hamaika egun horietan *ahobizi* eta *belarriprest* izateko tresnak izatea. Har dezagun denbora eta presta gaitezen helburuari erantzuteko, eta hamabigarren egunean ere, abenduaren 4an, elkarrizketa horiei eusteko.

Orain arteko esperientziek emaitza onak eman dituzte?

Alde batetik, ilusioa nabari da eta aktibazio dinamika egin dituzten herriek ondorioztatu dute, batetik, uste baino jende gehiagok izan duela interesa eta fruituak ematen dituela edo, nolabait, emaitzak ikusten direla. Ikerketa zehatzena Lasartekoa da, eta ikerketak esaten du dinamika bukatu eta hiru hilabetera ere igoera zegoela euskararen erabilera.

Koordinazio mahai bat badago osatuta.

Bertan gaude Euskaltzaleen Topagunea, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Euskarabidea eta Iparraldeko Herri Elkargoa, eta gure lana izango da herriei baliabideak eskaintzea, ez daitezen hutsetik abiatu eta ahalik eta errazen egin dezaten lan. Euskal Herri osoan egingo den dinamika bat izanik, ahalik eta modu ordenatuenean egitea da asmoa. Horretarako, kronograma proposamena egin dugu, moldagarria dena. Kudeaketarako baliabideak sortzen ari gara, eta sortuko ditugu. Komunikaziorako irudi eta marka bateratua egin dugu eta kartelak egin ditugu. Komunikaziorako gida bat egongo da, formakuntza eskaintza bat egongo da, eta abar. Tresnak ematea izango da gure lana.

Sustatzaile sare bat ere sortu duzue.

Bai, eta bertan daude herriz gaindiko eragileak, ekimenean parte hartu gura dutenak: euskalgintza zuzeneko bultzatzaileak, EAEko aldundiak, Eudel eta Uema ere bai. Gainera, dei egingo diegu euskararekiko arduraduten entitateei ere. Denon artean egingo dugu zabalkundea. **Euskal Herriko zazpi lurraldeetan egingo da.**

Hori da asmoa, nahiz eta guk ez ditugun herriak martxan ipiniko. Herriak izango dira hau martxan ipiniko dutenak. Zerbait progresiboa izatea gura dugu, eta asmoa ez da datorren urtean Euskal Herriko herri guztietan martxan egotea, baizik eta ahalik eta gehienetara heltzea, eta, batez ere, ahalik eta ondoen.



Lasarten 1.000 *ahobizi* eta 2.000 *belarriprest* aktibatu ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko.

Euskararen alde, aktibatu herria

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herri osoan egingo den '11 egun euskaraz' dinamikarako prestatzen ari dira dagoeneko 40 herri baino gehiago; Aiaraldea, Agurain, Arrigorriaga, Iruñea, Donostia eta Lasarte dira horietako batzuk

Gero eta herri gehiagotan ari dira aktibazio ekimenak antolatzen, *Euskaraz 365 egun* dinamikaren barnean 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den *Euskaraldia*-ra begira. *11 egun euskaraz* izenez egingo den ekimenak hizkuntza portaeretan eragitea du helburu, eta, hala, euskararen erabilera areagotzea. Iaz abiarazi zuten, Donostiako Egia auzoan, *Euskaraz bizi* ekimena, eta, astez aste, geroz eta gehiago dira antzerako ekimenak martxan jarri dituzten edo martxan jartzea erabaki duten herri eta eskualdeetako eskaltzale taldeak. Hain justu ere, 40 herri eta eskualde daude orain arte lanean hasita; esaterako, Bilbo, Igorre, Gasteiz, Gorbaildea, Arrasate, Elgoibar, Errenteria, Ibarra, Orío, Baztan, Lizarra, Angelu, Baiona eta

Miarritze. Horietako batzuek egin dituzte jadanik aktibazio ekimenak eta datorren urtean errepikatzen asmoarekin ari dira. Beste batzuek aurten egingo dute lehenengoz eta beste herri batzuetan biltzen hasi berriak dira, 2018ko ekimena helburu. Puntu desberdinetan daude, beraz.

2018ko *11 egun euskaraz* ekimena berotzen joateko asmoz, datozen asteetan hainbat saio egingo dira hainbat herritan. Askotariko formatuetan egingo dira; batzuek asteburu bat aukeratu dute lan hori egiteko –

EKIMENAK LAN-ILDO OSO BATEN BARRUAN HARTU BEHAR DIRA, ETA EZ KANPAINA MODUAN

Lizarrak eta Deriok, esaterako; beste batzuek, berriz, astebeteko ekimena proposatu dute. Baionak, Angeluk eta Miarritzek, adibidez, BAM izeneko ekimena abiatuko dute. Astebete iraungo du eta dagoeneko 650 lagunek baino gehiagok eman dute izena. Hamaika egunez arituko direnak ere, Deustu, esaterako, baita 30 egunez arituko direnak ere –Aiaraldea–.

Herri asko lanean

Euskaraldia ez da hutsetik abiatzen –*11 egun euskaraz* izena hartuko du 2018an–. Azken bi urteotan Euskal Herriko hainbat herritan martxan jarri diren dinamiketan du abiapuntua. Ekimen horietan euskaltzaleek izandako konpromisoa azpimarragarria da, bai eta ekimenek hizkuntza ohitura aldatetan izandako eragina ere.



Txanpan goaz izenez egin zuten ekimena Donostiako *piratek*.



100 da 100... 200 ordu euskaraz Astigarragan, 2016an.



Agurainen *75 ordu euskaraz* ekimena egin zuten iaz azaroan.



Euskararen Nazioarteko Egun bateratuta egin zuten iaz Aiaraldean.

"Erabilera ohiturak mugitu daitezke"

PELLO JAUREGI HEZKUNTZA ZIENTZIETAN DOKTOREA

Urteetako lanaren ostean, Eusle metodologia lantzen eta aplikatzen, ondorio interesgarriak atera ditu Pello Jauregi hizkuntza ohiturak aldatzearen gainean

EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Abtologia Fakultatean irakasle da gaur egun Pello Jauregi (Pasaia 1958). Eusle metodologiarekin lan eta lan ibili da azken urteetan, baita Lasarte-Orian aurrera eraman zuten egitasmoan ere. Hizkuntza ohiturak aldatzeko proposamen interesgarriak atera ditu Jauregi esperientzia horretatik. **Zer konta dezakezu Lasarte-Oriako egitasmoaren gainean?**

Azken finean, euskaldunok euskaraz egingo badugu, ingurunean baldintza erosoak eta egokiak sortu behar ditugu. Baldintza horiek ematen direnean, euskaldunok, normalean, joera euskaraz hitz egitekoa dugu. Ideia hori operazionalizatu egin dugu, euskaldunei *ahobizi* izena jarri diegu, euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen dutelako. Baina ingurunean jende mordo *belarriprest* izenarekin aktibatu dugu. Agian, euskaraz hitz egiteko gai ez baina ulertzen dutenak dira. Horrek erraztasuna ematen dio euskaldunari inongo arazorik gabe euskaraz hitz egiteko. Aldi berean martxan jarri ditugu bi figurak.

Zergatik Lasarte-Orian?

Han euskalgintzak urteetako eskarmentua du. Gauza asko



Pello Jauregi.

egin dituzte, urteetan ekintza pila, baina, hala ere, euskararen erabilera aurrerapenak ez dira bestekoak izan. Orduan, beste zerbait egin beharra ikusten zuten. Hortik etorri zen kontua, azkeneko sei urteetan lan munduan metodologia bat aplikatu dugulako euskararen erabilera bultzatzeko. Eta guk genituen ideiekin eta Lasarte-Orian zuten indarrarekin eta beharrarekin jarri genuen ekimena martxan. Orain, Eusle metodologia honekin hezkuntza munduan sartu nahi dugu muturra, eta meto-

dologia aplikatzeko egokitzen ari gara.

Zer ondorio atera dituzue Lasarte-Oriako esperientziatik?

Guztira, sei txanda izan ziren, eta, nolabait, datu horiek bildu ostean, euskararen erabilera igo egin da 21,4 puntu, 0 eta 100 arteko eskalan, *belarriprest* eta *ahobizi* izan diren horien konpromisoaren ondorioz. Gero, kanpaina bukatu eta hiru hilabetera berriz neurtu genuen, eta jaitsi egin zen euskararen erabilera, baina oso gutxi, 2,6 puntu bakarrik jaitsi zen. No-

labait, mantendu egin da, guztira, 18 puntu, eta euskararen erabilera ohiturak mugitu egin direla ikusi dugu.

Hizkuntzaren ohiturak aldatzearen gainean hitz egiten dugu, baina ez da lan erraza hori...

Ez da erraza, abiatzen zaren puntuaren arabera. Adibidez, hitz egiteko erraztasuna baldin baduzu eta solaskideak ere bai, hizkuntza ohitura astebeteetan aldatu daiteke, eta zailtasun gutxiarekin. Solaskide horietako batek hizkuntza gaitasuna kamustua baldin badu, ordea, zailtasun gehigarri bat izango genuke. Kasu horretan, agian, zailagoa da. Beste aldagai bat harremanaren gertutasuna izango litzateke. Zenbat eta harremana gertuagokoa izan, orduan eta gehiago kostatzen da hizkuntza ohitura aldatzea. Ohitu bazara lagun batekin edo bikote kidearekin, historia asko dauke lotuta hizkuntza horrekin, eta hor gehiago kostatzen da. Baina kaleko lagunekin edo ezagunekin errazagoa izaten da. **Lan esparruan ohitura horiek aldatzeko erraztasun handiagoa dagoela diozu. Zergatik?**

Nik neuk azken urteetan pilatutako esperientziaren arabera, esango nuke errazagoa dela lantokian hizkuntza ohiturak aldatzea familia batean baino. Hor alderdi afektiboa dago. Lantokian harremanak neutroagoak dira, lagunak egin arren, bada-goelako inpersonaltasun puntu handiagoa. Familian afektibitatea dago eta gehiago kostatzen da.

Euskal Herriko beste txoko batzuetara zabaldu daiteke, beraz, egitasmoa?

Bai, noski; zabaldu daiteke eta zabaltzen ari da. Egia da aurrelana oso garrantzitsua dela.

Baldintzak prestatu behar dira herrietan. Metodologia badago, baina jende asko mobilizatu behar da eta batera egin behar dute lan. Antolatzearen aldetik indar asko batu behar dira, gero herritar asko mobilizatu ahal izateko. Metodologia honetan benetan euskaldunak aktibatu behar badira, masa kritiko handi bat behar da, bestela ez da eta herrian ikusaraziko. Herri osoa kutsatu behar duzu, nonahi ikuste horrekin zu zeu ere indartzen zarela. Baina tarteka ikusten badituzu, orduan, indar hori galdu egiten da, eta metodologiak ez zaitu bustitzen. Herriaren, euskalgintzaren eta erakundeen indarrak batu behar dira, eta, batzuetan, lehenengo kolpean mezua ez da ondo ulertzen, eta pedagogia soziala eskatzen du. Honetan beharrezkoa da euskaldunei bidea erraztuko dieten horiek mobilizatzea. *Belarriprest* horiek mobilizatzea.

Horrelako esperientziarik egon da beste herrialderen batean? Katalunian, agian?

Ba, egia esateko, ez. Kontu honetan esango nuke, gainera, gehiago begiratzen digutela guri guk haiei baino. Haiek asko harritzen dira guk egiten ditugun gauza eta metodologia hauekin. Haien ustez, gure metodologia hauek oso inbasiboak dira. Gu sartu egiten gara jendearen intimitate eremuetara. Haien zat, hori arrotza da. Eurak ez dira sartzen gu bezala lantokira, familiara, kuadrillara, elkartera... Guk aurkezten ditugunean, beraz, arreta handiz begiratzen dute. Azken finean, gure egoera soziolinguistikoa hil edo biziko puntuan dago. Erabilera hain da txikia berpiztu behar dugula bihotzetik. Katalunian egoera askoz ere normalizatuago dago.

ULMA

Ga
ra

**EUSKARAK
365
EGUN**

ABENDUAK 1**ESKORIATZA Apainketa**

Fernando Eskoriatza plaza apainduko dute. Deialdi irekia, herritar guztiendako.

Aipatutako lekuan, 10:00etan.

ARRASATE Murala margotu

Margotzeko deialdi zabala.

Nafarroa etorbidean, 14:30ean.

OÑATI 'Euskaraz bizi'

LH-1 eta LH-2koek *Munduko jolasak* kiroldegian, LH-3 eta LH-4koek ginkana kooperatiboa herriko kaleetan eta LH-5 eta LH-6koek *Euskaraz bizi!* festa gaztelekuan, Gauargi taldearekin.

Aipatutako lekuetan, 14:45ean.

ESKORIATZA Gaztaina jana

Irekia, herritar guztiendako.

Luis Ezeizan, 16:15ean.

OÑATI 'Txantxariak, kaleko musikariak'

Familiendako jolas saio musikatua.

Azoka plazan, 16:30ean.

ESKORIATZA Buruhandiak

Kalejira egingo dute umeein.

Fernando Eskoriatza plazan, 17:30ean.

OÑATI Euskal kantuen saioa

Herriko ikastetxeetako guraso elkarteek txokolatea banatuko dute, doan, eta ikasleek, euskararen aldeko mezua duten bizkotxoak salduko dituzte.

Foruen plazan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Euskarazko hitzik politena'

Gaztelekuko nerabeek orri zuri bat ipiniko dute, euskarazko hitz gustukoena idazteko.

Fernando Eskoriatza plazan, 18:30ean.

EUSKARA IZAN DADILA IZARRA



GOIENA

ARAMAIO Herri lasterketak

Adinaren arabera lau maila eta ibilbide egingo dituzte: 6 urte arte, 6-12 urte artekoak, 12-16 artekoak eta 16tik gorakoak. Bukaeran, pintxoak egongo dira korrikalariendako.

Bihar, zapatua, Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan.

ARRASATE 'Mintzapraktikaren bueltan' jardunaldia

Zahar Berriren 20. urteurrenaren harira, programan parte hartu duten herritarrek gonbidatu dituzte, euren bizipenak euskaraz kontatu dituzten.

Kulturaten, 18:30ean.

ABENDUAK 2**ESKORIATZA Taloak**

Postua egongo da.

Fernando Eskoriatza plazan, 12:30ean.

ESKORIATZA Euskal dantzak

Ekitaldi irekia.

Fernando Eskoriatza plazan, 13:00etan.

ESKORIATZA 'Zuk ekarri, zuk jan' ekimena

Kantu bazkaria egingo dute.

Fernando Eskoriatza plazan, 14:30ean.

ARRASATE Aurkezpen ekitaldia

Urban Festa!-ren aurkezpena egingo dute. Eguraldi txarra bada, Txatxilipurdiren garajea egingo dute.

Nafarroa etorbidean, 17:00etan.

ARRASATE 'Parkour' erakustaldia

Abileziak erakutsiko dituzte herriko gaztetxoek. Eguraldi txarra bada, Biteri plazan.

Nafarroa etorbidean, 17:30ean.

ARRASATE 'Bokabeats betbox' komedia

Irekia. Eguraldi txarra bada, Biteri plazan.

Nafarroa etorbidean, 18:00etan.

ESKORIATZA Elektrotxaranga

Kalejira egingo dute, herria euskal kantuz betetzeko.

Kalerik kale, 19:00etan.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Berrikuntza eta teknologia, Goizperren ADNa.
Ingurune digitalean eta 4.0an garatzen ditugu gure produktu eta zerbitzuak.

**Industrialia****Inbuztadura****Bioteknologia**

spraying@goizper.com

telef: 943 786 000

www.goizper.com





GOIENA



GOIENA

OÑATI Antzerki solasaldia

Batxilergoko ikasleek *Hozkailua* antzezlanak ikusiko dute. Ondoren, solasaldia egingo dute Patricia Urrutia eta Ander Lipus aktoreekin. Hozkailuan hilotz batekin bidaia diharduen bikote baten bizipenak kontatzen dituzte.

Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 12:00etan.

ESKORIATZA 'Nomofobikak' antzezlanak

Olatz Beobide, Belen Cruz eta Amaia Lizarralde aktoreak. *Nomofobia* berbaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Etzi, domeka, Zaldibarren, 19:00etan.

ARRASATE DJ Aimar

Zuzeneko emanaldia egingo du Aimarrek. Eguraldi txarra bada, Biteri plazan.

Nafarroa etorbidean, 19:00etan.

BERGARA Kantu afaria

Arno-rekin egingo dute kantaldia, Osintxuko Txuringo jatetxean. Euskal kantuak izango dira protagonista.

Aipatutako lekuan, 21:15ean.

ABENDUAK 3**ARRASATE Eskuter txapelketa**

Eguraldi txarra bada, Biteri plazan.

Nafarroa etorbidean, 11:00etan.

BERGARA Haurrendako jolasak

Askotariko jokoak eta jolasak Txatxilipurdirekin. Eguraldi txarra bada, pilotalekuan.

Osintxun, 11:30ean.

ELGETA Euskararen Mahaia

Irekiera ekitaldia egingo dute.

Mendizaleen plazan, 11:45ean.

ELGETA Bertsoak eta kantuak

Eskolako umeendako ekitaldiak egingo dituzte.

Mendizaleen plazan, 12:00etan.

BERGARA Jolasak

Haurrendako jokoak eta jolasak egingo dituzte.

Irala klean, 12:00etan.

ESKORIATZA 'Ezkutuko altxorak' bisita gidatua

Santa Marina plaza eta XVI, XVII eta XVIII. mendeetan Ameriketatik ekarritako diruarekin egindako eraikinak ezagutzeko aukera.

Ibarraundin, 12:00etan.

ELGETA 'Clown' antzerkia

Umeendako emanaldia. Debalde.

Udaletxean, 12:30ean.

ARRASATE Kalejira

Konpartsarekin eta gaitari taldeekin.

Seber Altube plazatik, 12:30ean.

BERGARA 'Euskarak 365 egun' aurkezpena

Herritarren aurrean egingo dute *Euskaraldia*-ren aurkezpena.

Dinamika berriaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Irala klean, 12:30ean.

ARETXABALETA Askotariko ekintzak

E! Guraso dinamikaren amaiera ekitaldia, *11 egun euskaraz* dinamikaren aurkezpena, *Ahoa bizi, belarriak prest! flashmob*-a, salda beroa Basotxokoekin eta emanaldia musika eskolakoekin.

Herriko Plazan, 12:30ean.

ELGETA Kalejira

Euskal kantuekin.

Kalerik kale, 13:00etan.

ARRASATE Bertso-rap emanaldia

Aneguriarekin eta Oihana Aranarekin. Eguraldi txarra bada, Biteri plazan egingo dute.

Nafarroa etorbidean, 13:00etan.

ANTZUOLA Mahai-inguru zikloaren aurkezpena

Zergatik euskaraz... izeneko zikloa egingo dute. Gaur, aurkezpen ekitaldia egingo dute. Han egongo dira trikitilariak, bertsolariak, pintxoak...

Zurrategin, 13:00etan.

ELGETA Salda eta txorizoa

Eskolako seigarren mailako ikasleek banatuko dituzte pintxoak eta salda, ikas bidaierako dirua batzeko.

Mendizaleen plazan, 13:15ean.

ARRASATE Euskararen plaza

Udaltzaingoaren, Txatxilipurdiren eta Ereindajanen ondoan dagoen

plazari izena ipiniko diote. Ekitaldi irekia egingo dute eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Nafarroa etorbidean, 13:30ean.

ESKORIATZA 'Mihiluze' txapelketa

Kike Amonarrirek ezagun egin zuen jokoarekin ibiliko dira. Gaztetxoendako ekintza.

Aipatutako lekuan, 18:00etan.

ABENDUAK 12**ANTZUOLA 'Zergatik euskaraz... lan munduan', lehenengo mahai-ingurua**

Euskarak lan esparruan duen presentzia eta garrantzia egingo dute berba Elayko, Goizperko eta Matz-Errekako ordezkariak. Ekitaldi irekia izango da, herritar guztiendako.

Torresoroan, 18:30ean.

EUSKARA GURE LAN TRESNA

Euskara gure hizkuntza eta eguneroko erronka

FAGOR
FAGOR ARRASATE





Elena Lete alkatea, proiektuaren egileekin: Iñaki eta Xabier Berasategi. IKER OÑATE

Udaberrian hasiko dira Zubietako zubiko lanak

Zubia birgaitu eta balioan jarri, erdialderako irisgarritasuna hobetu, barandak jarri eta LED argiteria ipiniko dute, besteak beste, lau hilabete iraungo duten obretan; 314.251 euroko aurrekontua du proiektuak eta Jaurilaritzak 194.784 euro jarriko ditu

Jokin Bereziartua BERGARA

Zubietako zubia berreskuratzeko eta birgaitzeko lanak udaberrian hasiko dira. Bi helbururekin egingo dituzte lanak: batetik, zubia bera birgaitzea eta balioan jartzea; eta, bestetik, Zubieta kaletik erdialderako irisgarritasuna bermatzea. Otsaila eta martxoa bitartean esleitu dituzte lanak eta exekuzioepea lau hilabetekoa izatea aurreikusten dute. BEB Arkitektoak enpresak idatzi du proiektua.

Erdia baino gehiago, Jaurilaritzak

Zubietako kalearen alde bietan espaloia jarriko dute, zubira igotzeko aldapa txikitu egingo dute eta zubiaren bi aldeetan baranda eta LED argiak ipiniko dituzte. Horiez gain, gaur egun bistan dauden argindar eta telefonía sareak lur azpitik bideratuko dituzte. Elena Lete alkateak martitzenean egindako agerraldian azaldu zuenez, aspaldiko asmoa zen lanak abia-

raztea: "Auzotarrek behin eta berriz azaldu digute lan horren beharra". Aspaldiko eskaera izan arren, orain betetzen dira baldintzak lanak abiatu daitezela. 314.251 euro kostako dira BEZa barne-, eta horietatik 194.784 euro Eusko Jaurilaritzak jarriko ditu. Gainontzekoa ordaintzeko, Udalak Kupoaren akordioari esker -ia 500.000 euro, alkatearen esanetan- aske geratutako diru partidaren zati bat erabiliko du. Hain justu, asteleheneko osoko bilkuran onartu ziren kreditu aldaketa horiek, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EH Bilduren eta Irabaziren abstentzioarekin.

Zubietako zubiak ondare izendapena dauka; izan ere, zubiaren

**ONDARE IZENDAPENA
DAUKA ZUBIAK;
LEHEN AIPAMENA
1596KO UDAL AKTA
BATEAN AGERI DA**

gaineko lehen aipamena 1596ko apirilaren 21eko udal akta batean azaltzen da eta Udalak dio herriko historiako "oso atal garrantzitsua" osatzen duela. Esandako moduan, lanekin, ondare hori balioan jarriko dute.

Ondarea birgaitzeko laguntzak

Zubietako zubiaz gain, Udalak idatzita dauka Zubietako kalea berririo urbanizatzeko proiektua, baina, alkatearen arabera, esku-hartze horrek ez du datarik, finantziazio bila dabilatzalako. Bestalde, Eusko Jaurilaritzatik jasoko den ondarea birgaitzeko diru laguntzen barruan, beste bi proiektu daude: batetik, Errekaldeko lorategitik jauregirako irisgarritasuna hobetzeko proiektuak 142.510 euroko aurrekontua du eta horietatik 88.333 euroko laguntza jasoko du Udalak; bestetik, San Martin plazaren urbanizaziorako proiektuaren aurrekontua 35.000 eurokoa da eta Udalak 31.500 euroko diru laguntza jasoko du.

Erakusleio lehiaketarako izen ematea, abenduaren 11ra arte

Udaleko, Bedelkarko eta Beart-eko epaimahaikideez gain, herritarrek ere eman ahalko dute euren iritzia

J.B. BERGARA

Gabonen atarian, erakusleio lehiaketa antolatu du aurten ere Udalak. Interesatuak abenduaren 11tik aurrera prestatuta izan beharko dituzte erakusleioak, baina ezinbestekoa izango da abenduaren 11 baino lehen izena ematea, 943 76 10 16 telefono zenbakira komertzio ordutegian deituta.

Erakusleio onena aukeratzeko orduan, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat: publizitate-mezuaren irudimena, originaltasuna, argiztapena, berri-

kuntza eta eraginkortasuna, erakusleioaren kalitatearekin batera. Epaimahaia osatuko dute Ekonomia, Sustapen, Turismo eta Enpleguako batzordeak, Bedelkar merkataritza elkarteak eta Beart elkarteak. Horrez gain, herritarrek ere baloratzeko aukera izango dute, komertzioetan banatuko zaizkien fitxa beteta.

Irabazleak ziurtagiria eta 300 euro jasoko ditu; bigarrenak, ziurtagiria eta 250 euro; hiru-garrenak, ziurtagiria eta 150 euro; eta herritarrek aukeratu-takoak, ziurtagiria eta 50 euro.



BEDELKAR

Saria, herriko dendetan bertan

Azaroaren 24an egindako Bedelkar merkataritza elkartearen azken zozketako irabazlea Amaia Jauregi izan da. Sariak izan dira Bedelkarko kide diren Igaro estetika zentroko, Jo'Ka arropa dendako eta Maka oinetakoen dendako produktuak edota zerbitzuak. Argazkian, Jauregi bera ageri da hiru denda horietako arduradunekin, saria eskuetan duela.

Abenduaren 7an piztuko dituzte aurten Gabonetako argiak

Gabonetako argiak piztuta egongo dira abenduaren 7tik urtaririlaren 6ra; egubakoitzetan eta zapatueta 18:00etatik 22:30era eta abenduaren 24an eta 25ean eta urtaririlaren 5ean 18:00etatik 01:00etara. Gainera, abenduaren 22an, 29an eta 30ean, Fraisko-zuri plazan aukera egongo da bizikletarekin argiak pizteko -18:00etatik 22:00etara-.

OHARRAK

Afari begetarianoa

Gaur, abenduak 1, afari begetarianoa egingo dute kartzela zaharrean, 20:00etan: "Gonbidatuta zaudete!", diote.

'Handia' Zabalotegin

Aitor Arregiren eta Jon Garañoren *Handia* filma ikusteko aukera egongo da abenduaren 13an eta 14an Zabalotegi aretoan (20:00). Sarreraren prezioa: hiru euro.

Erabilera hauspotzea, bergarar guztien erronka

EUSKARAREN
EGUNA 2017

Bergarako hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskararen erabilera handitzeko asmoz, Jardunek eta Udalak '11 egun euskaraz' ekimena aurkeztuko dute domekan Irala kalean (12:00): "Hurbildu zaitezte; eguraldi txarra badago, karpa izango dugu prest!"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bi urtean behin egiten diren euskararen kaleko erabilaren neurketak aintzat hartuta, Euskal Herrian, orokorrean, alde handia dago euskararen ezagutzaren eta erabilera mailaren artean. Bergaran, azken datuen arabera, %76 da ezagutza maila eta %42,5 erabilera. Domekan ospatuko den Euskararen Eguren harira, oraindik lan handia dagoela erakusten dute datuok: "Udalak, Jardunek eta bestelako eragile eta herritarrek, guztiok, izango dugu protagonismoa".

Jaurilaritzak eta Topaguneak 2018ra begira antolatutako *11 egun euskaraz* ekimena izan zuten hizpide, besteak beste, Udalak eta Jardunek eguaztenean egindako agerraldian. "Gonbidapena egiten dizuegu eragile eta herritar guztioi ekimen honetan parte hartzeko", esan zuten. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean hamaika eguneko ekintzak gauzatzea proposatzen da: "Herritarrona, erakundeena... bergararrona da orain erronka. Gai izango gara 2018an Bergaran ahalik eta jende gehien 11 egunez euskaraz aritzeko? Guk baietz uste dugu!".

Ekimenaren aurkezpene etzi

Bergarako hizkuntza ohiturak aldatzea, egunerokotasunean dauden gaztelaniarako ohituretatik irten eta euskararen erabilera handitzea izango dira ekimen zehatz horren helburuak. Hain justu, ekimen hori bera aurrez aurre aurkezteko eta atxikimenduak batzen hasteko bi ekitaldi antolatu dituzte asteon. Lehena atzo egin zuten, pintxotertulia Irizar jauregian. Atzoko ekintzaren helburuetako bat zen gizartearen aktibazioa nola egingo den zehazteko arlo ezberdinetan garatuko diren dinamikak adostea: hezkuntzan, kirolean, kulturean, lanean... Horrez gain,



Euskara zinegotzi Izaskun Labaien eta Jarduneko Nerea Mendizabal eguaztenean. B.U.

etzi, abenduak 3, ekimenaren jendaurreko aurkezpen-ekitaldia egingo dute Irala kalean. 12:00etan, umeendako jolasak izango dira; 12:30ean, ekimena azalduko dute ekimen horretako roleri buruzko esketxeekin –euskaraz hitz egiteko gaitasuna duen *ahobizi* eta akaso hitz egin ez baina euskaraz ulertzen duen *belarriprest*–, ekitaldi sinboliko batekin eta salda eta txorizoarekin, herritarrekin partekatuko dira asmoak eta erronka zehatza. "Ordu erdiko ekitaldi xume eta parte-hartzaile

lea izango da. Etor zaitezte, herritar guztiei irekita dago; eguraldi txarra badago, karpa izango dugu prest!", aurreratu dute.

Amaitzeko, belaunaldi berrien artean euskararen erabilera handitzeko asmoz, argazki lehiaketa antolatu dute Xabalote gaztelekuan. *Zer da zuretako euskeria?* galderari erantzuten dion argazki bat atera, eta argazki hori Instagramera igo behar da esaldi batekin eta *#XabaloteEuskaraz* traola erabilita. Domekan banatuko dizkiete sariak lehiaketako parte hartzaile guztiei.



INA AZPEITIA

Matxismoaren aurka, irrintzika

Indarkeria matxistaren aurkako egunean, akelarre feminista egin zuten San Martin plazan, Martxanterak taldearen eskutik: "Testigantza, esperientzia eta kontakizun gogorre heldu ostean, horrela bukatu genuen akelarre feminista; dantzan, borobilean eta eurpean irrintzika! Eskerrik asko parte-hartu zenuten herritar guztiei! Gora borroka eta saretze feminista!".

Biodibertsitatearen gaineko hainbat ekintza antolatu dituzte

Urriaren 20an abiatu zen *Biodibertsitatea: biziaren etorkizuna* izenburu duen ekimena amaitzera doa. Hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte egitasmo horren bueltan; adibidez, itsas hegaztiak eta zetazeoak ikusteko Kantauri itsasoan zehar egindako irteera. Beste ekintza interesgarri bat gaur izango da: herritarrei, biodibertsitatea ikertzeko proposamen bat aurkeztuko diete Laboratoriumen (19:00). Gainera, abenduaren 2an, 3an, 8an eta 10ean Laboratoriumeko erakusketara bisita gidatuak izango dira. Azken bi bisitetan Amaia Arriaran ipuin kontalaria egongo da. Izena emateko: 943 76 90 03.

Goienagusiren eskutik, Juanjo Alvarezek hitzaldia hilaren 11n

Goienagusi elkarteak antolatuta, nazioarteko zuzenbidean katedradun Juanjo Alvarezek hitzaldi interesgarria egingo du abenduaren 11n: *Análisis jurídico del derecho a decidir. Los procesos de independencia y el nuevo ordenamiento jurídico*, hain zuzen ere.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da hitzaldia, 10:00etan hasita, eta Alvarezek gaztelaraz jardungo duela iragarri dute antolatzaileek. Erretiratu ostean arlo ezberdinetan ezagutza handitzea eta gizarte-ari ekarpen aktiboa egitea helburu duen Goienagusi elkarteak antolatu badu ere, deialdia irekia eta doakoa da.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraia)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Lanpostuak eta ekoizpena mantentzeko protestan

Zuzendaritzak proposatutako Bergarako Arcelor Mittal-en "berrantolaketaren" aurreko kontsulta-epea amaituta, egungo 149 lanpostuak eta ekoizpena mantentzeko "inbertsio zehatzak" eskatu ditu enpresa batzordeak: "Paperean ikusi nahi ditugu"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Arcelor Mittal lantegiaren etorkizuna ziurtatuko duen inbertsioaren berri zehatza idatziz ematea. Horixe da egun 149 langile dituen lantokiko enpresa batzordearen eskaera nagusia. "Aspaldi ez da inbertsiorik eginen. Laminazioan inbertsiorik ez badago, enpresa erori egingo da; zuzendaritzak dio enpresa ez dela lehiakorra, baina ez du inbertitzen...", diote ELAk eta LABek. Atzo eguerdiko kontzentrazioan enpresa batzordeko presidente Luis Alberto Elorzak azaldu zuenez, langile murrizketa baten aurreko kontsulta epea amaitu da, baina uste dute bilerak Gabonetara arte luzatuko direla: "149 langile finko izatetik 105 izatera pasatuko ginateke. Hori ez da aurrera jarraitzeko modua; 2009an altzairu-fabrika itxi zenetik langile kopurua murrizten eta murrizten joan gara urtez urte".

Egoera honetara heltzeko "ezinbesteko" beste arrazoi bat da, Elorzak uste duenez, Bergarako lantegirako inbertsiorik ez dela egin aspaldian: "Bermeak eskatzen dizkiogu enpresari, idatziz. 2017-2022 inbertsio planerako inbertsio zehatzak paper gainean ikusi nahi ditugu; gaur egungo langile kopurua eta



Atzo eguerdian egin zuten kontzentrazioa lantokiaren atarian. JOKIN BEREZIARTUA

ekoizpena, gutxienez, mantendu ditzatela".

Egungo lau erreleboak mantentzeko inbertsioa eskatzen dute. ELAren eta LABen arabera, zuzendaritzak dio 360.000 tona egiteko aukera dagoela Bergaran; tona kopuru hori mantentzen bada langileen baldintzak negoziatu ahaliko liratekeela uste dute. Gainera, Elorzak dio langileen batez besteko adina "oso altua" dela: "Orain bertan ez dago 30 urtetik beherako langilerik. Horrela ezin dugu aurrera egin; bestalde, erakundeei konpromi-

soa eskatzen diegu, bilera eskatu dugu Jaurilaritzako Industria Sailarekin. Bergarako industria-rentzat planen bat dagoen jakin nahi dugu, 100 urte baino gehiago dituen Arcelor Mittal-ek nola egin dezakeen aurrera".

Zuzendaritzarekin bilerak

Atzo arratsaldean bilera izan zuten zuzendaritzarekin eta, azaro osoan zehar moduan, gaur, egubakoitza, beste bilera bat egitekoak dira (batzar horien gaineko informazioa Goiena.eus atarian izango da).



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Torturaren memoriarik eza

Nork ukatu dezake Euskal Herrian tortura suntsitzailea, basatia, iraingarria, traumatikoa, heriotza eskatzerainokoa eta kartzelara luzarorako, tarteka heriotzarako bidea? Joxe Arregiren kasua, besteak beste, lekuko.

Memoriaz mintzatzen ari gara aspalditxoan. Milaka pertsona izan dira torturatuak. Memoriaz egokitasunez aritzeko, jasan izan dugun sufrikarioa erdigunean jarri behar da. Tortura. Estatuaren ekintza da eta herritar guztion ordezkapena lapurtuz aplikatzen da. Gogorra izan behar du torturatzaileari eskatzea: "Emazkidazue bi tiro eta kito". Eta, gainera, zenbat ote dira, proba faltsuak aitortuaz espetxean sartu direnak.

Pako Etxeberria forentseari entzuna diogu torturatua soilik torturatua dela eta, gainera, demostratu dezakeena. Milaka kasu eta denak estaliak izan dira. Europako epaitegien kondena ebazpenei jaramonik ez. P(so)E eta PP, a ze pareak!

Memoria eta erreparazio ahaleginean torturak apenas duen lekurik. Lotsagarria bezain iraingarria.

'Irakurri eta gozatu' ekimena martxan, abenduaren 17ra arte

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Badator euskarazko irakurzale-tasuna bultzatzeko *Irakurri eta gozatu* ekimena. Hasteko, abenduaren 13an, Jean Gionoren *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* liburua era kolektiboan irakurriko dugu Irizar jauregian (19:00). Bigarrenik, abenduaren 11tik 16ra, euskarazko liburuak merkeago eskuratu ahaliko dira Bergarako Elkar Megadendan erosita. Eta, azkenik, gaurtik abenduaren 15era, bigarren eskuko euskarazko liburuak jasoko ditugu kultura etxean hilaren 17an San Martin plazan egingo dugun truke azokara begira. Argibide gehiago: 605 71 24 69.

Domeka Azokan parte hartzeko izen-ematea, abenduaren 12ra arte

Abenduaren 17an, elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzea helburu duen Domeka Azoka ekimena izango da seminarioko patioan, 11:00etatik 14:30era. Hain zuzen, seminarioko patioan egingo dute azoka hori aurrerantzean. "Seminarioko patioak karpa handi bat dauka eta karpa horren barruan kokatuko dira postu guztiak. Horrela, ez dugu eguraldiaren menpe egon behar", adierazi du Udalak. Azokan parte hartzeko izena eman behar da abenduaren 12a baino lehen eta Udalak abenduaren 13an konfirmatuko du, posta elektronikoko bidez, nork hartu ahaliko duen parte. Izen emateko: www.bergara.eus.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Bergara Igeri Taldeko igerilari eta entrenatzaileak Agorrosingo igerilekuan. XABI LABAKA

Maila onean hasi dute denboraldia igerilariek

Ilusioz daude Bergara Igeriketa Taldekoak; orain arte egindako lana kontuan hartuta, bigarren daude Gipuzkoako Kopan, Bidasoaren atzetik. Urtea amaitu aurretik hainbat txapelketa izango dituzte; adibidez, Ordiziako nazioarteko lehiaketa entzutetsua

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Bergara Igeriketa Taldeak "ilusioz eta indarrez" hasi du denboraldi berria. Hain zuzen ere, denboraldi hasierako lanak eginda, lehiaketak hasteko moduan daudela azaldu du Xabi Labaka entrenatzaileak. Izan ere, Labakak hartu du taldearen gidaritza aurten.

"Hasierako lanak eta entrenamenduak eginda, dagoeneko egin ditugu lehenengo lehiaketak. Denboraldi hasierako emaitzak ez dira izaten urte amaierako modukoak; baina hori horrela izaten da. Denboraldia aurrera joan ahala, emaitzak hobeak izango dira", azaldu du Labakak.

91 igerilari

Elkarteak 91 igerilari izango ditu aurten; txikiak eta nagusiak kontuan hartuta. Guztien ardurar Labakak berak du: "Hainbat talde ditugu, eta, ordutegi ezberdinetan entrenatzen direnez, ondo moldatzen naiz denekin egoteko", dio. Hamabi lagunekoa taldeak izaten dira, batez beste.

Nagusietan, truke txiki bat egin dute Legazpiko igerilariekin. Taldea osatu eta lehiatzeko, Bergarako neskak –hiru dira– Legazpiko taldearekin lehiatuko dira: "Hala ere, Bergarako neskak hemen entrenatuko dira, betiko moduan", gaineratu du Labakak.

Epe motzeko helburuak

Denboraldiko helburuei begira jarrita, epe motzera Gipuzkoako taldeen Kopa dauka buruan Labakak. Abenduaren 16an eta 17an izango da txapelketa –oraindik zehaztu barik dago non–.

Gabon inguruan beste hainbat lehiaketa izango dituzte: benjaminek eta alebinek abenduaren 23an Eibarko Gabonetako Kopa izango dute; abenduaren 27an Iruñean Amaia Saria jokatuko dute; eta abenduaren 29an Gabonetako Ordiziako nazioarteko txapelketako entzutetsua. "Mundu mailako igerilariek parte hartzen dute", azaldu du Labakak.

Denboraldiak aurrera egin ahala, Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute. Otsailaren 24an eta 25ean izango da hori.

Talde giro aparta

Aurrean nor ibiliko den nabarmentzea zaila dela aitortu du Labakak. Hala ere, norbanakoak nabarmendu beharrean, talde lana nabarmendu nahi izan du entrenatzaileak: "Taldekoroa oso ona da, eta, horren ondorioz,

talde moduan oso emaitza onak lortzen gabeiltza". Hala, orain arteko lanak kontuan hartuta, Gipuzkoako Kopan bigarren postuan daude bergararrak, Bidasoaren atzetik. "Gipuzkoako Kopan pertsona bakoitzak hiru proba egiteko aukera dauka, eta emaitzen arabera puntu batzuk lortzen dira. Emaitza horiekin egiten da sailkapena", dio.

Entrenatzeko modua

Labaka Mikel Muxikaren laguntzailea izan zen iaz; hala, hark hasitako bideari jarraipena eman nahi dio: "Lan egiteko modu berdintsua dugu. Hau da, entrenamendu metodoa nolakoa izan behar den erabakitzerakoan, berdina pentsatzen dugu".

Beste garai batzuetan, "uretan bakarrik" egiten zituzten entrenamenduak; bada, hori aldatu egin dute eta igeriketa saioei beste saio batzuk gehitu dizkiete: adibidez, gimnasioko lana edo irteerak eta birak lantzea. "Denbora luzeagoa eskaini behar da modu honetan", gaineratu du. Uretan sartutako orduen emaitza denboraldian zehar ikusiko den ilusioz daude.

URETAN EGINDAKO SAIOEI BESTE LAN BATZUK GEHITZEN DIZKIETE; GIMNASIOA, ESATE BATERAKO



AITOR ERANA

Animo mezuak Donostiako maratontik

Donostiako maratontik egon ziren irudiko bergararrak aurreko domekan –batzuek maratontik erdia egin zuten–. Lan polita egin zuten guztiek ere. Sailkapenari begira jarrita, Arkaitz Ruiz de Loizaga izan zen azkarrena, 2.50.41eko denborarekin; Edu Moreno helmugaratu

zen ondoren, 2.53.46 eginda; eta Josu Lete hirugarrena (2.56.31). Emakume azkarrena, berriz, Maria Sanchez izan zen (3.46.28). Parte-hartzaileek animo mezuak izan zituzten gaixo dauden Anselmorendako eta Luismirendako.

Azkeneko porrotak ahaztu behar dituzte eskubaloit taldekoek

Eskubaloian, Bergarak etxean jokatuko du, zapatuan, 18:30ean, Leitzaranen aurka. "Partidu garrantzitsua izango da; izan ere, azkeneko bi porroten ondoren irabaztea ezinbestekoa izango dugu", azaldu du Josetxo Muniategik, eskubaloit saileko kideak. Azken partiduetako defentsa maila hobetu egin behar dute bergararrek garaipena lortzeko. Muniategik nabarmendu du taldean min hartutako asko daudela eta hori ere bade-la azken emaitza kaxkarren arrazoietakoa bat.

Etxeko taldea zazpigarren postuan dago, sei punturekin; eta Leitzaran bederatzigarren, lau punturekin.

Donostian jokatuko du gaur Soralue BKE saskibaloit taldeak

Donostian jokatuko dute gaur, egubakoitza, saskibaloit taldeko mutilek; Santo Tomas Lizeoa Azkuneraren aurkako lehia izango da, 20:00etan, lizeoan bertan.

Bergara Soralue taldea bosgarren tokian dago sailkapenean, 16 punturekin; Santo Tomas Lizeoa, aldiz, puntu bakarrera dago bigarren postuan. Bergarako mutilek galdu egin zuten joan zen aste bukaeran etxean jokatutako lehia, 39-47, Oiarzungo Saskilagunak taldearen aurka. Bada, garaipen egarriz irtengo dira gaur mahoneroak Donostiako kantzara. Denboraldiko hamargarren jardunaldia izango da aste bukaera honetako.

Erretiratuen abesbatzen emanaldiak Santa Marinan

Abenduaren 14an eta 15ean izango dira topaketak; bailarako lau abesbatza izango dira; tartean, Bergarako San Joxepekoa. 25 urte horietan abesbatzan kantuan ibili diren sei lagun omenduko dituzte egubakoitzeko emanaldiaren ondoren

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Gipuzkoako abesbatzen topaketak egingo dituzte abenduaren 14an eta 15ean San Marina elizan. XVIII. topaketa izango da aurtengoa, eta Bergarako erretiratuen elkarteak izango du aurtengoa antolatzeke ardura, besteak beste, 25 urte bete dituelako aurten abesbatzak.

Topaketa egunean hasiko dute. Santa Marina elizan egingo dute emanaldia, 16:30ean. Parte hartuko duten abesbatzak izango dira: Anaiarte Biltokia, Mutriku; Aiton Borda abesbatza, Lezo; Kasino Zaharra, Hondarribia; Gure Kabia, Añorga; Zeba, Olabarria; Biyak-bat, Lasarte-

Oria; Gurea, Beasain; eta Basotxo Aretxabaleta.

Egubakoitzean, etxeokak

Egubakoitzean egingo dute topaketaren bigarren emanaldia. Leku eta ordu berean izango dira kontzertuak. Zortzi abesbatza igoko dira oholtzara kantuan egitera, baita etxeok abeslariak ere. Partaideak izango dira: Orobione, Lazkao; Abaroa, Arrasate; Pake Leku, Oñati; Umore Ona, Ordizia; Goizalde, Urretxu-Zumarraga; Nao Etxea, Altza; Centro Social Unzaga, Eibar; eta San Joxepe, Bergara.

Abesbatza bakoitzak lau pieza abestuko ditu, eta horietako bat

Gabon kanta bat izango da. Abesti herrikoiak izango dira gehienak, guztiendako doinu ezagunak izango dira.

Omenaldia egingo dute

Orain dela 25 urte hasi zuen ibilbidea Bergarako erretiratuen abesbatzak; orduan hasi zituzten artean, sei lagunek jarraitzen dute gaur egun. Bada, sei lagun horiek omenduko dituzte hilaren 15ean egingo duten emanaldian: Karmelo Santorcuato, Honorio San Prieto, Fernando Azkarate, Nati Albisua, Mari Tere Etxaniz eta Justina Larrañaga. Ondoren, afaria egingo dute elkarrekin.

Beartek erakusketa irekiko du Aroztegin abenduaren 8an

Abendu erdialdean egingo dute erakusketa Bergarako artistek, Aroztegi aretoan. Abenduaren 8tik 17ra jarriko dituzte lanak ikusgai. "Urtero egiten dugun moduan, Gabonei begira egingo dako erakusketa izango da", azaldu du Maite Azkargortak, Bearteko kideak.

Bazkideen lanak jarriko dituzte ikusgai; guztira, 50 bat

bazkideren lanak. "Bazkide bakoitzak lan bat jarriko du ikusgai: batzuk pinturak izango dira eta beste batzuk, eskulturak", dio Azkargortak. Ikusgai egongo diren lan gehienak margolanak izango dira, baina bi eskultura ere egongo dira.

Aroztegi orduetegiaren ondokoa izango da: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Bazkideen eskaerei erantzunez, bueltan dator kantu afaria

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarteak /

BERGARA

Azkeneko urteetan antolatu ez den arren, aurten berriro ere bueltan da Jardunek antolatzen duen kantu afaria. Bazkide batzuek egindako eskaerari erantzuna emanez antolatu da afaria, eta jendearen artean ilusio handia nabari da gainera!

Afaria abenduaren 15ean izango da, egubakoitza, 21:30ean hasita, Artatse elkartearen. Afari prezio arrunta 15 eurokoa izango da; eta, Jarduneko bazkideek 12 euro ordaindu behar dute. Bestalde, menuaren inguruko ohar garrantzitsu baten berri ere eman nahiko genuke: norbaitek menu bereziren bat behar izanez gero –vegetarianoa, glutenik gabekoa...– lasai eska dezake Jardunen bertan. Hasi ahotsak prestatzen hilaren 15erako!



Hasi gara, urtero bezala, artisau-turroiak egiten.

Gogorra - Biguna - Gorringo txigortua - Pistatxoa
Pontxe errusiarra - Laranja trufa - Cadiz - Txokolate pralina - Fruta
Deitu eta eska itzazu!

Ozaeta jauregia BERGARA | 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es | reservas@restaurantelasa.es | FB: koldolasajatetxea



LASA jatetxea

Afariak ostiral eta larunbat gau guztietan gure jangela berrian.
Gin jator eta atsegina. Musika-aureraketa onena.

Menuak aukeran

Eguneko menua: 29€
Karta berezia: 36€
Afari erromantikoa: 40€
Debagoiena: 48€

(BEZ barne)

Kinto-afari, despedida eta beste ospakizun batzuetarako aproposa.

Gabon jaietan abenduaren 24tik urtarrilaren 3ra ibiltu



Herritarren aurrean lan txukuna egiteko erronka

Duela urtebete ekin zion berriz ere prestatzeari Imanol Albizu 'Goikoetxe' -k. Pozik dago lortzen ari den emaitzekin. Bihar, Elgetako frontoian jokatu du Gabonetako harri-jasotze kopako kanporaketa. Finalerdietarako txartela du helburu nagusi

Larraitz Zeberio ELGETA

Bi kanporaketa jokatu dira bihar, zapatua, Elgetako frontoian. Urrezko Aizkolari Kopa jokatu dute Ugaitz Mugertzak eta Ruben Saralegik, eta Gabonetako harri-jasotze kopa Xabier Peñagarikanok eta Imanol Albizu *Goikoetxe*-k.

Kopako bigarren kanporaketa du Albizuk, eta eskura du finalerdietarako txartela. "Ondo ikusten dut neure burua, baina gainerakoek ere jaso egiten dute, eta ikusi egin behar zer gertatzen den!", dio elgoibartarrak. "Ea nerbioetatik zelan ibiltzen naizen, hori izaten baita nire arazoetako bat".

Orain urtebete hasi zen, berriz ere, prestatketa lanetan. Abuztuan jokatzekoa zen Mallabiko txapelketa zuen jomuga. Luze egin zaio urtea. "Gogoan ditut hasierako entrenamenduak. Bi jasaldi egin eta hirugarrena egiteko gauza ez zarela ikustea oso gogorra da". Baina gauzak ondo joan zitzaizkion Mallabian eta bigarren egin zuen Mikel Lopetegi *Urra*-ren atzetik.

Biharko saioan aurrez aurre izango duen Xabier Peñagarikanoren gainean esan du Aizarnazabalgo gaztea lan politak egiten ari dela. "Mallabian hirugarren egin zuen, eta, bi mi-



Imanol Albizu *Goikoetxe* martitzenean Elgetako plazan. L.Z.

nutuko lanak direla kontuan hartuta, ez dago tarte handirik. Dena egin behar duzu ondo. Gauza justu samar egongo da".

Bi minutuko hiru txanda egin beharko dituzte harri-jasotzaileek: jaialdia hasi eta berehala zilindroarekin eta kubikoarekin, eta aizkolariak lana amaitutakoan bolarekin. "Bola gustatzen zait gehien. Zilindroarekin ere nahiko gustura ibiltzen naiz. Nire kontrarioa kubikoa da".

Azaroaren 12an jokatu zuen Albizuk Gabonetako harri-jasotze kopako lehenengo kanpora-

keta. Mateo Coloma gelditu zen txapelketatik kanpora. "Saio hura ondo joan zen. Eroso eta gustura ibili nintzen", azaldu du Elgoibarkoak.

Biharko saioa 19:30ean hasiko da eta prezioa 15 euro da. Harmailetatik zelan lagundu galde-tuta, irribarretxo egin, begirada jaitsi eta haxe dio, argi: "Zarata atera!". Jaialdia Elgetan egitearekin gustura azaldu da Albizu: "Ea afizio pixka bat sartzen den". Gauzak horrela, ea kanporaketa gainditu eta txapelketan aurrera egiten duen.

Ospakizunerako gai izango da euskara domekan

EUSKARAREN
EGUNA 2017

Urteko gainerako egunetan lanerako gai den moduan, hainbat ekintza daude antolatuta herrian etzirako

L.Z. ELGETA

Soziolinguistika Klusterrak Uemarendako egindako azken neurketaren arabera, euskararen kaleko erabilera, Elgetan, %61,8 da. Datua hobetu egin daiteke, eta Euskararen Eguna aukera da egiteko dagoen bidea agerian jartzeko. Hala, Euskara batzordeak hainbat ekintza iragarri ditu domeka eguerdirako. Euskararen mahaia ipiniko du Udalak, 11:45ean, plazan. "Askotariko informazioa jarriko dugu herritarren eskura: liburu-markagailuak Elgetan Berbetan

mintzalagun taldeen inguruko informazioarekin, euskara ikasteko Elgetan dauden baliabideekin egin dugun gida bat, euskara ikasteko liburutegian daude euskarriak...", esan du Euskara zinegotzi Janire Lazkanok.

Ekintza ludikoak 12:00etan hasiko dira. Eskolako neska-mutikoek bertso eta kantu saioa egingo dute, eta 12:30ean *clown* ikuskizuna egingo du herritar batek udaletxean. Amaitutakoan, kalejira dago antolatuta eta salda eta txorizoa banatuko dute seigarren mailako ikasleek.

Kultura Astea eta parke berria erretiratuendako

Elgetako Udalak hasi ditu Bolatoki inguruan nagusiendako parkea egiteko lanak. Iraitz Lazkano alkateak jakinarazi du sei makina ipiniko dituztela gorputz osoa lantzeko.

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak, berriz, Kultura Astea iragarri du. Abenduaren 12tik 15era bitartean egingo dute eta Oroimenak Antzerki Taldearen *El moderno* antzezlan, Bergarako Alai Taldearen emanaldia, bingo saioa eta Gabonetako luntxa daude egitarauan. Lehenengo bi ekintzak Espaloia kafe antzokian izango dira eta beste biak, Ozkarbi elkartearen. Bazkide guztiak daude parte hartzera gonbidatuta.

OHARRAK

Pilota txapelketa

Gaur, 18:30ean, bost partiduko jokatu dira frontoian.

EH Bilduk batzarra

Gaur, 19:30ean, batzar irekia egingo dute udaletxean, eta jarraian afaria. Balorazioa, 2018ko aurrekontua eta plangintza landuko dituzte.

Okzitaniako dantzak

Zabalik dago hilaren 7ko ikastarorako izen-ematea. Argibideak, herrixadantzan@gmail.com helbidean.

'Go!azen'

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak jakinarazi du ia agortuta daudela hilaren 9ko bi emanaldietarako sarrerak.

Dakitenek erabiliz, ez dakitenek ikasiz,
herri bat osaturik **euskaraz** nahi dugu bizi!



Bertakotasuna zabaldu gura du Turismo Bulegoak

Oñatiko ekonomiaren %10 turismotik dator. 2016ko datuen arabera, urtebeteen bi milioi euro inguru utzi du sektore horrek herrian. Bisitariak herriko produktoreekin harremanetan jartzeko bideak lantzea da aurrera begira duten erronketako bat

Oihana Elortza OÑATI

Turismoarekin lotura duten herriko eragile ezberdinak zeuden gonbidatuta Turismo Bulegoaren 15. urteurreneko ospakizun ekitaldira eta poliki-poliki bulegoa betetzen joan zen eguazten iluntzean. "Turismoak Oñatin duen pisua euren lanagatik ere badelako, eskerrak emateko ekitaldia izan da", zioen Ikerne Altubek amaieran.

Garrantzia

Hantxe ziren, adibidez, Natura Eskolako langileak, Artixa elkarteak, herriko hainbat dendari, Arantzazu Gaur fundazioko ordezkariak, Nazioarteko Soziologia Institutukoak, landetxe eta ostatueta jabeak, herriko argazkilari eta ilustratzaileak, baita EAJ eta EH Bildu alderdietako udal zinegotziak, egun Turismo Bulegoan eta Arrikruz kobetan gidari lanetan ari diren Oinatour kooperatibako langileez gain. Oier Yaniz gaztea ere gonbidatuen artean zegoen. Hark egindako bideoarekin hasi zuten ekitaldia.

Duela 27 urte zabaldu zuten lehen Turismo Bulegoa Oñatin, Foruen plazan, eta harrezkero turismoak herrian izandako gorakada handia izan dela aipatu zuen Ikerne Altubek. "25



Bertako produktuak egon ziren ekitaldiko luntzean. O.E.

urtean 52.792 oñatiarrek erabili dituzte Oñatiko Turismo Bulegoko zerbitzuak, eta Oñatitik kanpoko 327.276 bisitarik".


Turismoaren pisua gero eta handiagoa da Oñatin eta horren jakitun da herriko Udala ere. 2016ko datuen arabera, urtebeteen bi milioi euro inguru uzten du turismoak, enpresetatik datorren jendea eta oporretara datorrena hartuta. "Industria herria da Oñati, baina herriko ekonomiaren %10 turismotik dator, eta hori oso esanguratsua da", azaldu zuen eguazteneko

ekitaldian Ana Martinek, Sozioekonomia zinegotziak.

Bertako produktuak eta bertako nortasuna indartu eta zabaltzeko gura dituztela gaineratu zuen Martinek, eta horrek bat egiten du Turismo Bulegoak dituen erronka berriekin: herriko produktuen erakusleho izan eta egileen eta turistaren arteko harremana indartu eta erreserba bateratuak eskaintzeko plataforma sortu sarean.

Herriko gazta, txakolina, txokolata, ogia, bizkotxoa eta maldalenak egon ziren luntzean.

Nola egiten duzu lan turistekin?



MERTXE ESNAOLA
ARREGI LANDETxea

"Zubi edo opor egunetan bakarrik ez, gainerako egunetan ere izaten ditugu turistak, eta ondo moldatzen gara, bai. Hala ere, gustatzen zaigu logela batzuk gordetzea bertakoendako, kanpotik datozen euren senide edo lagunendako".



JON ELORTZA
POTTOKALEKU

"Neguan gutxiago egiten dugu lan eta beste urtarotetan gehiago. Bilbotik, Donostiatik eta Eibartik etortzen dira, adibidez, baita Txiletik edo Kolonbiatik ere. Ingurunearekin harrituta gelditzen dira denak, zoragarria dela diote".

Irteera

Abenduak 2

• **Dolos eta Karmenekin Oñati ezagutzen.**
Turismo Bulegoa. Doan.
12:00etan.

Abenduak 6-10

• **Oñatiko altxorrak.**
Turismo Bulegoa. 4 euro.
13:00etan eta 17:00etan.

Abenduak 8

• **Ignaziotar lurraldea gauez.** Turismo Bulegoa.
3 euro. 18:00etan.

Abenduak 17

• **Errota martxan, labea bero-bero.** Turismo Bulegoa.
3 euro. 10:00etan.

Abenduak 23 eta 30

• **Espeleotxiki.** Arrikruz-Oñati kobak. 10:00etan.
15 euro.

Abenduak 23

• **Kandelen gaua.** Sancti Spiritus unibertsitatea.
18:00etatik 20:00etara.
Doan.

Abenduak 29

• **Saguzarrak, gure ezkutuko lagunak.**
Arrikruz-Oñati kobak.
10:00etan. 4 euro.

Urtarrilak 5

• **Armarri artean jolasten.**
Turismo Bulegoan.
11:00etan. Doan.

Izena aurrez eman behar da: turismo@onati.eus edo arrikruz@onati.eus.



www.lana.eu





Gauargi taldea. GOIENA

EUSKARAREN
EGUNA 2017

Euskararen aldeko egitarau zabala gaur

Domekan izango da Euskararen Nazioarteko Eguna, eta, azken urteetan bezala, Oñatiko hiru ikastetxeek Udalarekin batera elkarlanean egitarau zabala prestatu dute gaurko. Guztira, 900 ikasletik gora parte hartuko dute antolatutako ekintzetan

Josu Bilbao OÑATI

Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna, baina Oñatiko hiru ikastetxeek Udalarekin batera elkarlanean egitaraua prestatzen dutela kontuan hartuta, gaur izango dira ekintza nagusiak, ikasleek bertan parte hartu ahal dezaten. Izan ere, guztira, Elkar Hezikoi,

Txantxiku Ikastolako eta Urgain Eskolako 900 ikaslek baino gehiagok parte hartuko dute egun osoko egitarauan.

Atzo eman zioten hasiera egitarau zabalari, Makalena elkarrekin egin zen afari-tertuliarekin. Bertan, Beñi Agirre Nabarraldeko kideak *Euskararen iraupenaren misterioa* hitzaldia egin

zuen. Izan ere, Agirrek *Gipuzkoako historia nafarra* liburua aurkeztuko du aurten Durango-ko Azokan.

Gaur, bestalde, goizean ekingo diote ikasleek egunari. Batxilergoko ikasleek *Hozkailua* antzerkia ikusiko dute Santa Ana antzokian, eta, emanaldiaren ostean, Ander Lipus eta Patricia

Urrutia aktoreekin solasaldi irekia izango dute.

Bazkalostean, 14:45etik aurrera, LH-1 eta LH-6 maila arteko ikasleek *Euskaraz Bizi!* ekitaldian parte hartuko dute. LH-1 eta LH-2 mailetakoko ikasleek munduko jolasak egingo dituzte kiroldegian eta LH-3 eta LH-4 mailetakoei ginkana kooperatiboa egingo dute kaleetan zehar. Eguraldi kaskarra eginez gero, berriz, kiroldegian egingo dute ginkana. Gainera, LH-5 eta LH-6 mailetakoko ikasleek Gauargi taldearekin batera dantzaldia egingo dute Oñatiko plazan –eguraldi txarra bada, gaztelekuan–.

Arratsaldeko lau eta erdietan Txantxariak kaleko musikariak ibiliko dira, eta familientzat jolas saio musikatuak egongo dira azokan. 17:45ean, txokolatea doan banatuko dute ikastetxeetako guraso elkarteek plazan, eta ikasleek euskararen aldeko mezua izango duten bizkotxoak salduko dituzte euro baten truke. Lortutako dirua ikas bidaiearako izango da.

18:00etatik aurrera, gainera, urteroko ohiturari jarraituz, euskal kantuak abestuko dituzte udaletxeko kontzejupean, musika eskolako musikarien laguntzarekin. Eguna amatzeko, berriz, gertatzen den guztiaren berri emango du ikastetxeetako ikasleek osatutako kazetari talde batek, eta informazioa Goienan eta beste hedabide batzuetan zabalduko dute.

Datuak, baikorrak

Aurten, Oñatiko erabilera datuak aztertu eta ezagutzera eman dituzte, eta "pozteko" modukoak direla azpimarratu du Iñaki Akizuk, Euskara teknikariak: "Zentzu horretan, aurrera goaz. Erabilera datuak lau urtean behin aurkezten ditugu neurketen ondorioz, eta lau urtetik lau urtera emaitzak gero eta hobeak dira. Oñati euskaraz bizi den herria dela erakusten dute, eta hori aldarrikatu nahi dugu. Ekitaldi hauekin, beraz, jai giroan ondo pasatzea eta euskara sustatzen jarraitzea da helburua".

"Uemako herrietan erabilerak behera egin duen sentsazio moduko bat badago, eta nahiko orokortua da. Horren gainean hausnarketak eta balorazioak egiten ari dira, eta, Oñatiren kasuan, aurrera egiten dugula erakusten dute datuek. Lehendik euskara dezente erabiltzen zen herrian eta geroz eta gehiago erabiltzen da. Beraz, gauzak ondo egiten direnean, emaitzak ere etortzen dira. Horrela gertatzen ari da Oñatiren kasuan. Guretako, pozteko moduko datuak dira", azaldu du Iñaki Akizu teknikariak.

OÑATIKO HIRU IKASTETXEEK ELKARLANEAN LANDU DUTE EGITARAUA, BESTE URTE BATEZ



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Abendua

Urteko azkenengoa, neguko lehenengoa, ospakuntzarako pentsatua, abendua.

Arrandegiko eta harategiko zati ederrenak laster izango dute jabea: "Mesedez, ona eman gero, egun berezira da eta!". Kaleak Gabon giroz jantzi ditugu, eta etxeko txikienak ere jabetu dira horretaz: "Non da Olentzero orain? Aurten ere etorriko al da?".

Batzuei tristura edo nostalgia sortzen die giro honek: "Etxeko aulki hutsa gehiago nabari dut garai honetan, eta nahiago nuke argi guztiak itzali...". Familia arteko harremanak ere proban jartzen dira eta hausturak eta bakardadeak gogoan izango dira zerenbait etxetan.

Beharbada, zurean, belaunaldi ezberdinetako mahai-inguru aberatsa izango duzu: batzuek, gorputza dantzan jartzen duen edozein abesti zoro nahiago; beste batzuek, berriz *Hator*, *hator* edo *Olentzero* noiz abestuko larri. *Belen-en sortu zaigu Jainkoa* egiaz ospatu eta kantatuko duena ere izango da. Dena delakoa, izan daitezela egun bizigarriak!

Oñatiko artisauen azoka abenduaren 17an egingo dute

Euren lanak erakusteko eta saltzeko hogeitaz artisau inguru batuko dira Foruen plazan egingo den azokan

J.B. OÑATI

Abenduaren 17an, domekan, egingo dute aurtengo Gabonetako azoka herriko artisauak. Guztira, herriko ia hogeitaz artisau elkartuko dira, 10:30etik 13:30era arte, Foruen plazan, euren lanak erakusteko eta saltzeko asmoarekin. Euria egiten badu ere, bertan egingo dira artisauak, karpak eramatea aurreikusita dute eta. Kosmetika naturaleko produktuak, egurrezko eta harritzko lanak, erabilitako jostailuak, euskal zeramika, bitxigintza, jositako arropak eta beste



2015eko artisauen azoka. GOIENA

hainbat produktu ikusi eta erosi ahal izango dira.

"Oraingoaz, hemeretzi artisau animatu gara parte hartzera eta egongo den aukera zabala izango da. Egongo dira, adibidez, egurrez eta harriz egindako jostailuak, jositako arropak, teknika ezberdinak erabilita egindako bitxiak, euskal zeramika, egurrekin landutako objektuak, kosmetika naturala eta bizikleten pneumatikoekin egindako gerrikoak. Jakiak ere egongo dira, gainera", dio azokan parte hartuko duen Ainhoa Aranburuzabalak artisauak.

Horrez gain, Eltzia egongo da azokan. "Eltziako informazioa zabalduko duena. Han nortzuk dauden, zer eta nola lan egiten erakutsiko dute", dio Aranburuzabalak.

Musika, literatura eta emozioak bat eginda

'Saio linbikoak' ekimena egongo da kultura etxeko liburutegian. Hiru hitzordu biltzen ditu, eta abenduaren 15ean egingo dute lehenengo saioa. Musika, literatura eta emozioak uztartu gura ditu egitasmo horrek

Iker Oñate OÑATI

Saio linbikoak izeneko proiektuan murgilduko da kultura etxeko liburutegia estreinakoz; abenduaren 15ean egingo dute lehenengo saioa, 19:00etan hasita. Eta Estankona musikariaren bisita izango da egun horretan. "Lan pedagogikoa egin gura duen egitasmoa da, kulturaren garrantziaz jabetzera bidean", argitu du Jon Gondrak, ekimenaren bultzatzaileak. Horren ostean, beste bi saio izango dira gozagai: otsailaren 16an eta apirilaren 20an. Rafa Rueda eta Eneritz Furiya musikariek jardungo dute saio horietan.

Aipatu beharrekoa da beste inon egin gabeko ekimena dela musika, literatura eta emozioak uztartzearena; Oñatiko liburutegia izango du estreinarako txoko. "Bertako arduradunek hasieratik erakutsi digute proiektua dastatzeko interesa. Plazera da Oñatin estrainiatu ahal izatea, kulturalki herri aberatsa baita", azaldu du Gondrak.

Musika, literatura, emozioa...

Egitasmo berritzailea da, hainbat alor uztartu gura dituen. Musikari batek bideratzen du saioa: sei abesti eskaini eta berretzat esangura handikoak diren pasarte literarioak aurkeztuko



Estankona musikariak jardungo du lehen saioan. ESTANKONA

dizkie parte hartzaileei. Bertaratutakoen emozioak astintzea da helburua. "Emozio bati lotuta egongo da kantu bakoitza. Modu horretan, emozioen munduan barrena bidaiarazi gura zaio bertaratutakoari", argitu du Gondrak.

Bultzatzaileen ustez, bestetik, egitasmoarentzat txoko "egoki" dira liburutegiak: "Ekintza intimoa gura du izan, eta horretarako txoko ederrak dira liburutegiak. Leku zabalago batean zailagoa litzateke helburua lortzea". Oro har, esan daiteke

liburutegietarako propioa erakitako egitasmoa dela.

Eskaintza zabaldu guran

Azkenaldian, kultura etxeko liburutegiaren eskaintza sorta hedatzeko ahaleginean dihardute arduradunek. "Ohiko hitzorduez aparte, bestelako ekimenak eskaini gura ditugu. Liburutegia ere kultura ekintzetarako espazio da", dio Arantzazu Ibarrondok, liburuzainak. "Harrera ona izaten dute halako egitasmoek; jendea gehiagoren eske datorkigu", gaineratu du.

Egitarau oparoa, gaur hasita, Antixena gaztetxean

Bosgarren urteurrenaren ospakizun hilabetearen sartu da gaur Antixena gaztetxea; egitarau berezia prestatu dute abendurako. Asteburuan jada nabariko da hori, era askotako ekintzak antolatu baitituzte. Gaurko finkatu dute lehen hitzordua: bertso saioa egongo da, 19:00etan hasita. Hain zuzen, Aitor Bizkarra, Odei Barroso, Miren Ar-

tetxe eta Maider Arregi bertsolariak jardungo dute agertokian.

Horrez gain, beste bi hitzordu daude finkatuta astebururako. Batetik, metal festa antolatu dute biharko; 21:30ean hasiko da Late To Scream, Hilotz eta Broken Legacy musika taldeen kontzertua. Eta, bestetik, haurrentzat ere izango da hitzordurik: ipuin kontalaria eta eskulanak egongo dira domekan, 17:00etan hasita. 3 eta 8 urte bitartekoentzat ipuinak kontatuko ditu Ane Gebarak.

Inauterietako dantzariak entseguei ekingo diete

Gero eta gertuago daude Inauteriak, eta horren bueltakoak hasiak dira prestakuntza lanetan. Azken urteetako ohiturari jarraituz, zapatuan dantzariak jardungo dute herriko kaleetan; hain zuzen, otsailaren 10erako finkatu dute hitzordua.

Gauzak horrela, jada zehaztuta dituzte entsegu egunak. Abenduaren 12an egingo dute lehe-

nengoa; eta, ostean, martitzenero -20:00etan- eta zapaturo -12:00etan- elkartuko dira kalejirako parte hartzaileak, Oñatz dantza taldeak Errekalden duen egoitzan.

Horrekin lotuta, antolatzaileek 16 urtetan finkatu dute adin muga; hortik beherakoek ezingo dute esku hartu ekimenean. Eta, jakinarazi duten, dantzariak ere badihardutela kalejiran: "Dantza egin gura ez duenak, pertsonaia bezala jarduteko aukera du".

Bolada onari helduta segi gura dute Aloña Mendiko mutilek

Pozik egoteko moduko denboraldi hasiera egiten dihardu Aloña Mendiko futbol taldeak: lehen postuan dira, eta zazpi puntura dituzte bigarren sailkatuak. Hala, orain arteko bigeari helduta segitzen ahaleginduko dira asteburuan, Aretxabaletaren aurkako derbian. Domekan dute hitzordua, Azkoain, 16:30ean.

Kirol sarietarako hautagaiak jakinarazi dituzte

Herriko kirol sarietarako hautagaiak jakinarazi dituzte. Aurtengo, lau kirolariren artean aukeratu beharko dute herritarrek: Nerea Diaz igerilaria, Ihanire Urteaga triatleta, Jon Altube txirrindularia eta Xabi Lete mendi lasterkaria. Abenduaren 20ra bitartean egongo da botatzeko aukera. Eta abenduaren 22an banatuko dituzte sariak.

ENE! 2017
Euskararen Nazioarteko Eguna



Abenduak 1, ostirala

12:00 Batxilergoko ikasleentzat "Hozkailua" antzerkia.
14:45 LH-ko ikasleentzat munduko jolasak, ginkana, dantzaldia...
16:30 Txantxariak, kaleko musikariak
18:00 Euskal Kantu saioa. Txokolatea banatuko da

Antolatzaileak:



OÑATI
dabilen herria



Txantxiku
Ikastola





Ziklistak, 2015ean, Arrasateko zirkuituko zonarrik teknikoenean. ASIER ATXA

Goi mailako izenak Arrasateko lasterketan

ZIKLO-KROSA Domekako probak goi mailako ziklistak batuko ditu Markuleten. Aitor Hernandez eta Ruiz de Larrinaga aurrez aurre izango dira lehenengoz Arrasaten, eta Bahrain Merida taldeko Gorka Izagirre ere irteera puntuan izango da

Xabier Urzelai ARRASATE

Domekan egingo dute Arrasateko III. ziklo-krosa, eta aurrez, orain arteko lasterketa erakargarriena izango da. Ibilbideari dagokionez ez dago aparteko nobedaderik, Markuleten izango da eta antolatzaileek aldaketa txikiren bat edo beste egingo dute, baina kirolariak eurak dira lasterketa bat handi egiten dutenak, eta domekan puntako ziklistak batuko dira irteera puntuan.

Hernandez eta Larrinaga

Elite mailan (13:00), joan den astean Lezaman irabazi zuen Aitor Hernandez da faborito nagusia, baina orduan Javier Ruiz de Larrinagak ez zuen lasterketan parte hartu, eta domekan irteera puntuan izango da. Euskal Herriko ziklo-kros ordezkari onenetakoak inoiz ez dira Arrasaten aurrez aurre egon, eta domekan bien arteko lehia ikusi ahal izango dute zaleek. Ez euren artekoa baka-

rririk; izan ere, Asier Munitxa –Berrizen bigarren– eta Iñigo Gomez ere egongo dira lasterketan. Eta, berez, lasterketa irabazteko ez badago ere, Gorka Izagirre World Tourreko ziklistaren parte-hartzeak ere arreta piztu du: "Dakigunez, Bahrain Merida taldeak eskatu dio urtarilerako sasoian egoteko, eta ziklo-krosa erabili gura du sasoi puntua hartzeko. Eta badakit ez dela paseatzera etorriko, due-na ematera etorriko da. Hiru lasterketa egiteko baimena eman diote, aurreko astean Lezaman egon zen –podiumera igo zen– etzi Arrasaten egongo da eta Euskadiko Txapelketan parte hartzeko asmoa du, Izarran, abenduaren 30ean", dio Zigor

ELITE MAILAN LEZAMAN IRABAZI ZUEN AITOR HERNANDEZ DA FAVORITOA

Urainek. "Izagirretarrak lehenago ere lehiatu izan dira gurekin ziklo-krosean, gazteak ginenean. Eta aita bera Espainiako txapeldun izandakoa da; horrenbestez, ziklo-krosa ez da berria eurendako. Lezaman hirugarren sailkatu zen Izagirre, baina Larrinaga eta Hernandez koska bat gorago daude orain momentuan. Eta Markel Uriarte aretxabaletarrak ere parte hartzeko asmoa du".

09:45ean hasita


Domekan, master mailako ziklistak izango dira zirkuitura sartuko diren lehenak, 10:45ean kadeteak lehiatuko dira eta 11:30ean gaztetxoek txanda izango da; federatuta egon barik ere, Dorletako Amako antolatzaileek ziklo-krosa sustatzeko helburuarekin lasterketa antolatuko dute –bizikleta norberak eroan behar du–. 12:00etan gazte mailakoak eta emakumezkoak lehiatuko dira eta 13:00etan, eliteak eta 23 urtez azpikoak.

"Baldintza onak izango ditugu etzi"


Amateur mailan lehiatzen zenetik ia 20 urte pasa dira, baina Zigor Urainek bizikleta gainean gozatzen jarraitzen du. Enduroak harrapatu du azkenaldian, baina ez du ziklo-krosa baztertu gura, nahiz eta lehen baino lasaiago dabilen. Dorletako Amako lagunekin batera antolatzaile lanetan dabil arrasatearra: "Zortea izan dugu egutegiarekin, eta, kasualitatez bada ere, izen handiak datoz domekan. Iaz Arrasateko lasterketak Espainiako txapelketarekin bat egin zuen, eta ziklista asko kanpoan egon ziren [Valentzian]. Domekan, berriz, oso jende ona izango dugu gurean".

Hotz, baina euri barik

Eguraldiari dagokionez, berriz, domekarako txukundu egingo duela diote iragarpenek: "Domekan lasterketa ikusteko baldintza aproposak izango ditugu: ateri egongo da, lokatza izango dugu... Ziklistendako, berriz, hotz egingo du eta zirkuitua nahiko tekniko egongo da, baina lasterketa polita ikusi ahal izango dugu. Tunelaren inguruko belardiak bigunagoak dira, baina helmugako zuzeneko belardietan zorua gogor egongo da. Ea jendea ikustera etortzen den".



Zigor Urain. ASIER ATXA



Beñat Arnaiz Donostian. B.A.

ATLETISMOA Arnaiz eta Arregi, helburuak beteta maratoian

Donostiako maratoian lan azpimarragarria egin zuten Aretxabaleako Beñat Arnaizek eta Arrasateko Nere Arregik. Arnaiz sailkapen orokorrean zortzigarren sailkatu zen, lasterketa erdi bakarrik egin eta gero (2.28.49), eta Nere Arregik oinean izandako lesiotik poliki-poliki errekupekatzen dabilela erakutsi zuen, Gipuzkoako txapela jantzita (2.58.26).



Mikel Madina, jaurti aurretik. GOIENA

ESKUBALOIA Fagor Industrialek Urduliz hartuko du

Joan den astean Urdanetaren kontra 31-32 irabazi eta gero, sailkapenean azken aurreko postuan dagoen Donibaneren bisita izango dute oñatiarrek Zubikoan. Hala, joan den asteko garaipenari esker berriro ere hirugarren postuan daude txantxiuak. Eta, Ford Mugarri Arrasatek, berriz, postu bat gorago dagoen Urdulizen kantxan jokatuko du.



Oñatin egindako azken saioa; taldeen babesletzaren gainean egin zuten mahai ingurua. ARTEMAN

"Kirol elkarteek erronka handiak dituzte aurrean"

'Kirol elkarteak eta komunikazio beharrak' izenburupean azaroan zehar egindako hitzaldi zikloaren gaineko balorazioa eskatu dio GOIENAK Kirol teknikari Asier Mujikari: "Positiboa izan da, eta datorren urtean jarraipena emango diogu"

Xabier Urzelai ARRASATE

"2015ean Debagoieneko Mankomunitateko Kirol Zerbitzutik inkesta bat pasa genien kirol taldeetako ordezkariak, euren beharrak zeintzuk ziren hobeto jasotzeko. Eta, hori oinarri, urte hartan kirol arloko lanbide kontratazioak zelan bideratu jorratu genuen. Iaz, berriz, kirol ekitaldien antolaketan kontuan izan beharrekoen gainean egin genuen berba. Eta aurten, komunikazioaren gaiari heldu diogu. Horretarako, AZK eta Arteman komunikazio enprekin jarri ginen harremanetan, eta eurekin batera antolatu dugu hitzaldi zikloa", adierazi du Asier Mujikak.

Saio emankorrak

Gustura geratu dira Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko saioek eman dutenarekin: "Arrasaten elkarte batek landu beharreko irudiaren gainean egin genuen berba, marka lantzeak duen garrantzia, eta, horretarako, Eibarko ordezkariak etorri ziren. Klub profesionala da, egia da hemengo klubek ez dituztela euren baliabideak, baina gauza interesgarriak esan zituzten, seguru hemengo taldeendako baliagarriak direnak".

Bergaran, berriz, sare sozialen eta komunikazio estrategien gainean egin zuten berba: "Bera Bera eta Araskiko emakumezkoen taldeetako ordezkariak

etorri ziren, eta baliabide xumeagoekin sare sozialetan oihartzun polita zelan lortu daitekeen azaldu zuten. Azkenik, Oñatin kirol taldeen babesletza izan genuen berbagai. Eta hor uste dut falta zaigula enpresei azaltzea kirol taldeek gizarte mailan zer nolako lana egiten duten: klubaren balioak zeintzuk diren, formakuntzan egiten den lana, zein balio dituen kirol talde horrek... Uste dut babesletza bilatzeko estrategia egokiagoa dela hori azaltzea, kirol emaitza konkretuak baino. Baina egoera ez da batere samurra kirol taldeendako, eta etorkizunean ere erronka handiak izan behar dituzte", adierazi du Mujikak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKU.

Lakua-Leintz Arizmen.
Zapatua. 18:00. Gasteiz.

OHOREZKO ERREGIONA.

Aretxabaleta-Touring
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Ordizia-Bergara
Zapatua. 18:00. Altamira.

Hondarribia-Mondra
Zapatua. 15:30. Ondart.

ERREGIONAL PREFERE.

Zestoa-Antzuola
Zapatua. 16:00. Iraeta.

Aloña Mendi-UDA
Domeka. 16:30. Azkoaga.

Bergara-Mondra
Domeka. 16:00. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA

Aretxab. UDA-Eguzki
Zapatua. 12:00. Ibarra.

EUSKADIKO TXAPELK.

Eskoriatza-Sestao
Zapatua. 18:30. M. Muño.

Mondrate-Bagituxak
Zapatua. 17:30. Musako.

EMAKUMEZKO SENIOR.

Eskoriatza-Idiazabal
Zapatua. 18:30. M. Muño.

SASKIBALOIA

EBA

MU-La Gallofa
Zapatua. 18:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

Aloña Mendi-La Salle
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Alkideba Ointxe-Take
Domeka. 17:30. Musako.

GIPUZKOAKO BIG. MA.

STL Azkune-Bergara S.
Gaur. 20:00. Dnostia.

EMAKUMEZKO SENIOR.

Eskoriatza-Atletico
Gaur. 20:15. Manuel M.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Fagor Indus.-Donibane
Zapatua. 18:00. Oñati.

Urduliz-Ford Mugarri
Domeka. 12:30. Urduliz.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

Errotabarri-Aloña Me.
Zapatua. 16:45. Ermua.

GIPUZKOAKO TXAP.

Tolosa-Sesiñena Aloña
Zapatua. 16:00. Usabal.

Soraluce BKE-Leizaran

Zapatua. 18:30. Labegar.

GIPUZKOAKO BIG. MAIL.

Arrasate-Bergara
Domeka. 11:45. Musakol.

ERRUGBIA
EUSKADIKO TXAPELKE.

Kanpan. ART-Gernika
Domeka. 12:00. Mojatagi.

PILOTA
SANTAMAS TXAPELKET.

Finalerdiak, gaur, Uarkapen (19:00).

PILOTA FEDERATUA

Oñati:
Gaur. 18:30ean hasita sei partidu. Zapatuan, 16:45ean hasita lau partidu.

Aretxabaleta:
Gaur. 19:00etan hasita hiru partidu.

Bergara:
Gaur. 19:15ean hasita hiru partidu.

Arrasate:
Gaur. 20:00etan hasita hiru partidu.

ZIKLO-KROSA

ARRASATE SARIA

Domekan, 09:45ean hasita, Markuleten.

Derbi bikoitza Preferentean

FUTBOLA Ohorezko Erregional Mailan UDA da etxean jokatu duen bakarra —domekan, Touringen kontra—, baina Erregional Preferentean derbi bikoitza izango da Debagoienean, eta biak domekan.

Batetik, lider dagoen Aloña Mendik Aretxabaleta hartuko du Azkoagainen (16:30) eta Bergarak Mondraren kontra jokatu du Ipintzan (16:00).



IMANOL SORIANO

Aurtengo erronka:

11 EGUN euskaraz

Domeka honetan **12:30ean** aurkezpena, **Irala kalean.**

Aurrez, **12:00etan ume-jolasak.**

Ondoren, **salda eta txorizo-pintxoak.**

Zatoz!



ANITA PARKER
Anita Parker
Mauka Musikagintza



EROMENA BESARKATZEN
Arkada Social
Mauka Musikagintza



Z.E.R.O.
Governors
Baga Biga



LUMAK
Huntza
Mauka Musikagintza



BIZITZAKO KOLOREAK
Juan Carlos Irizar
J. C. Irizar



DANBA!
John Andueza
Elkar



HAZIAK
Euskal Herriko Trikitixa Elkarte
Euskal Herriko Trikitixa Elkarte



ROCKANROLLA MAILU BAT DA
La Banda del Abuelo
Autoekoiztua



NONDIK HASI
Perlata
Autoekoiztua



MUNDUKO ZORIONA
Aitor Olea
Ausart Records



POTX ETA LOTX HERRIKO FESTETAN
Potx eta Lotx
Lanku bertso zerbitzuak



ZUKAFUKAMUSUKA
Judit Ruiz de Muniain
Txalaparta

Urteko kultura uzta eskuragarri

Abenduaren 6tik 10era izango da 52. Durangoko Azoka; Gerediaga elkarteak hainbat erakunderen eta elkarterekin batera antolatzen du. Goiena telebistaren eta 'Goiena.eus' eta 'Durangokoazoka.eus' atarien bitartez egin ahal izango da Azokaren jarraipena

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Euskal Herrian ekoizten den ia guztiaren erakusleiho eta salmenta-gune izaten da Durangoko Azoka. Ez dira urtean sortutako kultura ekoizpen guztiak izango, baina gero eta gehiago dira han egoteko saiakera egiten duten ekoizle txikiak.

Ekoizpen handiak eta txikiak Askotariko formatu eta generoetako idazlanak izango dira aurten ere. Argitaletxeen babesarekin izango dira batzuk: Elkarren standean izango da, esaterako, John Andueza arrasatearrak idatzi duen *Danba!*

eleberria; helduentzako idatzitako istorio indartsu batekin izango da oraingoan. Eguaztenean aurkeztu zuten, Donostian, Paula Badiola abokatuaren istorioa kontatzen duen liburua. "Emakume baten gorpua azaldu da Zugaztietako ur-putzuan. Eta gorpua hori iceberg makabro baten ageriko muturra besterik ez da", dio Anduezak. Txalapartaren mahaietan izango da, berriaz, Aretxabaletan bizi den Judit Ruiz de Muniainek Patxi Zubizarretarekin eta Jokin Mixelenarekin ekainean kaleratu zuen helduentzako *Zukafukamusuka* liburu erotikoa.

Ikastolen Elkartearen mahaian izango da, berriz, Ribas Arrasateko marrazkariaren eta Eider Rodriguez learen *Santa familia* gazteko komikia eskuratzeko. Egunero dihardugu elkartearen mahaian ere izango da Eskoziako eta Aretxabaletako uztelaren Eibarkoarekin eta Elgoibarkoarekin elkarlanean argitartutako jolas eta kantu sortutako liburua. Autoekoizleentzako gunea izango dira ibarrekoak: Azkoaga arrasatearraren *¿cómo se llama tu país?* Josune Murgitiok argitartutako *Colores prohibidos* eleberria.

AZOKA TELEBISTA, DURANGOTIK ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA, 'EMISIO JARRAITUA'
ABENDUAREN 6TIK 10ERA, 10:30ETIK 20:00ETARA
(EMISIO JARRAITUA)

Ibarreko musika asko ere izango da, berriz, 20 urte bete dituen Arkada taldeak *Eromena besarkatzen* lana eramango du. Mahai batean izango dira Huntzaren berriztatzea eta Gosereren errautsua jaiotako Anita Parker. Baga Biga etxeak babes berekin izango da, berriz, Governors eta Nomadak satekoen *Z.E.R.O.* CDa sateko mahaian izango da; platerik ere izango da, platerik ere digitaletan zabalduko du, berriz, Emon taldeko kide berrak sortu duten proiektu berria. Horiez gainera, ibarreko musikariaren lan gehiago eta auzoaren penak izango dira (ikus



ANITA PARKER
Anita Parker
Mauka Musikagintza



EROMENA BESARKATZEN
Arkada Social
Mauka Musikagintza



Z.E.R.O.
Governors
Baga Biga



LUMAK
Huntza
Mauka Musikagintza



BIZITZAKO KOLOREAK
Juan Carlos Irizar
J. C. Irizar



DANBA!
John Andueza
Elkar



HAZIAK
Euskal Herriko Trikitixa Elkartea
Euskal Herriko Trikitixa Elkartea



ROCKANROLLA MAILU BAT DA
La Banda del Abuelo
Autoekoiztua



NONDIK HASI
Perlata
Autoekoiztua



MUNDUKO ZORIONA
Aitor Olea
Ausart Records



POTX ETA LOTX HERRIKO FESTETAN
Potx eta Lotx
Lanku bertso zerbitzuak



ZUKAFUKAMUSUKA
Judit Ruiz de Muniain
Txalaparta

Urteko kultura uzta eskuragarri

Abenduaren 6tik 10era izango da 52. Durangoko Azoka; Gerediaga elkartek hainbat erakunderen eta elkarterekin batera antolatzen du. Goiena telebistaren eta 'Goiena.eus' eta 'Durangokoazoka.eus' atarien bitartez egin ahal izango da Azokaren jarraipena

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Euskal Herrian ekoizten den ia guztiaren erakusleiho eta salmenta-gune izaten da Durangoko Azoka. Ez dira urtean sortutako kultura ekoizpen guztiak izango, baina gero eta gehiago dira han egoteko saiakera egiten duten ekoizle txikiak.

Ekoizpen handiak eta txikiak Askotariko formatu eta generoetako idazlanak izango dira aurten ere. Argitaletxeen babesarekin izango dira batzuk: Elkarren standean izango da, esaterako, John Andueza arrasatearrak idatzi duen *Danba!*

eleberria; helduentzako idatzitako istorio indartsu batekin izango da oraingoan. Eguaztenean aurkeztu zuten, Donostian, Paula Badiola abokatuaren istorioa kontatzen duen liburua. "Emakume baten gorpua azaldu da Zugaztietako ur-putzuan. Eta gorpua hori iceberg makabro baten ageriko muturra besterik ez da", dio Anduezak. Txalapartaren mahaietan izango da, berriaz, Aretxabaletan bizi den Judit Ruiz de Muniainek Patxi Zubizarretarekin eta Jokin Mitxelenarekin ekainean kaleratu zuen helduentzako *Zukafukamusuka* liburu erotikoa.

Ikastolen Elkartearen mahaian izango da, berriz, Ribas Arrasateko marrazkariaren eta Eider Rodriguez learen *Santa familia* gazteko komikia eskuratzeko. Egunero dihardugu elkartearn mahaian, baina gero eta gehiago erosi ahal izango da Eskoziako eta Aretxabaletako urteko Eibarkoarekin eta Elgoibarkoekin elkarlanean argitartutako jolas eta kantu sortuak. Autoekoizleen guneetan izango dira ibarrekoak: Azkoaga arrasatearraren *¿cómo se llama tu país?* Josune Murgitiok argitartutako *Colores prohibidos* eleberria.

AZOKA TELEBISTA, DURANGOTIK ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA, 'EMISIO JARRAITUA'
ABENDUAREN 6TIK 10ERA, 10:30ETIK 20:00ETARA
(EMISIO JARRAITUA)



Ibarreko musika asko ere 20 urte bete dituen Arkada taldeak *Eromena besarkatzen* lana eramango du. Mahaiak izango dira Huntzaren bitartean eta Goserren errauts jaiotako Anita Parker. Baga Biga etxeak babes duen *Governors* eta Nomadak *Z.E.R.O.* CDa sortu mahaian izango da; platerik digitaletan zabalduko du, berriz, Emon taldeko kide baten sortu duten proiektu berria. Horiez gainera, ibarrek elkarlanerik lan gehiago eta ahalpenak izango dira (ikus

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan lau pertsona bizitzeko. Bi edo hiru logelakoa. Telefonoa: 632 48 38 91

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Pre-sazkoa da. 662 43 08 54

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza behar dut, erdigunean edo bertatik gertu. 675 70 88 67

Bergara. Etxebizitza hartu nahi dut errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 657 43 24 65

Debagoiena. Baserrira edo lursaila duen etxea hartuko nuke errentan. Partekatze ere gertu egongo nintzateke. Telefonoa: 669 64 11 31

Debagoiena. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa gubxienez. Jantzitza ez badago ere, hartuko genuke. Hilean 300-500 euro artean ordainduko genuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 77 35 38

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan, kuartelaren parean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 609 94 76 94

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Ganbara Oñatin. Etxaluzen (Kalebarria 54an) ganbara alokatzen da. Biltegi moduan erabiltzeko oso aproposa. Prezio ona. Deitu 18:00etatik aurrera zerbaki honetara: 618 19 51 01

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Soziosanitario ikasketak eta urtetako esperientzia duen emakumea nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. Telefonoa: 630 99 11 85

Arrasate. Garbiketarako egiten lan egingo nuke. 631 03 04 49

Arrasate. Garbiketarako eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 632 91 89 93

Bergaran edo inguruan. Umeak eta nagusiak zaindu edota paseatzera laguntzeko gertu nago. Telefonoa: 696 84 19 51

Debagoiena. Aretxabale-tako neska euskalduna nagusiak orduka zaintzeko gertu. Laguntzaile titulua dut eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. Autoa daukat. 617 20 59 43

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, sukalde laguntzaile moduan edota elikagai dendan jarduteko. Autoa daukat. Telefonoa: 618 84 98 79 (Ana)

Debagoiena. Emakume arduratsu eta langilea gertu uneak zaintzeko etxeko lanak egiteko edota tabernan jarduteko.

Ahal bada, arratsalde. 675 94 46 35 (Marije)

Debagoiena. Emakumea gertu etxean garbitzeko edota emakume nagusiak zaintzeko. 632 77 35 38

Debagoiena. Emakumea ume eta nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten zein orduka. 634 02 11 87

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzen eta garbiketarako jarduteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 23 33 58

Debagoiena. Garbiketarako eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 19 02 54

Debagoiena. Garbiketarako eta nagusien zaintzan aritzeko gertu nago. Baita gauze ere. Telefonoa: 631 09 50 90

Debagoiena. Gidari, banatzaile, peoi, jatetxe zein hotelen garbiketarako lanetan eta abarreak lan egingo nuke. Autoa daukat. Telefonoa: 632 98 31 81

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna edo etxean garbiketarako, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu, nagusiei lagundu edota bestelako lanak egiteko. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Martitzenetan eta eguenetan lan egingo nuke nagusi edo umeak zaintzen, garbiketarako egiten eta abarreak. Lantegi eta jatetxean ere badut esperientzia. Telefonoa: 647 10 58 72

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 600 66 41 31 (Ignacio)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nituzke, etxean bertan bizi iaten edo bestela. Esperientzia daukat. 603 37 50 51 (Gloria)

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. 603 66 75 23

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten,

orduka eta baita asteburuetan ere. 600 86 41 39

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, margolari lanean edota garbiketarako lan egingo nuke. Telefonoa: 685 98 26 06

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. Orduka, etxean bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 631 59 67 91

Debagoiena. Neska arduratsua orduka, etxean bizi izaten edo ez, nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. Telefonoa: 631 81 21 45

Debagoiena. Sukaldean laguntzen, nagusiak zaintzen edota atari eta abarrek garbitzen lan egingo nuke. 688 29 97 05

Debagoiena. Zaintza lanak egiteko gertu nago. Orduka, etxean bertan bizi izaten edota gauze. Baita

ospitallean ere. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 664 12 43 25

Oñati edo Arrasate. Pertsona arduratsua prest nagusiak eta umeak orduka zaintzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 680 63 67 80

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Bigarren bati-lergoko matematikako eta fisikako eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 635 55 06 41

502. EMAN

Gitarra elektrikoa. Gitarra elektrikoko eskola partikularrak ematean dira. Etxe etxe ere bai. Metodo erraz eta dibertigarria. Adin guztiak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 633 31 11 00



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoRosati.com

